

# *Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa*

Egilea

*Xabier Alberdi Larizgoitia*

Laguntzailea

*Iñaki Ugarteburu Gastañares*



## **Euskara Institutuak argitaraturiko bestelako lanak**

**Euskara-probak. UPV-EHUko  
irakasleen euskara-gaitasuna  
frogatzeko materialak.  
Gaiak eta terminologia**

**GB sintaxi ikastaro bat  
Howard Lasnik eta Juan Uriagereka**

**Hitz-ordena, galdegaia  
eta komaren erabilera.  
Idazkera Teknikoa 1  
Juan Carlos Odriozola  
eta Igone Zabala**

**Izen-sintagma.  
Idazkera Teknikoa 2  
Juan Carlos Odriozola  
eta Igone Zabala**

**Testu-loturarako baliabideako.  
Euskara Teknikoa  
Koord.: Igone Zabala**

### **Informazioa eta eskariak:**

**Euskal Herriko Unibertsitateko  
Argitalpen Zerbitzua**

**Internet:[http://www.lg.ehu.es/servicios/se\\_az](http://www.lg.ehu.es/servicios/se_az)  
1397 P.K. 48080 Bilbao  
Tf. 946012000  
Faxa 944801314**

**ESKATU GURE KATALOGOA**

EUSKALTZAINDIAREN  
ARAUGINTZA BERRIA:  
IKASTAROA





# EUSKALTZAINDIAREN ARAUGINTZA BERRIA: IKASTAROA

Egilea

*Xabier Alberdi Larizgoitia*

Laguntzailea

*Iñaki Ugarteburu Gastañares*

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco  
servicio editorial

Euskal Herriko  
Unibertsitatea  
argitalpen zerbitzua

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berorri tratamendu infomatikoa ematea edota liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratarata, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

I.S.B.N.: 84-8373-138-X

Lege gordailua: BI-1.083-99

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.

Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Itxaropena, S.A.

Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

# Aurkibidea

ATARIKOA .....	9
I. SARRERA: EUSKARA BATUAREN ARAUTZEA .....	13
—Sarrera: arau kontzeptua dela eta .....	15
—Arantzazuko txostena (1968) .....	16
—Ondoko erabakiak .....	19
—Euskaltzaindiaren araugintza berria (1994-1998) .....	20
—Arauzko hizkuntza (akademiak arautua) eta hizkuntza estandarra .....	23
—Zuzentasunetik egokitasunera: akademiaren arauen garrantzi mugatua ..	25
—1-76 arauen zerrenda .....	29
—1-76 arauen sailkapena .....	31
II. ARAUEN LABURPENAK .....	33
III. EUSKALTZAINDIAREN ARAUGINTZA BERRIA .....	53
1. <i>Bat-batean, behinik behin, batik bat</i> .....	55
2. <i>Baitu, baikara, bainaiz, e.a.</i> .....	56
3. <i>Aurrealde</i> edo <i>aurreko alde, e.a.</i> .....	56
4. <i>Hau guz(t)ia</i> .....	57
5. <i>Ene/nire, nirekin, niri, e.a.</i> .....	57
6. <i>Arrain, usain, artzain, e.a.</i> .....	58
7. Zenbakien idazkeraz. ....	59
8. Zenbakien deklinabideaz ( <i>hiru, lau</i> ) .....	60
9. <i>-zio</i> .....	63
10. <i>Nornahi, nonahi, non-nahi</i> .....	63
11. <i>Nor/nortzuk, zer/zertzuk, zein/zeintzuk</i> .....	64
12. <i>Bat</i> eta <i>batzuk</i> -en deklinabidea .....	65
13. Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri .....	67
14. Adizki alokutiboak (hikako moldea) .....	68
15. Partitiboaren erabilera okerra .....	69
16. <i>Zu izan ezik</i> .....	70
17. Euskal alfabetoaren letren izenak .....	71

18. Ordinalen eta banatzaileen idazkera .....	71
19. <i>Benetako, ohiko</i> .....	73
20. <i>Betiko</i> eta honen kideak .....	73
21. <i>Arabera</i> .....	74
22. <i>Iritzi</i> .....	74
23. <i>Arazi</i> .....	75
24. <i>Ba-</i> eta <i>gabe-</i> ren idazkera .....	77
25. Hitz elkartuen osaera eta idazkera .....	77
26. <i>-z gero</i> .....	86
27. <i>Hori eta, hori edo</i> eta horrelakoen idazkera .....	87
28. Aditzoinen forma .....	89
29. Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea .....	91
30. Partitiboa baiezko perpausetan noiz eta nola .....	93
31. <i>Ekartzea merezi du</i> .....	95
32. Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak ...	97
33. <i>Ongi etorri!</i> .....	99
34. <i>Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia</i> .....	100
35. Orduak nola esan .....	104
36. Frantziako Errepublikako eskualdeen izenak .....	110
37. Data nola adierazi .....	112
38. Munduko estatu izenak, hiriburuak eta herritarren izenak .....	113
39. Zenbait aditzen erregimena ( <i>gonbidatu, iguriki, itxoin, itxaron, deitu, lagundu</i> ) .....	119
40. <i>Topiko(a) bihurtu</i> .....	122
41. <i>Egiteko asmoz</i> .....	124
42. <i>Lehenago etorriko zen; lehenago asmatuko zuen</i> .....	125
43. <i>Arazi</i> aditzaren erregimena .....	126
45. Gure egitura politiko batzuen euskal izenez .....	129
47. Hizkuntza hilak eta klasikoak .....	131
49. <i>-ARI (-lari)</i> atzizkiak .....	131
50. <i>-ARI / -ARIO</i> .....	133
51. Kontinenteak, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak ...	135
52. Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak) .....	136
53. Munduko estatuetaiko hizkuntza ofizialak .....	137
57. Euskal herrialdeen, herritarren eta euskalkien izenak .....	138
73. <i>-go</i> atzizkia eta izen multzokariak .....	140
85. Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma .....	141
87. Euskara Batuaren ahoskera zaindua .....	143
IV. HIZTEGI BATUA .....	149
A-oihan .....	154
V. ARIKETAK .....	313
VI. ARIKETAK: EBAZPENAK .....	383

ATARIKOA



Esku artean duzun argitalpen hau, irakurle, EHUko Euskara Institutuak 1998an antolatu zuen hobekuntza-ikastaro baten emaitza da: orain bildurik eta osaturik aurkeztu ditugu ikastaro hartan erabili ziren langaiak, unibertsitateko ikasle, irakasle eta langile euskaldunei lagungarri gertatuko zaizkielakoan. Hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren eta EHUren arteko lankidetzeta-hitzarmenari esker gauzatu da argitalpen hau.

Izenburuak adierazten duenez, Euskaltzaindiaren araugintza berria da liburu honen ardatza: zehatzago esateko, 1990eko hamarkadan emaniko arau garrantzitsuenak bildu dira argitalpen honetan. Bilduma bat da, beraz, liburuaren tankeran emana edo antolatua, eta unibertsitateko euskal hiztunari arauen inguruko eguneratze-lanean laguntzeko asmoz burutua.

Liburuak sei atal nagusi ditu. Lehenengoan, euskara batuaren araugintzari buruzko argibide batzuk eta arau kontzeptuari buruzko hausnarke-ta xume bat eskaini dira. Bigarren atalean, arau berrien laburpenak datoz, Euskaltzaindiaren agerkarietan agertu bezalaxe. Hirugarrenean, arauak berak jaso dira: lehenik, erabakia laburbiltzen duen adierazpen orokorra ematen da; eta gero, arauaren oinarri, tradizio eta irizpideak laburtzen dira. Laugarren atala hiztegi batuari dagokio: jarraian eta ordena alfabetikoan —baina erabakiaren zenbakia aipatu gabe—, argitaraldi honen eguna arte harturiko erabaki guzti-guztiak jaso dira, hiztegi batuko hitz guztiak, alegia. Azkenik, bosgarren eta seigarren ataletan, araugintza berria lantzeko ariketa-bilduma eta ariketa horien ebazpenak eskaini dira, hurrenez hurren.

Hauta-lanaren emaitza da liburua, eta alde horretatik, ezin du ordezkatu araugintzaren lehen eskuko ezagutza, alegia Euskaltzaindia *Euskera* bere agerkariaren bidez eta harpidedunei zuzenduriko bilduma berezi baten bidez zabaltzen ari den arauen berariazko argitalpen xehea. Beraz, liburu honen hutsuneak betetzeko, jatorrizko argitalpen osoetara jo beharko



du irakurleak: ibaien, aintziren, santutegiko izenen edo pertsona-izen klasikoen inguruko zalantzak argitzeko, adibidez<sup>1</sup>.

Gainera, Euskaltzaindiaren arautze-lan berria oraindik prozesu bukatugabea dela kontuan harturik, begien bistan geratzen da argitalpen honen balio mugatua: gutxi gorabehera, 1994-98 aldiari dagozkion erabakiak jaso ditugu liburu honetan. Nolanahi ere, hiztegi batuaren garrantziaz jabeturik, ahalegin berezia egin dugu hiztegiaren arloan oraintsuagoko arauak ere jasotzeko. Ahaleginak ahalegin, aurrerantzean ere euskaldun ikasiak arretaz eta hurbiletik egin beharko du etorkizun dagoen araugintza berriaren jarraipena.

Bestalde, argitalpen honen balio nagusietako bat erosotasuna dateke: alegia, Euskaltzaindiaren araugintza berriaren ikuspegi zabal eta osoa, modu eroso eta erabilgarrian eskaintzea, eta ez modu barreiatu eta zatikatuan. Beste alde on bat, ariketa-sorta eder batez horniturik egotea da (55 ariketa baino gehiago, ebazpena eta guzti<sup>2</sup>): hortaz, informazioa ez ezik, aritzeko eta trebatzeko aukera ere izango du irakurleak, bereziki hiztegiaren arloan.

Beraz, bilduma-tankerako liburu honi eskerrak, aurrerantzean unibertsitategi euskaltzaleak bere burua lehen bezain galdua ikusiko ez balu, betea geratuko litzateke argitalpen honen helburu nagusia: alegia, euskaltzale jakinahiarentzat araugintzaren «labirintoan» bide-erakusle gertatzea.

---

<sup>1</sup> Irakurleak sarrerako atalaren bukaeran (29-30 orr.) ikus dezake 1994-1998 aldiko erabakien zerrenda. Liburu honetan ia-ia denak laburtu ditugu, izendegi-tankerako erabaki batzuk izan ezik: alegia, ez ditugu sartu argitalpen honetan ibaien, aintziren, santutegiko izenen eta pertsona-izen klasikoen inguruko erabakiak.

<sup>2</sup> Hiztegi batua lantzeko ariketetako esaldi gehienak unibertsitate-mailako ikasliburuetatik jasota daude; benetako esaldiak dira, beraz, eta ez asmatuak.

I

SARRERA:  
EUSKARA BATUAREN ARAUTZEA



## Sarrera: Arau kontzeptua dela eta

Jakina denez, *arau* kontzeptua ulertzeko modu asko daude hizkuntzalaritzan. Hona hemen, terminoaren adiera edo erabilera nagusietako batzuk:

1. Araua zenbaitetan hizkuntzaren «gramatika-erregelaren» zentzuan erabiltzen da. Zentzu honetan, araua ez da gizarte-erakundeek edo taldeek (akademiek-edo) ezarritakoa, hizkuntzaren gramatikak «agindutakoa» baizik (adibidez, *\*apurtutak daude mahaiak > apurtuta daude...*). Hau arau gramatikala da: erabileren gramatikaltasuna edo gramatikaltasunik eza argitzen duena. Adiera honetan «gramatikala» eta «gramatikaz kanpoko» (agramatikala) kontrajartzen dira.
2. Beste adiera batean, hizkuntzaren akademiak erabakitakoari deitzen diogu «araua». Hau arau akademikoa da. Oso agerian geratzen da orduan arauaren egiunezko izaera: hizkuntzaren gain arautzeko ahala aitortzen zaion erakunde bateko kideek, elkar hartuta, erabakiak hartzen dituzte. Arau honi gagozkiola, «zuzena» eta «okerra» izenondoak erabiltzen ditugu maiz.
3. Hirugarrenez, bestelako adiera batean, araua sistemari kontrajartzen zaio eta sistemaren gauzatze kolektiboaren zentzuan hartzen da (Coseriu). Zentzu horretan arau bat baino gehiago bereizten dira hizkuntzaren aldaera sozial, dialektal edo erabilerazkoen arabera. Zentzu teknikoan arau honetan, eremu jakin batean «nola esan ohi den» frogatzen da eta ez «nola esan behar den»; kontrajartzen diren kontzeptuak «ohikoa/ezohikoa» dira eta ez «zuzena/okerra». Arau honek ez du, printzipioz, balio arauemailerik. Arau akademikoa edo kodifikazioa, gehienetan, «ohikoak diren arauen» atzetik etorri ohi da, berresteko edo aurka egiteko.

4. Bestalde, gizartearen, geografia-hedapenaren edota ingurunearen arabera «arau bat baino gehiago» agertzen zaizkigu. Eta arloko edo eremuko erabilera horiei ere sarritan kutsatzen zaie joera arauemailea: esate baterako, egunkari gehienetan arau zehatzak ematen dira hizkuntzari buruz eta gero, emandako arau horien argitan ebaluatzen dira hizkuntzaren erabilerak, «zuzentzat» edo «okertzat» joaz.

Euskara batua arau-mota bat da; Coseriuren arabera, hizkuntzaren akademiak ezarritako araua *arau kodifikatua* da eta batez ere idazkeran (hizkuntza idatzian) islatzen da. Zentzu horretan, euskara batua ez da bukaturik eta osaturik dagoen zerbait, oraindik ere egiten edo kodetzen ari den araua baino. Hona hemen, bada, euskara batuaren arautzeak orain arte izan duen ibilbidearen urrats nagusiak.

### **Arantzazuko txostena (1968)**

Gaurko euskara batuaren lehen oinarriak Mitxelenaren Arantzazuko txostenean<sup>3</sup> finkatu ziren. Txosten hartan honako arlo hauek landu ziren:

1. Oinarriak: batasunaren irizpide nagusiak.
2. Ortografiaren oinarriak (alfabetoa, letren erabilera...).
3. Hitzen forma.
4. Hitz berriak.
5. Morfologia.
6. Joskera.

Hona hemen, labur-labur, Euskaltzaindiaren aspaldiko adierazpen hartako proposamen-gomendio garrantzitsuenetarikoko batzuk<sup>4</sup>.

#### *Oinarriak*

Oinarri haien arabera, batasuna —lehen urratsetan behintzat— euskara idatziarena zen (eta hala da oraindik ere). Batasunak honako helburu edota ondorioak ekarri behar zituen berekin: euskalkiak elkarrengandik gehiago ez urruntzea eta ahal zen neurrian, baita elkarrengana biltzea ere. Eta jakinaenez, batasuna egiteko, Bilbo euskalduna ez zelarik, erdialdeko euskalkietara jotzea proposatu zen. Batasuna, azaleko auzietatik hasita eraiki behar zen, mamiari zegozkion arazoak geroko utziaz.

---

<sup>3</sup> «Ortografia» (*Euskera*, XIII, 1968, 203-220). Euskaltzaindiak oraintsu arau berrieekin batera berrargitaratu duena (ik. *Euskaltzaindiaren Arauak*, bigarren karpeta).

<sup>4</sup> Baita in *Euskaltzaindiaren Arauak* (arauen bilduma), 2. karpeta, 525-541.

## Ortografia

Ortografiari dagokionez, alfabetoaren gutxieneko letrak finkatu ziren lehenik (>f< eta >h< letrak barne zirela eta >c, qu, v, w, y< modukoak erdal hitzak idazteko proposatuz). Gainera, ondoko «digrafoak» ere onartu ziren: >rr<, >dd<, >tt<, >ll<, >ts<, >tx<, >tz<. Era berean, Baionako erabakiei jarraituz, >h< letra erabiltzeko oinarriak jarri ziren, *mahai, aho, ehun, hats...* modukoak bai, baina *aphez, athe, ekharri* eta *erho, belhar, unhatu* bezalako idazkerak baztertu. Orobat, hitz adierazkorren kasuan izan ezik, >in< eta >il< idazkerak bultzatu ziren >iñ<, >ill<, >ñ< eta >ill< formen ordeiz. Zeinu batzuen erabilera mugatu zen: a) galdera- eta harri-dura-markak esaldi-azkenean bakarrik (>?<, >!<) erabiltzea proposatu zen; b) apostrofoa *t'erdia* kasura edo antzekoetara murriztu zen; c) marraztoa (-) erabiltzeko gomendioak eman ziren (*Piaget-ek, Bremen-en*, baina *Parisen, Bizkaian...*). *Ba-* baiezkoa eta baldintzazkoa batera idaztea proposatu zen. *Ez* eta *bait*, biak, askaturik idaztea proposatu zuen Mitxele-nak. Eta *duenez gero*, *atzo gero(z)* eta *Ez du egin, ez daki eta* idazkerak bultzatu ziren.

## Antzinako euskal hitzen forma

Antzinako euskal hitzen formari dagokionez, besteak beste, ondoko irizpide-gomendioak ezarri ziren: a) «euskal hitza», euskaldunok aspaldidanik darabilguna da, datorren lekutik datorrela; b) antzinatasunak ematen dio soil-soilik hitz bati jatortasuna; c) euskaldun guztiek edo gehien-gehienek darabiltenari eman behar zaio lehentasuna; d) *bekoki/kopeta, jin/etorri...* moduko bikoteen aurrean, guztiez baliatzea proposatu zen, ahal zen neurrian desberdintasunak ezarriz; d) Euskaltzaindiak ezin arbuia dezake euskal hitzik: nahiago ditu bizi-bizirik dirautenak zaharkituak baino, (euskal literaturan eta euskal irakurgaietan) gehiago erabiltzen direnak eta zabalago hedatuak daudenak; e) zenbait aldaera besterik gabe baztertu beharrak dira euskara idatzian (*biar* > *bihar*, *biño* > *baino*, *abitu* > *abiatu*, *zun* > *zuen/zuan*, *ixen* > *izan...*); f) zenbait laburpen (*lez* > *legez*, *nipe* > *nik (b)ere...*) arbuigarriak dira; f) euskalki guztiek egin dituzten aldaketak onartzekoak dira (*arima* eta ez *anima*); g) erdal etorkiko hitz anitzetan b-, d-, g- aldaera hobesten da (*pekatu* > *bekatu*, *torre* > *dorre*, *kerezi* > *gerezi...*); h) bazter-euskalkiek makurtu behar lukete zenbait alditan erdikoan alde (*barri* > *berri*, *ultze* > *iltze*, *ukuzi* > *ikuzi*, *sen-to (sonto)* > *sendo*, *uzen* > *izen...*); i) bazterreko euskalkiak bat datozenean, berriz, indar gehiago dute erdikoek baino (*burni(a)* > *burdina*); j) hots-bereizkuntzak ondo gorde behar dira hizkuntza idatzian; k) oroit gaitzen euskalkiak gero eta gehiago bereizten ari zaigun mugaz, batez ere hiztegi aldetik.

## Hitz berriak

Arlo honetan ondoko oinarriak ezarri ziren: a) ez dago hitz berririk sortu beharrik euskal hitz zahar jatorrak, erdaratikakoak direlakoak, baztertzeko asmoz; b) euskal hitzak sortzean, gure hizkuntzaren moldea (hitz-elkarketa bereziki) gorde behar dugu; c) bestetariko hitzak hartzerakoan, >y<, >kh<, >th<... gisakoak baztertzearen alde eta etorkizko zenbait kontsonante-multzo bakuntzearen alde agertu zen Mitxelena; d) erdaratikako hitz berrietan >v< gordetzea (*vektore*) eta kontsonante-multzo batzuk (*vektore*, *-logia*) aldatu gabe uztea gomendatu zuen Mitxelenak txosten hartan.

## Morfologia

Morfologiari dagokionez, ondoko gomendioak eman ziren: a) deklinabide mugatua eta mugagabea (*zenbait gizon, edozein lekutan, bi mendiren erdian, zein ikaslek, ez du begik ikusi...*) bereizi behar dira; b) *mendietatik* formarekin batera *mendietarik* eta *gizonengan(dik)* formarekin batera *gizonen baitan (baitatik)*... formak ere onartzea proposatu zuen Mitxelenak eta orobat *-gaz* atzizkia bizkaieraz idazteko; c) instrumental delakoa (*ezpataz hil zuen*) gordetzearen aldekoa zen Mitxelena; d) aditz-paradigmak hautatzerakoan, aukera bitez beti, ahal delarik, beste euskalkietakoetarik gutxien saihesten direnak (*dauz > ditu(z), gauz > gaitu(z); natxegok > ...*); e) (*egin*) *dezake / lezake* bereiztea proposatu zen; f) *sar bedi, sar daiteke, sar dadin, iraul beza, iraul dezake, iraul dezan*, baina *sartu da, sartu behar du...*

## Joskera

Honako irizpideak proposatu zituen Mitxelenak: a) euskal autore gailenetan dauka Euskaltzaindiak oinarri sendoa; b) sartaldeko hizkuntzetako prosa zenbait bidetan barrena ibiltzen ikasia eta trebatua da, latinaren ondotik; era berean, hainbeste ez bada ere, geure hizkuntza («latinaren, eta erabat sartaldeko hizkuntzen, kutsua geure bekokian daramagu. Aitor dezagun, on(h)ar dezagun, eta goazen aurrera bide horretarik.»); c) egungo prosa, ez da hizkuntza batekoa edo batena, nazioartekoa baizik (B.L. Whorf-ek «standard average European» deitu zuena) eta euskal idazlerik gehienek ere ez dute bestela jokatu; d) euskal gaietarik kanpora, euskal prosak «ur garbiaren pare» behar du izan, inongo usainik, kolorerik eta zaporerik gabea; e) hitz-ordenaz eta aurkitu diren legeak ez dira idazlea estekatzeko kateak, honen kemenak gehi ditzaketen lanabesak baizik.



## Ondoko erabakiak<sup>5</sup>

### Ortografia

1. Puntuazioa: harridura- eta galdera-markak; zenbakiak; komatxoak, apostrofoa; marratxoak. (*Euskera*, XVI, 1971, 150-153)
2. Loturiz ala bereiz:
  - hitz-elkarteak; *gabe*; *baitan...*; *arazi/erazi*; *...edo*; *ahal/bide/omen/ote* (*Euskera*, XVI, 1971, 156-159)
  - ez*, *ba*, *bait* (*Euskera*, XVII, 1972, 168-173)
3. Kontsonante busti-palatalen grafia (*Euskera*, XXIV, 1979, 91-92 edo *Bergarako Biltzar Ondoko Erabakiak*, 1979, 21-22)
4. H letraren ortografia-arauak (*Euskera*, XXIV, 1979, 659-679 edo *Bergarako Biltzar Ondoko Erabakiak*, 1979, 53-88)
5. Euskal alfabetoaren letren izenak (*Euskera*, XXIV, 1979, 703-704 edo *Bergarako Biltzar Ondoko Erabakiak*, 1979, 125-126)

### Deklinabidea

1. Izenkien deklinabidea (*Euskera*, XXIV, 1979, 633-657 edo *Bergarako Biltzar Ondoko Erabakiak*, 1979, 25-51)
2. Erakusle soilen deklinabidea (*Euskera*, XXIV, 1979, 629-6632 edo *Bergarako Biltzar Ondoko Erabakiak*, 1979, 23-26)
3. -a berezkoa eta artikulua gisakoa leku-izen propioetan (ik. Euskaltzaindia, *Euskal Herriko udalen izendegia*, 1979, 7 eta 122-127).

### Aditza

1. Aditz laguntzaile batua (*Euskera*, XVIII, 1973, 5-74)
2. Aditz sintetikoa (*Euskera*, XXII, 1977, 787-850)

### Hiztegia (Hitzen forma)

1. Euskal hitzak zein diren (*Euskera*, IV, 1959, 214-215/ ik. Arantzazuko txostena, III.1)
2. Antzinako 2000 bat euskal hitzen forma batua (ik. Arantzazuko txostena, III) *Batasunerako Hiztegia*. Ikus *Euskera*, XIII, 1968, 251-265.
3. Hilabeteen izenak (*Euskera*, XIV, 1971, 103-107)
4. H letra daramaten hitzen zerrenda (*Euskera*, XXIV, 1974, 659-693)

---

<sup>5</sup> Ik. *Euskaltzaindiak batasunerako eskaini dituen erabakiak*, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Saila, Euskara Zerbitzua, Gasteiz, 1984.

5. *Euskal Herri hitza ez baztertzea (Euskera, XXIV, 1979, 115-118)*
6. Polizi erakunde desberdinen izenak (*Euskera, XXV, 1981, 153-157*)
7. Euskal Herriko udalen euskal izena (*Euskaltzaindia, Euskal Herriko Udalen Izendegia, Bilbo, 1979* edo *Euskera, XXIII, 1978, 317-334*)
8. Maileguzko hitz berriak (ik. *Euskaltzaindia, Maileguzko Hitz Berriei buruz Euskaltzaindiaren Erabakiak, 1986.*)

Gida gisa eskaini diren beste zenbait zerrenda:

1. Filateli hiztegia (*Euskera, XVIII, 1973, 205-206*)
2. Merkatalgo izendegia (ik. *Euskaltzaindia, Merkatalgo Izendegia, Iruñea, 1974* edo *Euskera, XVIII, 1973, 215-229*)
3. Zortzi urte arteko ikastola hiztegia (1784 hitz) (*Euskera, XX, 1975, 7-53*)
4. Pertsona izenak (ik. *Euskaltzaindia, Euskal Izendegia, Iruñea, 1977*)
5. Matematika hiztegia (*Euskera, XXIII, 1978, 255-268*)
6. Arkitektura hiztegia (*Euskera, XXIV, 1979, 307-327*)

### **Euskaltzaindiaren araugintza berria (1994-1998)**

Azpimarratu beharra dago oraingo araugintza berrian euskal tradizio idatzia izan dela oinarritzko irizpide eta gidari nagusia. Jakina, «tradizioa» aipatzean ez dugu euskara batuaren historia edo tradizio labur eta berria (1968-1990) adierazi nahi; izan ere, batzuetan erabaki berriak azken aldi honetako ohituren aurka joan dira (*batetan > batean; eritzi > iritzi; batzu > batzuk; hamaika urtetako mutila > hamaika urteko mutila; aurrekalde > aurrealde; hogeitazazpi/hogei eta zazpi > hogeita zazpi...*).

Tradizioak tradizio, egia da, nolana ere, zenbaitetan tradiziozko usadioetatik ez dela zuzenean eratoritzen hautu bakar eta segurua; hots, maiz, tradizioa(k) aintzakotzat harturik, tradizioen artean hautatu beharrean aurki gaitzke eta horrelako batzuetan Euskaltzaindiak bere hautua egin du, denen gustukoa izan(go) ez dena, jakina.

Batasunaren historia guztian bezala, orain ere, funtsean euskara batu idatziaren batasunaz ari gara, idatzia uste eta nahi baino maizago hizkuntza mintzatuan ispilatzen bada ere. Bistan dago hor benetako arazoa dugula mailak elkarrengandik bereizten: euskara batuaren premia administrazio, hezkuntza eta komunikabideetara zabaldu den neurrian, maila idatzi soila gainditzen duen hizkuntza *estandarren* betekizunak betetzera etorri da euskara batua; eta une horretatik, idatzirako ezartzen dena idatziaren mailaz haratago doa, mintzatura, alegia. Denbora pixka bat behar ko da euskara batuaren gainean eraikitako estandarrek halako beregaintasuna edo izaera autonomoa lortu eta finkatu arte.

### *Hiztegi batuaren garaia*

Aldi berri honetako araugintzaren berrikuntzarik garrantzitsuenak hiztegi batuarena izan da. Aurreko garaietan, gutxi-asko, nahiko ondo finkatuta geratu ziren euskara batuaren ortografia eta morfologia (deklinabidea eta aditz-jokoa) eta orain, lehen aldiz, Euskaltzaindiak hiztegi batua —oraingoz FORMA bakarrik edo FORMA nagusiki— finkatzeari ekin dio modu sistematikoan. Alde horretatik, orain gure artean hiztegi batua dela-eta sorturiko auzi eta eztabaidek aurreko mendeetako gaztelaniaren egoera dalkarkigute gogora: hizkuntzaren Akademia Espainiarrak antzeko egoera nahasiari aurre egin behar izan zion<sup>6</sup>.

Mitxelena Arantzazuko txostenean (III, 12) iradoki zuen egitekoa hartu du bere gain Euskaltzaindiak: «Beharrezkoa dugu, bederen, hiztegi-txo bat, ia ortografiarekikoa huts-hutsik, nahi-ta-etzko badu ere hitzen esan-nahia laburzki adieraztea, zertaz ari den jakin dezagun» (Mitxelena, *Euskera*, XIII, 214. or.).

Hiztegi Batua egiteko, Euskaltzaindiak lehenago eman dituen hiztegi-gintzako zerrendak hartu dira abiapuntutzat (ik. aurreko atala) eta gainera bi iturri nagusi hauek: a) tradizioko hitzak (*Orotariko Euskal Hiztegia* ja-soak); b) xx. mendeko hitzik erabilienak (*Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa*). Iturri horiei guztiei forma berriagoak ere gehitu zaizkie, osoaera zuzeneko izanik, premia bati erantzuteko egokitzat jo direnean.

Lehenagoko zerrenda guztiak berrikusi nahi izan ditu Euskaltzaindiak, izan duten onarpen-maila neurtu, eta, gaur dugun informazio zabalagoaren argitan, berretsi nahiz beste formaren bat proposatu. Hiztegi Batuko hitzen zerrenda hurrengo pasaldietan osatzekoa da: beraz, ez da pentsatu behar zerrendan azaltzen ez diren hitzak batasunerako egokiak ez direnik; aipatu iturrietan etorri ez direlako ez daude zerrendan.

Erabilitako irizpideen artean erabakigarriena literatura-tradizioa izan da; baina horrekin batera, arreta berezia eskaini zaio Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko hizkuntza-batasunari, alegia, alde bateko eta besteko euskaldunak batzen gaituzten formak hobetsi dira.

Esan bezala, araugintza berriarekin batera hiztegiari iritsi zaio batasunaren garaia: izan ere, azken aldi honetan (94-97) Euskaltzaindiak hartu

---

<sup>6</sup> Ik. Lázaro Carreter-en hitzetan, «La Academia, al ser fundada en el siglo XVIII, se encontró con un pequeño caos. Llegaban a ella voces de escritura del todo fonetizada, junto con otras a las que un prurito etimologizante separaba poco o mucho de la pronunciación.» (F. Lázaro Carreter, *El dardo en la palabra*, Galaxia Gutenberg/Círculo de Lectores, Barcelona, 1997, 117). Hona hemen, Lázaro Carreter-en lekukotasuna, hizkuntzaren akademiek duten indarraren erakusgarri: «Hay dos casos en que sí se mostró resolutive [la Academia Española]: frente a *dotor*, *doctrina* casi absolutamente generales, patrocinó *doctor* y *doctrina* con el éxito futuro que a la vista está.» (Ib. 118).

Ikus Lapasaren *Historia de la lengua españolatik* (Gredos) jasotako zati adierazgarriez osatutako testua sarrera honen bukaeran (28 orr.).

dituen 76 arauetatik erdiak baino gehiago hiztegiari buruzkoak dira, %35 inguru morfosintaxiari dagozkio eta gutxienak dira ortografia edo idazkerarekin zerikusia dutenak (ik. oraingo arauen sailkapena sarrera honen bukaeran, 31 orr.).

### *Morfosintaxia*

Morfosintaxiaren arloan ez da egon hainbesteko berrikuntzarik azken aldiko araugintzan. Beharbada, erabaki garrantzitsuenetako bat hitanoko aditz-jokoari dagokiona da (14. araua). Hortik kanpora, maila desberdinetako erabakiak hartu ditu Euskaltzaindiak.

Zenbait arauk, aspaldi honetan hedaturiko aldaera batzuen artean aukera gramatikala eta gramatikaz kanpokoa zein diren gogorarazten digute, inongo berrikuntzarik ekarri gabe; maila horretakoak dira hurrengo modukoak: 15. araua (partitiboaren erabilera zuzena); 31. araua (*ekartzea merezi du*).

Beste erabaki askok tradizioko erabilera sustraitua gogorarazi, hobetsi edota ezarri besterik ez dute egiten. Maila horretakoak dira hurrengo modukoak:

- 4. araua (*hau guztia*);
- 16. araua (*zu izan ezik*);
- 19. araua (*benetako, ohiko*);
- 20. araua (*betiko...*);
- 30. araua (partitiboaren erabilera baiezko perpausetan);
- 33. araua (*ongi etorri*);
- 34. araua (*hiru kiloko harria*);
- 40. araua (*topiko(a) bihurtu*);
- 41. araua (*egiteko asmoz*);
- 42. araua (*lehenago etorriko zen*)...

Gehienetan, tradizioan oinarrituta, aukera egiten da zabaldutako forma (dialektal) desberdinen artean, egiunezko edo hitzarmenezko hautua hartuz. Sail horretan sar genitzake hurrengo modukoak:

- 5. araua (*ene/nire*);
- 8. araua (zenbakien deklinabidea);
- 11. araua (*nor/nortzuk...*);
- 12. araua (*bat/batzuk...*);
- 25. araua (hitzez elkartuen osaera eta idazkera);
- 28. araua (aditzoinen forma);
- 29. araua (diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea);
- 35. araua (orduak nola esan);
- 37. araua (data nola adierazi);
- 39. araua (zenbait aditzen erregimena);

- 43. araua (*arazi* aditzaren erregimena);
- 49. araua (*-ari* (*-lari*));
- 50. araua (*-ari/-ario*);
- 73. araua (*-go* atzizkia).

### Ortografia

Ortografiaren arloan ere ez dugu berrikuntza handiegirik. Dena dela, beste alde batetik begiratuta eta hiztegi batua neurri handi batean hiztegi ortografikoa dela kontuan harturik, ezin ukatuzkoa da araugintza berrian ortografiak hartzen duen garrantzia (*bat-batean; aurrealde; non-nahi...; bosgarren...; arabera; iritzi; arazi*). Erabaki garrantzitsuenen artean, beharbada, hurrengoak aipa ditzakegu:

- 2. araua (*baitu...*)
- 7. araua (zenbakien idazkera: *hogeita zazpi*)
- 23. araua (*arazi*)
- 25. araua (hitz elkartuak)

Hemen ere, tradizio idatzia izan dute irizpide nagusitzat erabakiak hartzerakoan (edo lehengo erabakiak aldatzerakoan), baina, jakina, tradizioaren irizpidea ez zen aski forma bat ezartzeko: hautatu beharra zegoen eta horixe egin du Euskaltzaindiak, hautuak egin.

Batzuetan orain arteko ohitura/araua zein den gogorarazten digute, besterik gabe: 24. araua (*ba-; gabe*).

Eta berrikuntzen artean, aipagarria da *-ill-* idazkeraren eta kontsonante ondoko *-h-*aren onarpena zenbait kasu jakinetan. *-ill-* proposatzen da nazioarteko forma denean, eta, beraz, Iparraldean ere palatala ahoskatu eta idatzi dutenean (*artilleria, gillotina, billete, billar*); idazkera bera proposatu da, orobat, Hegoaldeko hitz jakin batzuetarako (*bonbilla, tortilla*), *-ill-*ez idatzi baitira beti hitz horiek. Bigarren kasuan, hitz gutxi batzuk onartuko dira, Iparraldekoak direnak eta *-h-*rik gabe ulergaitz gertatzen direnak (*ala / alha*).

### Arauzko hizkuntza (akademiak arautua) eta hizkuntza estandarra

Hizkuntzalaritzan arau kontzeptua ulertzeko modu bat baino gehiago daude, baina guk hemen hizkuntza-akademiek ematen duten arau-motaz ari gara. Eta aurreko ataletan ikusi dugunez, gurea bezalako hizkuntza batean, non estandarizazioa oraindik gauzatzen ari baita, hizkuntzaren akademiak ematen dituen «arauak» era eta maila askotakoak izan daitezke: arau batzuk hizkuntzaren estandarizazioari lotuta daude, konbentzionalak edo egiunezkoak dira eta une jakin batean dauden usadioen artetik egindako hautuaren ondorio dira (esaterako, *iritzi* forma aukeratzea edo data eta

orduak adierazteko moldeak finkatzea); beste arau batzuek, ostera, hizkuntzaren erabilera gramatikala eta gramatikaz kanpokoa bereizten dituzte (\**lanarik* > ... *lanik*).

Hizkuntza zuzen(tasunez) erabiliko bada, ezinbesteko baldintza da arau gramatikalari —hizkuntzaren gramatikari— jarraitzea (\**Irakasle hori jatorra dirudi* > *irakasle horrek...*; \**jantziak apurtutak daude* > *jantziak apurtuta/apurturik/apurtuak daude*), zenbaitetan gramatikaltasunaren muga irristakorra bada ere<sup>7</sup>. Are gehiago, ezinbestekoa da, orobat, arau akademikoari jarraitzea.

Baina hizkuntzaren erabilera, akademiek araututakotik harantzago doa: hizkuntza, sistema den aldetik eta baliabide mugatuekin posibilitate mugagabeak eskaintzen dituen neurrian, multzo irekia da; eta hizkuntza guztietan —baita arautuen edo estandarizatuenetan ere— gauza asko dira espresuki hizkuntza-akademiek arautu gabe geratzen direnak; hala ere, horrelakoetan gerta daiteke arautu gabeko alderdien inguruan erabilerazko araua edo erabilerazko arau bat baino gehiago egotea. Zentzu horretan, hizkuntza arauzkoaren (batez ere, akademiek arautuaren) gain eraturako errealitate zabalagoa dagoela onartu ohi da eta izaera zabalagoko hizkuntza horri «estandarra» deitu ohi zaio: erabilerazko arau onartua, hezkuntzan, administrazioan eta komunikabideetan erabilia eta zuzentzat hartua.

Esan bezala, arau akademikoa bestelako arauen atzetik etortzen da normalean: gaztelaniaz, adibidez, salatu eta salatu ibili ondoren, azkenean Akademiak onartu egin du *enervar* (DRAE92) hitzaren adiera kutsatua («urduri jarri» galizismoa); eta euskaraz antzeko zerbait gertatu da *erail* hitzarekin.

Bestalde, estandarrekin batean, erabilerazko arau zehatzagoak ere badaude, adibidez, komunikabideek, hiztegi-gileek, idazleek edota unibertsitateek... ezartzen dituztenak. Ikus daitekeenez, sinplekeria da pentsatzea hizkuntza batean ari garenean arau bakar baten arabera jokatzeko dugu: arau bat baino gehiago gurutzatzen dira hiztun ikasiaren jardunean.

Esandakoaren haritik, gutxienez ondoko bereizkuntzak egitea komeni zaigu:

- a) gramatikala / gramatikaz kanpokoa (agramatikala)
- b) arau akademikoaren arabera / arau akademikoaren aurkakoa

---

<sup>7</sup> Hurrengo moldeak ikusita, adibidez, zalantza bat baino gehiago sortzen zaizkigu:

- (1a) Oso bilera garrantzitsua (izan dugu)
- (1b) Bilera oso garrantzitsua (izan dugu)
- (2a) Oso garrantzitsua izan den bilera bat (izan dugu) / Bilera bat izan dugu, oso garrantzitsua izan dena
- (2b) ? Bilera bat izan dugu, oso garrantzitsua
- (2c) ?? Oso bilera garrantzitsu bat (izan dugu)
- (3a) Ezkonduak elkarrekiko dituzten eginbideak
- (3b) ?Gizonak gizartearekiko dituen eginbideak
- (3c) \*Errespetu handia du zurekiko

- c) arau estandarraren araberakoa (puntuazioaren eremuan, adibidez) / arau estandarraren aurkakoa
- d) idiomatikoa (hizkuntzaren «senaren» araberakoa) / ez idiomatikoa (egitura «kalkatuak», adibidez)
- e) (esparru bateko) arau jakin baten araberakoa (hizkuntza teknikoaren eremuan, adibidez)

### **Zuzentasunetik egokitasunera: akademiaren arauen garrantzi mugatua**

Hizkuntzaren gramatika-arauak (*\*Mikel merezi du > Mikelek merezi du...*) eta akademiaren arauak (*baitu* eta *ez bait du*) hizkuntza zuzen erabiltzeko baldintza beharrezkoak badira ere, ez dira baldintza nahikoa hizkuntza ondo erabiltzeko: hizkuntza «onak» zuzentasuna du oinarri, baina zuzentasuna ez ezik, «egokitasuna» ere ezinbestekoa du. Eta egokitasunaren kontzeptura hurbiltzeko, besteak beste, irizpide pragmatikoak kontuan hartu behar dira: hiztuna, hartzailea, testuingurua...

Testu egokiek hurrengo ezaugarriak izan behar dituzte:

1. Ideien batasuna: normalean, ideia bat dugu perpaus bakoitzeko eta ideia nagusi bat paragrafo bakoitzeko. Paragrafo bakoitzean ideia nagusi bat egongo da eta beste batzuk —bigarren mailakoak edo osagarriak— haren zerbitzuan (ideia nagusia esplikatzen, zehazten, frogatzen...). Ideia nagusitik desbideratzen gaituzten adierazpenak «batasun-hausleak» deituko ditugu.
2. Koherentzia: paragrafoak hurrenkera jakin baten arabera (argudio-testuan: sarrera, argudio-gorputza eta ondorioa) antolatzea komeni da. Testua ezin da izan paragrafoen nolanhiko metaketa.
3. Argitasuna: paragrafoak eta testuak ulergarri eta zehatzak izan behar dute.
4. Progresio tematikoa: perpausak paragrafoaren beharra duen era berean, paragrafo bakoitzak beste paragrafoen —testuinguruaren— beharra du; eta paragrafoz paragrafo aurrera egin behar da tesia garatzen joateko. Aurrera egite hori era askotara burutu daiteke: garapen kronologikoa (denboraren hariari jarraituz), garapen deduktiboa (datuetatik ondorioetara), garapen induktiboa (tesitik azalpenera), garapen psikologikoa (ezagunetik ezezagunera), etab. Bistan dagoenez, sarrerako eta bukaerako paragrafoek berebiziko garrantzia izango dute.
5. Kohesioa: elementuak eta kontzeptuak identifikatu ahal izatea da kohesioaren eragiketarik garrantzitsuenetako bat. Elementu kohesio-emaielen artean hurrengoak ditugu: juntagailuak, menderagai-luak, testu-antolatzaileak (lokailuak eta esapideak), izenordain pertsonalak, erakusleak, artikulua mugatua, adberbioa...



Ondorioz, Euskaltzaindiaren araugintza berria betetzeak badu garrantzia, baina edozein modutan ere, ez da aski hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko. Esandakotik, beraz, akademiaren arauak betetzeak duen garrantzi erlatiboa ondorioztatzen da: ezinbesteko baldintzetako bat da hizkuntza zuzen erabiltzeko, baina ez baldintza nahikoa, batez ere egokitasuna bilatzen bada.

Hain zuzen ere, oso testu eskas eta desegokiak sor daitezke hizkuntza-aren gramatika-arauak eta akademia-arauak hautsi gabe. Hona hemen, araurik —ez gramatikalik, ez akademikorik— hausten ez duten testu batzuk, esandakoaren lekuko.

*Testu zuzen eta desegokiak: zenbait erakusgarri*

- |   |  |
|---|--|
| 1b. Jakin badakigu, oraingo batasun hau, lehen pausoa dela. Hala ere pauso garrantzitsua eta guztiz beharrezkoa, Euskadin lana galtzearekin batera garrantzitsuena den herritar eskubidea galdu duten 200.000 pertsona hauen bazterketak apurtutako elkartasun lokarriak berreskuratzeko oinarria izan ahal den giza kontsentsu berria eraikitzeko.                 | 1a. Sabemos que nuestra unidad de ahora es sólo un primer paso; pero un paso importante y absolutamente necesario para forjar un nuevo consenso social en quien pueda apoyarse la recuperación de los lazos de solidaridad, rotos por la exclusión de esas 200.000 personas que en Euskadi han perdido con el empleo el primero y más importante de sus derechos ciudadanos. |
| 2. Hauteskunde sindikalen ondoren, eta abenduan bidalitako gutunean agindu genizun bezala, Irakaskuntza Publikoko afiliatuen bilera bat egiteko dela azaldu nahi dizuegu gutun honen bidez. Proposatzen dugun gaiordena azpian doakizuna da. Afiliaturen bati bilera honetara etortzea ezinezkoa balitzaio, gaiordena berbera duten ondoko bilerok antolatu ditugu. |  |
| 3b. Enpresariak berronarpena aukeratzen duenean, idatziz jakinarazi beharko dio langileari, epaia jakinarazten zaion egunaren ondorengo hamar egunen barruan, zein egunetan hasi behar duen berritua lanean, eta idazkia jasotzen den egunaren ondorengo hiru eguneko baino laburragoa ezin izan daite-   | 3a. Cuando el empresario haya optado por la readmisión deberá comunicar por escrito al trabajador, dentro de los diez días siguientes a aquel en que se le notifique la sentencia, la fecha de su incorporación al trabajo, para efectuarla en un plazo no inferior a los tres días siguientes al de la recepción del escrito.   |

keen epean hasiko da berriro lanean. Orduan, enpresariaren pentsutakoak izango dira, bidegabetasuna aurrena adierazten duen epaiaren jakinarazpenaren datatik lanean berriro hasten den egunera arte sortzen diren alokairuak, langileari egotz dakiokeen zerbaitengatik, adierazitako epean lanean berriro hasia ez denean izan ezik.

En este caso, serán de cuenta del empresario los salarios devengados desde la fecha de la notificación de la sentencia que por primera vez declare la improcedencia hasta aquélla en que tenga lugar la readmisión, salvo que, por causa imputable al trabajador no se hubiera podido realizar en el plazo señalado.

#### TUTORETZEN ERREGIMENA

4b. Ikastegi honetako esperientziak tutoretzen ordutegiaren publizitate egokiaren, irakasleek ikasleekin dituzten eginbeharren betetze hertsia eta, azkenik, ez-betetzeetan kexa eta ekintzarako bideen inguruko zenbait eskasia utzi du agerian. Guzti honen arabera, ondoko jarraipide hauek proposatzen dira Gizarte Graduatuen Unibertsitate-Eskolako irakasleek ikasleen arretaren arloan dituzten eginbeharren betetze zuzena bermatzeko xedeaz.

5b. Aipatzen den egitate frogatuen berrikuspenaren zioaren oinarri diren agiri eta peritulanak ere adierazi behar izango dira, eurak identifikatzeko behar adina hedapenez. (LPL, 193. art.)

#### RÉGIMEN DE TUTORÍAS

4a. La experiencia de este Centro ha puesto de manifiesto algunas carencias relativas a la adecuada publicidad de los horarios de tutorías, al estricto cumplimiento de las obligaciones de los profesores en cuanto a la atención al alumnado y, finalmente, a los canales de quejas y actuación en los casos de incumplimiento, en virtud de todo ello, se proponen las siguientes instrucciones con el fin de asegurar el correcto cumplimiento de las obligaciones de los profesores de la Escuela Universitaria de Graduados Sociales en cuanto a la asistencia del alumnado.

5b. También habrán de señalarse de manera suficiente para que sean identificados, los documentos o pericias en que se basa el motivo de la revisión de los hechos probados que se aduzca. (LPL, 193. art.)

Historia de la lengua española (R. Lapesa)

Durante el período áureo la fijación del idioma había progresado mucho, pero los preceptos gramaticales habían tenido escasa influencia reguladora. (...). La actitud razonadora de los hombres cultos reclama la eliminación de los casos dudosos (...) y se acelera el proceso de estabilización emprendido por la lengua literaria desde Alfonso el Sabio.

Símbolo de esta postura es la fundación de la Real Academia Española (1713)...

La preocupación por la regularidad idiomática permitió resolver en el siglo XVIII dos de los problemas en que más habían durado las inseguridades. Quedaba por decidir si los grupos de consonantes que presentaban las palabras cultas habían de pronunciarse con fidelidad a su articulación latina, o si, por el contrario, se admitía definitivamente la simplificación, según los hábitos de la fonética española. La Academia impuso las formas latinas «concePTo, efeCTo, diGNo, soleMNe, eXCelente,...» rechazando las reducciones «conceto, efeto, dino, solene, ecelente,...». Por concesión al uso prevalecieron multitud de excepciones, como «luto, fruto, respeto, afición, cetro, sino,...» que contrastan con los derivados latinizantes de igual origen «luctuoso, fructífero, respecto, afección, signo».

Bikoteak sortzen dira: *plática / práctica, respeto / respecto, afición, afección, sino / signo*. Murrizketa egiten da: *prompto = pronto, sumptuoso = suntuoso*. Dudazkoak dira: *obscurus / oscuro, substantia / sustancia*.

El segundo y muy grave problema era el de la ortografía. (...) Distinguía b y v, c o ç y z, -ss- y -s-, x y g, j, cuando las respectivas parejas de fonemas se habían reducido cada una a un solo fonema... Conservaba duplicidades: la u y la v (*duro, vno, cauallo* o *cavallo*), *imagen* o *ymagen, aire* o *ayre*. Se extendió la costumbre erudita de restaurar la h latina (*honor, hombre, húmedo*) muda desde los tiempos de Tiberio, sin llegar a imponerla (abundaban *ay, oy, onesto*,...). Al dejar de pronunciarse la h procedente de f latina o de aspiradas árabes se habían producido inseguridades (*hazera/azera/acera*)

Eta gainera: *philosophía, teatro* (cultismo latinizante), *quanto, quando*,... Etimologiari begira honako hauek erabakitzen ditu: *symbolo, accento, annual*,... (gerora, mende berean, aldatu zirenak). *Méjico, Oajaca*,... baina Ameriketan *México, Oaxaca* eta halakoei heltzen zaie (por razones históricas tan respetables como complejas).

En 1815 [Akademia sortu eta 102 urtera] quedó fijada la ortografía hoy vigente.

## 1-76 Arauen zerrenda

### I. Karpeta (1-75)

#### (I)

- I. Arauen laburpena
- II. Arauen testu osoa
  1. *Bat-batean, behinik behin, batik bat*
  2. *Baitu, baikara, bainaiz*, e.a.
  3. *Aurrealde* edo *aurreko alde*, e.a.
  4. *Hau guz(t)ia*
  5. *Ene/nire, nirekin, niri*, e.a.
  6. *Arrain, usain, artzain*, e.a.
  7. Zenbakien idazkeraz
  8. Zenbakien deklinabidez (*hiru, lau*)

#### (II)

- III. Arauen laburpena
- IV. Arauen testu osoa:
  9. *-zio*
  10. *Normahi, nonahi, non-nahi*
  11. *Nor/nortzuk, zer/zertzuk, zein/zeintzuk*
  12. *Bat* eta *batzuk*-en deklinabidea
  13. Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri
  14. Adizki alokutiboak (hikako moldeak)
  15. Partitiboaren erabilera okerra
  16. *Zu izan ezik*
  17. Euskal alfabetoaren letren izenak
  18. Ordinalen eta banatzaileen idazkerak
  19. *Benetako, ohiko*
  20. *Betiko* eta honen kideak
  21. *Arabera*
  22. *Iritzi*
  23. *Arazi*
  24. *Ba-* eta *gabe*-ren idazkera

#### (III)

- V. Arauen laburpena
- VI. Arauen testu osoa:
  25. Hitz elkartuen osaera eta idazkera
  26. *-z gero*
  27. *Hori eta, hori edo* eta horrelakoen idazkera
  28. Aditzoinen forma
  29. Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea

#### (IV)

- VII. Arauen laburpena
- VIII. Arauen testu osoa:

30. Partitiboa baiezko perpausetan noiz eta nola
31. *Ekartzea merezi du*
32. Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak
33. *Ongi etorri!*
34. *Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia*
35. Orduak nola esan
36. Frantziako Errepublikako eskualdeen izenak
37. Data nola adierazi
38. Munduko estatu izenak, hiriburuak eta herritarren izenak
39. Zenbait aditzen erregimena (*gonbidatu, iguriki, itxoin, itxaron, deitu, lagundu*)
40. *Topiko(a) bihurtu*
41. *Egiteko asmoz*
42. *Lehenago etorriko zen; lehenago asmatuko zuen*
43. *Arazi* aditzaren erregimena
44. Hiztegi Batua: *a-alkohol*.
45. Gure egitura politiko batzuen euskal izenez

#### (V)

- IX. Arauen laburpena
- X. Arauen testu osoa:
  46. Hiztegi Batua: *almendra - arratsalde*
  47. Hizkuntza hilak eta klasikoak
  48. Hiztegi Batua: *arraun - azuzena*
  49. *-ARI (-lari)* atzizkia
  50. *-ARI / -ARIO*
  51. Kontinenteak, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak
  52. Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak)

#### (VI)

- XI. Arauen laburpena
- XII. Arauen testu osoa:
  53. Munduko estatuetakoz hizkuntza ofizialak
  54. Hiztegi Batua: *ba - beltzura*
  55. Hiztegi Batua: *bemol - bidari*
  56. Hiztegi Batua: *bidaro - bizartsu*
  57. Euskal herrialdeen, herritarren eta euskalkien izenak

**(VII)**

- XIII. Arauen laburpena  
XIV. Arauen testu osoa:  
58. Hiztegi Batua: *bizi - buztintsu*  
59. Ibaiak  
60. Aintzirak  
61. Hiztegi Batua: *c - diametro*  
62. Hiztegi Batua: *diapositiba - do-  
trina*  
63. Hiztegi Batua: *dozena - entzute-  
tsu*

**(VIII)**

- XV. Arauen laburpena  
XVI. Arauen testu osoa:  
64. Hiztegi Batua: *epai - erretratu*  
65. Hiztegi Batua: *erretreta - explo-  
tazio*  
66. Santutegiko izen ohikoenak  
67. Hiztegi Batua: *esponja - expres*  
68. Hiztegi Batua: *ez - fotografo*  
69. Hiztegi Batua: *fotokonposaketa -  
gainalde*

**(IX)**

- XVII. Arauen laburpena  
XVIII. Arauen testu osoa:  
70. Mundu zabaleko uharte nagusiak  
71. Hiztegi Batua: *gainazal - garaño*  
72. Hiztegi Batua: *garandu - gogoan-  
garri*  
73. *-go* atzizkia eta izen multzokariak  
74. Hiztegi Batua: *gogobete - hautsa-  
razi*  
75. Hiztegi Batua: *hautsezin - iguzki*

**2. Karpeta: (76-...)**

**(X)**

- XIX. Arauen laburpena  
XX. Arauen testu osoa:  
«Ortografia»: Luis Mitxelena (*Euske-  
ra*, XIII, 1968, 203-220 orr.)  
76. Latin eta greziar pertsona-izen  
klasikoak euskaraz emateko iriz-  
pideei buruzko erabakia

## 1-76 Arauen sailkapena

### ORTOGRAFIA (A)

1. BAT-BATEAN... (A/C)
2. BAITU...
3. AURREALDE... (A/C)
7. ZENBAKIEK IDAZKERA (A/C)
10. NON-NAHL... (A/C)
13. LERROZ ALDATZEA...
17. ALFABETOA
18. ORDINALAK/BANATZAILEAK... (A/C)
21. ARABERA (A/C)
22. IRITZI (A/C)
23. ARAZI (A/C)
24. BA-, GABE
25. HITZ ELKARTUAK (A/B/C)
26. -Z GERO (A/C)
27. HORI ETA, HORI EDO

### MORFOSINTAXIA (B)

4. HAU GUZTIA(U)...
5. ENE/NIRE...
8. ZENBAKIEK DEKLINABIDEA
11. NOR/NORTZUK...
12. BAT/BATZUK...
14. ALOKUTIBOAK
15. PARTITIBOA (FORMA)
16. ZU IZAN EZIK
19. BENETAKO, OHIKO (B/C)
20. BETIKO... (B/C)
25. HITZ ELKARTUAK (A/B/C)
28. ADITZOINAK
29. DIPTONGOZ...DEKLINABIDEA
30. PARTITIBOA BAIEZKOETAN
31. EKARTZEA MEREZI DU
33. ONGI ETORRI
34. HIRU KILOKO HAURRA
35. ORDUAK
37. DATA
39. ZENBAIT ADITZEN ERREGIMENA
40. TOPIKO(A) BIHURTU
41. EGITEKO ASMOZ
42. LEHENAGO ETORRIKO ZEN
43. ARAZI ADITZAREN ERREGIMENA
49. -ARI (-LARI) (B/C)
50. -ARI /-ARIO (B/C)
73. -GO ATZIZKIA... (B/C)

### HIZTEGIA (C)

1. BAT-BATEAN... (A/C)
3. AURREALDE... (A/C)
6. ARRAIN...
7. ZENBAKIEK IDAZKERA (A/C)
9. -ZIO
10. NON-NAHL... (A/C)
18. ORDINALAK/BANATZAILEAK... (A/C)
19. BENETAKO, OHIKO (B/C)
20. BETIKO... (B/C)
21. ARABERA (A/C)
22. IRITZI (A/C)
23. ARAZI (A/C)
25. HITZ ELKARTUAK (A/B/C)
26. -Z GERO (A/C)
32. ESPAINIAKO ERRESUMAKO...
36. FRANTZIAKO...
38. ESTATU IZENAK...
44. a-alkohol
45. GURE EGITURA POLITIKO BATZUEN...
46. almendra-arratsalde
47. HIZKUNTZA HILAK ETA KLASIKOAK
48. arraun-azuzena
49. -ARI (-LARI) (B/C)
50. -ARI /-ARIO (B/C)
51. KONTINENTEAK
52. MENDIAK, IBAIAK, ITSASOAK...
53. HIZKUNTZA OFIZIALAK
54. ba-belztura
55. bemol-bidari
56. bidaro-bizartsu
57. EUSKAL HERRIALDEEN... IZENAK
58. bizi-buztintsu
59. IBAIAK
60. AINTZIRAK
61. c-diametro
62. diapositiba-dotrina
63. dozena-entzutetsu
64. epai-erretiratu
65. erretreta-esplotazio
66. SANTUTEGIKO IZEN OHIKOENAK
67. esponja-expris
68. ez-fotografo
69. fotokonposaketa-gainalde
70. UHARTEAK
71. gainazal-garaño
72. garandu-gongoangarri
73. -GO ATZIZKIA... (B/C)
74. gogobete-hautsarazi
75. hautsezin-iguzki
76. LATIN ETA GREZIAR IZENAK...





II  
ARAUEN LABURPENAK



## Arauen laburpena (1-8 arauak)

### 1. Honela idatziko dira hitz hauek:

- Bat-batean*
- Behinik behin*
- Batik bat*

Ez erabili beste formarik: *\*bat batean*, *\*behinik-behin*, *\*batik-bat*, *\*bapatean*, *\*behinipehin*, *\*batipat*, e.a.

### 2. *Bait-* partikula beti aditzari lotua idatziko da, aldaketa fonologiko-grafikoa eginez:

- Baikara*,
- Bainaz*,
- Baihaiz*,
- Baitoa*,
- Bailuke*, e.a.

Ez idatzi bereiz: *\*bait gara*, *\*bai gara*, *\*bait naiz*, *\*bait haiz*, *\*bait doa*, *\*bait luke*, *\*bai luke*, e.a.

### 3. Bi era desberdin hauetan idatz daitezke forma hauek:

- Aurrealde edo aurreko alde*,
- Atzealde edo atzeko alde*,
- Goialde edo goiko alde*,
- Barnealde edo barneko alde*, e.a.

Ez idatzi, ordea, *\*aurrekalde*, *\*atzekalde*, *\*goikalde*, *\*barnekalde*, e.a.

### 4. Hauek dira hobesten diren formak:

- Hauek guztiak* eta *gauza hauek guztiak*,
- Hauetan guztietan*, eta *taberna hauetan guztietan*, e.a.

Ontzat ematen dira *hau guz(t)iau* bezalakoak ere.

Ez dira batasunerako egoki ikusten forma hauek: \**guzti hauek* edo \**guztihauek*, \**gizonau*, e.a.

5. Maila jasoan, *ene* idatziko da, eta gainerakoetan:

—*Nire*,

—*Nirekin*,

—*Niretzat*,

—*Niri*, e.a.

Ez idatzi, ordea, \**nere*, \**nerekin*, \**neretzat*, \**neri*, e.a.

6. *-ain* bukaerak gorde:

—*Arrain*,

—*Usain*,

—*Artzain*,

—*Diruzain*, eta antzekoak.

Baina, *mahai* idatziko da.

Ez idatzi, hortaz, \**arrai*, \**usai*, \**artzai*, \**diruzai*, e.a.

7. Zenbakiak honela idazten dira:

0	zero, huts
3	hiru
4	lau
5	bost (bortz)
10	hamar
13	hamahiru
15	hamabost (hamabortz)
18	hemezortzi (hamazortzi)
20	hoge
21	hogeita bat
30	hogeita hamar
40	berrogei
50	berrogeita hamar
60	hirurogei (hiruretan hoge)
70	hirurogeita hamar (hiruretan hogeita hamar)
80	laurogei (lauretan hoge)
90	laurogeita hamar (lauretan hogeita hamar)
100	ehun
101	ehun eta bat
200	berrehun
1.000	mila
1.200	mila eta berrehun
1.201	mila berrehun eta bat

1.984 mila bederatziehun eta laurogeita lau  
1.000.000 milioi bat  
10.000.000 hamar milioi  
1.000.000.000 mila milioi (miliar bat)

8. *Hiru* eta *lau* zenbatzaileek, zenbakiak berak izendatzeko erabiltzen ez direnean, deklinabide berezia dute:

—Mugagabeen, bokalez amaituriko gainerako hitzen antzera:

*hiruk, hiruri, lautan, lautatik*, e.a.

—Pluralean, ordea, *r* bat behar dute:

*hirurak, hirurei, lauretan, lauretatik*, e.a.

### Arauen laburpena (9-24)

9. *-Zio* atzizkia hobesten da. Hitz hauek honela idatziko dira:

—*Amorrazio*,

—*Administrazio*,

—*Debozio*, e.a.

Ez erabili, hortaz, \**amorrazino*, \**amministrazione*, \**debozinoe*, e.a.

10. Galdetzaile batez eta *nahi* partikulaz osaturiko esapideak hitz bakar batean idatziko dira:

—*Zernahi*

—*Nornahi*,

—*Nolanahi*, e.a.

Baina, lehen osagaia *n-z*, *t-z* edo *k-z* bukatzen bada, hitz batean edo marratxo baten bidez bereizita idatziko da:

—*Nonahi* edo *non-nahi*,

—*Zenbanahi* edo *zenbat-nahi*,

—*Nondinahi* edo *nondik-nahi*, e.a.

Ez idatzi, beraz, \**nor nahi*, \**nonnahi*, e.a.

11. *Nor*, *zer* eta *zein* galdetzaileen pluralak egiteko forma hauek hobesten dira:

—*Nor*,

—*Zer*,

—*Zein*.

Forma markatu gisa beste hauek ere erabil daitezke: *nortzuk*, *zertzuk* eta *zeintzuk*. Honela deklinatuko dira: *nortzuk* (abs), *nortzuek* (erg), *nortzuei* (dat), e.a.

12. **Bat** eta **batzuk**-en deklinabidea:

**Bat** hitzak bi deklinabide-mota ditu. Bata deklinabide mugatuari dagokionean erabiltzen da, *beste* hitzari kontrajarria agertzen denean soilik. Bestea, deklinabide mugagabea, gainerako kasuetan erabiltzen da.

Mugagabea: —*Bat*, —*Batek*, —*Bati*, e.a.

Mugatua: —*Bata*, —*Batak*, —*Batari*, e.a.

**Batzuk** hitzak deklinabide bakarra du:

—*Batzuk*,

—*Batzuek*,

—*Batzuei*, e.a.

13. Lerroz aldatzean, hitza zatitu beharra dagoenean, hitza silabaka zatitzea gomendatzen da, eta ez morfemaka:

—*Gizo-nek*,

—*Zaku-rra*,

—*Duzu-en*, e.a.

Eta ez \**gizon-ek*, \**zakurr-a*, \**duzue-n*, e.a.

14. **Hikako aditz alokutiboaren paradigmaren ezaugarri nagusiak hauek dira:**

**Aditz laguntzailean:**

—*Izan*-en NOR bakarreko formetan eta *ke*-dun formetan -u- erroa aukeratu da: *duk/dun*, *lukek*.

—(NOR-)NORK saileko *edun* aditzarekin -i- erroa onartu da: *nau* → *naik*; eta ez *niauk*.

—NOR pluralarentzat -it- hobetsi da: *ditu* → *ditik*, eta ez *dizkik*.

—Lehen silaban -i- ez da onartu: *natzaio* → *natzaiok*, eta ez *nia-tzaiok*.

—Indize alokutiboa ergatiboaren ezkerrean ematea onartu da, morfema ergatiboa -te denean izan ezik: *diagu*, eta ez *diguk*; baina *ditek*, eta ez *diate* (edo *die*)

—*Izan*-en ez-oraineko hirugarren pertsona egiteko, *zen* → *zuan* onartu da, eta ez *huen*.

—Pertsona-aurrizkirik ez duten orainaldiko adizkeretan *d* → *z* aldaketa onartu da: *dezake* → *zezakek*, *dio* → *ziok*; baina *dik* (eta ez *zik*).

**Aditz trinkoetan:**

—Lehen silaban, pertsona-indizearen ondoan ez da -i- sartuko: *nagok*, eta ez *niagok*.

—*Egon* aditzean *nagok/negok*-en artean, *nagok* hobetsi da.

- Orainaldian *d-* baztertuz *z-*ren aldeko aukera egin den arren, hirugarren pertsonarako bi forma ematen dira aukeran: *zagok* eta *zegok*, *zauden* eta *zeuden*.
- Pertsona-indizearen atzean kontsonantea duen aditz-erroari *-e*-gehituko zaio, lotura gisa: *nabilen*, *nabilek*; *natorrek*, *natorren*.
- Alokutiboaren pertsona-indizeari *-z* pluralgilea lotzerakoan, *-za* forma hobesten da: *goazak*, *goazan*; *gatozan*, *gatozak*.
- Ergatibodun formetan, indize alokutiboa beti indize ergatiboaren ezkerrean ematea hobesten da: *zakiagu*, eta ez *zakiguk*; *zakarreagu*, eta ez *zakarguk*. Salbuespen bakarra, *-te* hirugarren pertsonako ergatibo pluralgilea da: *zakitek*, eta ez *zakiate*.

### 15. Partitiboaren erabilera zuzena.

Partitiboa artikulurik gabe, mugagabean, erabiliko da, beti erabili izan den moduan:

- Lanik*,
- Libururik*, e.a.

Eta aditza singularrean erabiliko da:

- Ez dut libururik erosi.*
- Ez dut lanik egin*

Erabilera okerrak dira, beraz, honako hauek: \**Ez dituzu lagun onik aurkituko.* \**Aspaldian ez ziren elkartzen horrelako hitzik.* \**Ez ditut egin horren aipamenik, e.a.*

### 16. *Izan ezik* erabiliko da, eta ez *ezik* soilik.

Izen-sintagmari *izan ezik* erantsiko zaio. Aurrean doan sintagma dakokion kasu-marka eramango du:

- Debekatuta dago autobusentzat eta taxientzat izan ezik.*
- Teologiaz izan ezik beste edozertaz daki hitz egiten.*

Ergatiboaren kasuan, zilegi da absolutibo kasua erabiltzea:

- Horixe egingo luke zuk izan ezik beste edozeinek edo*
- Horixe egingo luke zu izan ezik beste edozeinek.*

### 17. Euskal alfabetoa 27 letra hauek osatzen dute:

*A, b, c, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, ñ, o, p, q, r, s, t, u, v, w, x, y, z.*

Hauetatik *c* (ç), *q*, *v* eta *w* kanpotar izenak transkribatzeko erabiliko dira.

### 18. Ordinalen eta banatzaileen idazkera.

#### Ordinalak

Ordinaletan «garren» ahoskatzen denean, idazterakoan puntua jarriko da haren ordeztu:

- XX. mendea edo 20. mendea: hogeigarren mendea.*
- 3.ak esan du: hirugarrenak esan du.*
- XVII. XVIII. eta XIX. mendeetan edo XVII, XVIII eta XIX. mendeetan e.a.*

Ordinalak letra bidez ematerakoan, kontuan hartzeko bi kasu:

- Hogeita batgarren, hirurogeita batgarren...*
- Bosgarren, hogeita bosgarren, hirurogeita hamabosgarren...*

Galderetan *zenbatgarren* erabiliko da.

### **Banatzailleak**

Distributiboak, *-na* baliatuz osatzen direnean, honela idazten dira:

- Bana, —Bosna, —Ehuna, —Mila bana, e.a.*

Galderetan *zenbana* erabiliko da.

## **19. Benetako. Ohiko.**

### **Benetako**

Euskara batuan *benetako* idatziko da eta ez *benetazko*.

### **Ohiko**

Ez da aukerarik egiten *ohiko* / *ohizko*-ren artean. Tradizioan nagusitzen dena eta Iparraldean gaur egun bizi den forma bakarra *ohiko* dela gogorarazten da.

## **20. Betiko eta honen kideak:**

*Beti* bezalako denborazko aditzondoek kasuan, tartean *-ko* dagoenean, *aditzondoa* + *-ko* egingo da:

- Gaurko,*
- Biharko,*
- Etziko,*
- Luzaroko, e.a.*

Horiek dira hobesten diren fornak, eta ez *betirako* bezalakoak.

## **21. Arabera**

Euskara baturako, erdarazko «*según / selon*»-en euskal ordain bezala *arabera* da onartzen den fornua bakarra.

## **22. Iritzi**

Forma hau da euskara baturako ontzat ematen dena, *erexi, eritzi* eta antzekoak baztertuz. Aditz zein izen bezala erabil daiteke:

- Iritzi,*
- Oniritzi, e.a.*



### 23. *Arazi*

Euskaltzaindiak gai honi buruz 1971n emandako araua aldatu egiten da, eta haren lekuan honako hau erabaki da:

1. Aditz «arazleak» eratzeko, *arazi* aldaera hobesten da, salbuespen bakarra *adierazi* delarik.
2. Aurreko aditzari lotua idatziko da *arazi*: *harrarazi*, *iraunarazi*, *betearazi*, e.a.
3. Aditz-erroan -t duten aditzetan, bitara egin daiteke: *sortarazi*, *sorrazazi*; *agertarazi*, *agerrarazi*, e.a.
4. *Arazi*-ren aurreko aditza -a bokalaz amaitzen baldin bada, *a* biekin bat egingo da: *aldarazi*, *jokarazi*, *obligarazi*, e.a.

### 24. *Ba*- eta *Gabe*-ren idazkera.

1. *Ba*- aurrizkia, baldintza zein baietza adierazteko erabiltzen denean, aditzari lotua idatziko da beti:

—*Mikel etortzen bada elkarrekin afalduko dugu.*

—*Badator Mikel.*

Aurrizkiaren eta aditzaren artean hitzen bat jartzen bada, orduan *ba* bakarrik idatziko da:

—*Ba omen dator Mikel.*

—*Ba ote dator Mikel?*

2. *Gabe* hitza bereiz idatziko da. Partitiboaren marka har dezake *gabe*-ren aurreko hitzak nahiz *gabe*-k berak ere, baina ez biek aldi berean; markarik *gabe* ere erabil daiteke:

—*Argirik gabe,*

—*Argi gaberik,*

—*Argi gabe.*

Baina ez *argirik gaberik*. *Barik* forma ere ontzat ematen da, *gaberik-en* aldaera moduan.

## Arauen laburpena (25-29 arauak)

### 25. Hitz elkartuen osaera eta idazkera.

#### 25.1. Bereiz idatziko dira:

—apozizioak (*Bidasoa ibaia*),

—*egin*, *eman*, *hartu* eta *eragin* aditzekin osatzen diren aditz-elkarteak (*lo egin*),

- etxez etxe* moduko bikoiztapenak,
- egin berri* modukoak,
- mahai gainean* gisako posposizioak,
- bigarren osagaia *bila*, *eske* edo *falta* duten elkarteak,
- lehen osagaia *erdal*, *euskal giza* eta *itsas* duten elkarteak, ihartuak ez diren neurrian, eta
- lehen osagaiaren amaierako >a< galtzen denean (*biologi azterketa*).

**25.2.** Marrarekin idatziko dira:

- gorri-gorria* moduko bikoiztapen indargarriak,
- apurka-apurka* bezalako bikoiztapenak,
- seme-alabak*, *zuri-gorri* modukoak,
- barra-barra*, *plisti-plasta* bezalakoak, eta
- Ezkio-ltsaso* moduko leku-izen elkartuak (bi hizkuntzatan ematen direnean, ordea, ez: *Lizarra/ Estella*).

**25.3.** Loturik idatziko dira:

- jarleku* moduko elkarteak,
- aldagaitz* bezalako izaera-elkarteak,
- odolustu* moduko izen-elkarte arruntak,
- bigarren osagaia *-gin*, *-gile*, *-zain*, *-zale*, *-dun*, *-gabe* edota *-gintza*, *-za(i)ntza* duten elkarteak.
- bigarren osagaia *-aldi*, *-buru*, *-gizon*, *-(g)une*, *-kide*, *-(k)ume*, *-orde* duten izen-elkarteak,
- lehen osagaia *aurre-*, *azpi-* eta *-gain* duten izen-elkarteak, eta
- lauburu* moduko elkarteak.

**25.4.** Marrarekin edo marrarik gabe, nahi den bezala:

- eguzki lore*, *eguzki-lore* moduko izen-elkartu arruntak, eta
- kale garbitzaile*, *kale-garbitzaile* modukoak.

Bi hitzak letra larriz hasten direnean hobe da, hala ere, marra gabe idaztea.

**25.5.** >a< -rekin nahiz >a< gabe idatz daitezke:

- elkarteko lehenbiziko osagaiak >ia< amaiera duenean: *biologi azterketa*, *biologia-azterketa*, eta
- salbuespenezko beste sei hitz hauen kasuan: *burdina*, *eliza*, *hizkuntza*, *kultura*, *literatura* eta *natura*. Amaierako >a< galtzen denean, bereiz idatziko da: *eliz gizona*, *burdin aro*; eta >a< gordetzen denean aukeran uzten da bereiz edo marrarekin idaztea: *kultura etxea* edo *kultura-etxea*, *literatura-saila* edo *literatura saila*.

Gainerako >a< itsatsiak ez dira galtzen elkarketa egiten denean, eta hitzak bere osotasunean idatzi behar dira.

**26. -z gero-ren erabilera:**

- Aditzaren ondoren, kasu guztietan -z gero idatziko da: *Hori eginez gero; hori egin duzunez gero.*
- Orduekin eta denbora-posposizioetan, *ezkero* ere erabil daiteke: *Hamarrez gero* edo *hamarrak ezkero*, *San Ferminetz gero* edo *San Ferminak ezkero*, *atzoz gero* edo *atzo ezkero.*
- Honezker*o, *horrezker*o eta *harrezker*o aditzondoak honela idatziko dira.

**27. *Hori eta, Hori edo* eta horrelakoen idazkera.**

- Egitura hauetan guztietan ageri diren juntagailuak osorik idatziko dira beti: *eta, edo*. Batasunerako ez dira ontzat ematen \**Mirari ta ikusi ditut* eta \**Hori dela-ta etorri dira* bezalako esapideak.
- Esan nahi dena erraz ulertzen bada, bereiz idatziko da juntagailua, nahiz eta ondoren koma ere jar daitekeen: *hori eta, hori edo, hori dela eta*. Adibidez: *Hor daude Begona eta, barrura sartzeko beldur.*
- Perpau konplexuetan, argitasunerako beharrezko ikusten denean, marra jar daiteke: *hori-eta, hori-edo, hori dela-eta*. Adibidez: *Esan didate zuen etxean-edo beste egun batean agertuko direla behar bada.*

**28. Aditzoinen forma**

Aditzoinak erabiltzekotan, nola jokatu behar den esaten du Euskaltzaindiak:

- Normalean aditzoina eta partizipioa bereizten dira: *ikas / ikasi, bil / bildu.*
- Hala ere, aditza beste kategoria batetik datorrenean (*gizon / gizondu; ilun / ilundu; ur / urtu*) -tu atzizkia ere erabil daiteke aditzoinean (*ur* eta *urtu* har daitezke aditzointzat).
- Aditzoinen forma afrikatua denean, derrigorrez eutsi behar zaio forma afrikatuari: *Huts, zorrotz dezaket* eta ez *hus, zorroz dezaket.*
- Aditzoin-bukaerak >i< berezkoa duenean (*Jalgi, ebaki*) amaierako >i< atxiki behar da (*ebaki dezan* eta ez *ebak dezan; jalgi hadi* eta ez *jalg hadi*). Ez, ordea, berezkoa ez duenean: *ikas ezak, utz dezaket...*; salbuespena *itxi* aditza da, eutsi egin behar baitzaio amaierako >i< horri, eta *eutsi* eta *iritzi* aditzen kasuan bietara erabil daitezke.
- Ondoko kasuetan bakarrik onartzen da -t amaieran:
  - aditz eratorria denean: *laket / laketu, ausart / ausartu, bat / batu...*

- literatura-tradizioan jokabide bakarra izan duten aditzetan: *eza-gut, lant, lot, ohart...*
- *-di* amaiera duen oinarri batetik eratorritakoetan: *hant (#handi), ert (#erdi)*.

Gainerakoetan *-t* gabe idatziko da: *urrun* edo *urrundu* (*baina ez urrunt*), *lagun* nahiz *lagundu* (*baina ez lagunt*), *neur, ezkon, e.a.*

## 29. Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea.

—Diptongoz bukatzen diren izenak bokalez bukatutakoak bezala deklinatzen dira: *uztailaren lauan, zenbait kristauk, zelaitik, jaitik, garaian, e.a.*

—Salbuespenak:

- *gau* hitzaren kasu hauetan: *gauez, gaueko, gauean*;
- *lau* izenordain bezala jokatzen denean: *laurak etorri ziren. Lauretan joango gara e.a.*;
- monosilaboez instrumentalean honela egingo dute: *edozein gaiez mintzatu. Jaiez jai ibili e.a.*

## Arauen laburpena (30-45 arauak)

### 30. Partitiboa baiezko perpausetan noiz eta nola

Baiezko perpausetan partitiboa erabil badaiteke ere, enfasi-esanahira bakarrik mugatu behar da, testuinguru berezietara, tradizioan beti izan den bezala. Halakoetan, normalean, izenak sintagma adjetibala behar du ondoan. Izena soilik utzi nahi bada, interpretazio zuzena egiten lagunduko duen eran jarri behar da:

—*Badauka lanik konjuruak egiten*: ondoan izenondoa balu bezala ulertzen da (*lan handia* edo *zaila duela* esan nahi da).

—*Izan da aldaketarik?*

- Bai izan da aldaketarik* (edo *aldaketa sakonik*): bi garairen artean gertatutako aldaketa azpimarratu nahi denean.
- Bai, izan da aldaketa*: baiezko hutsa denean.

### 31. *Ekartzea merezi du*

*Merezi izan/ukan* aditzaren osagarria aditz bat denean, absolutiboa erabiliko da, eta ez ergatiboa:

—*Merezi du San Ferminetara joatea* (eta ez *joateak*).

—*Ez du balio etxea konpontzen hastea* (eta ez *hasteak*).

### 32. Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak

- Euskaltzaindiak ez du oraingoz erabakitzen zein den «Comunidad Autónoma» hitzaren euskal ordain egokiena.

- b) Komunitateen izen soilak ematen dira: *Andaluzia, Aragoi...*
- c) Probintzia eta hiriburuen izenak: *Bartzelona, Kordoba, Palentzia, Valentzia...*
- d) Bestelakoak: *Ceuta, Eivissa, Menorca...*
- e) Izen historikoak: *Donejakue (Compostelako), Sanandere...*

Gaztelaniaz azentua duten hitzak azentuarekin nahiz azentu gabe idatz daitezke: *León* nahiz *Leon*.

Geroago, 36. hizkuntz arauaren lekuan, adierazten dira hau guztia zehazteko orduan erabilitako irizpideak.

### 33. *Ongi etorri!*

Oles edo agur egiterakoan, euskararen tradizioari jarraituz, *Ongi etorri!* erabiliko da (eta ez *ongi etorria* edo *ongi etorriak*).

Honek ez du esan nahi *ongi etorri* hitza izen bihurtzen bada eta mugatzailea hartzen badu, honela esan ezin daitekeenik: *Alkateak ongi etorria eman die* edo *Zaretela ongi etorriak!*

### 34. *Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia*

Zenbatzaileak zehaztuak edo zehaztugabeak izan daitezke. Oinarritzko izena, berriz, adina, prezioa, neurria, pisua, tamainua eta denbora adierazten duena izan ohi da gehienbat. Hauek sortzen dituzten bi-koiztasun gehienak, eta hauetan batasuna egiteko, Euskaltzaindiak *-ko* atzizki-forma hobesten du, eta ez *-tako*:

—*Nolako* galderari erantzuten dien sintagmetan: *adineko neska, neurri txikiko oinetakoak...*

—Oinarrian zenbatzailearen bat ageri denean: *bi urteko haurra; bost liberako egunkaria; ehun orrialdeko liburua; hiru kiloko haurra; lau hankako mahaia; hamabost milioiko etxea; lau asteo oporrak; zortzi kilometroko autobidea; hiru eguneko egonaldia...*

Honek ez du esan nahi *-tako* inoiz erabili behar ez denik. Zenbaitetan, *-tako* atzizkia erabiltzea derrigorrezkoa da, *nongo* galderari erantzuteko (*Hiru etxetako haurrak etorri zaizkit*); edo, bereizketak egiteko (*Zazpi urteko ardo edan du, baina Zazpi urtetako ardo guztia galdu da*).

### 35. *Orduak nola esan*

Orduen idazkeran batasunera jotzeko asmoz, Euskaltzaindiak honako hauek erabaki ditu:

—Orduak honela idatziko dira: *ordu bata (da), ordu biak, hirurak, laurak (dira)...* Deklinatzerakoan: *ordu batean, ordu bietan, hiruretan...* Ordu-ren ordeaz *oren* ere erabil daiteke.

—Erdia honela adieraziko da: *ordu bat eta erdiak, ordu bi eta erdiak, hiru eta erdiak...* Deklinatzerakoan: *ordu bat eta erdietan, hiru eta erdietan...*

- Laurdena honela adieraziko da: *ordu bat eta laurdenak* edo *ordu bata eta laurden*, *ordu bi eta laurdenak* edo *ordu biak eta laurden*... Deklinatzerakoan: *hirurak eta laurdenetan* edo *hiru eta laurdenetan*...
- Minutuak adierazteko: *hamarrak hamar gutxi* edo *hamarrak hamar gutxiago*... Deklinatzerakoan: *hamarrak hamar gutxitan* edo *hamarrak hamar gutxiagotan*, *seiak eta bostean*, *laurak eta hogeian*, *hirurak eta hemezortzian*...
- Orduak zifretan ematen direnean, bi punturekin bereiziko dira orduak eta minutuak, eta bakoitzeko bi zifra erabiliko dira: *00:12*, *12:10*, *09:25*... Deklinatzerakoan: orduei plurala erantsi, eta minutuei singularra: *15:00etan*, *15:03an*, *15:04an*, *15:30ean*... Irakurtzerakoan: *hiruretan*, *hirurak eta hiruan*, eta irakurketa formalean hau ere ontzat ematen da: *hamabostak eta bostean*, *hamabostak eta hamabostean*...
- Egitarau, kartel eta antzekoetan, erdibide hau ere ontzat ematen da: *arratsaldeko 5etan*, *goizeko 11,30etan*, *iluntzeko 8etatik 11k arte*...

### 36. Frantziako Errepublikako eskualdeen izenak

Espainiako Erresumako probintzia eta Frantziako Errepublikako departamendu eta eskualdeen euskal ordainak finkatzeko orduan, honako irizpideak izan dira gidari:

- Toki-izen horiek idatziz eta ahoz euskaraz izandako tradizioa: *Gaztela*, *Bordele*, *Madril*, *Paue*, *Akize*, *Tolosa*...
- Herrialde Nagusi ezagun edo hurbilenak euskal fonetikaz jarri dira: *Errioxa*, *Borgoina*, *Aragoi*, *Bartzelona*, *Murtzia*...
- Beste batzuetan, kasuan kasuko eskualdeen tradizio historikoa hartu da kontuan: *Pirinio Atlantikoak* baina tradiziorik ez dagoenean, bere horretan utzi dira: *Haut-Rhin*...
- Gure artean gutxi erabiltzen ditugulako, tradizio sendorik ez duten izenak jatorrizko era ofizialean eskaintzen dira: *Avila*, *Ourense*, *Avignon*, *Troyes*, *Lleida*, *Girona*, *Alacant*...
- Inoiz, bigarren mailan bada ere, forma historiko zaharrak eskaini dira: *Sibilia*, *Oska*, *Auski*, *Aturbe* . . .
- Izen ofizial osoaz gain, ohiko izen laburtua ere, eskaintzen da: *Balearrak* edo *Balearrak*, *Kanariar Uharteak* edo *Kanariak*...
- Zenbait izenatarako proposatzen den formak —*Kordobak* adibidez— ez du esan nahi Espainiatik kanpora izen horrekin diren beste hiriak ere horrela idatzi behar direnik. Argentinako hiria, kasu, *Córdoba* da.

### 37. Data nola adierazi

- a) Toki- eta denbora-marka osorik ematen denean, bi idazkera hauek aukeran uzten dira, *-n* kasu-marka erabiliz edo erabili gabe:

—*Durangon*, 1983ko martxoaren 7an

—*Durango*, 1983ko martxoaren 7a.

- b) Denbora zenbaki hutsez ematen denean, idazkera hauek ematen dira aukeran:

—1995/03/27  
—1995-03-27  
—1995-III-27  
—1995/III/27

Deklinatzerakoan: *1993-03-07ko Euskaldunon Egunkaria-n; 1993-11-23ko agiriak dioenez...*

- c) Ez da ontzat ematen, data arrunta emateko, *urtarrilak 20* bezalako formarik. Forma hau aposizioetan bakarrik erabil daiteke. Adibidez:

—Ongi esana dago: *Datorren urtarrilaren 20an bilduko da epaimahaia.*  
—Gaizki esana dago: *Datorren urtarrilak 20an bilduko da epaimahaia.*  
—Baina ongi esana dago: *Datorren ostegunean, urtarrilak 20, bilduko da epaimahaia.*

### 38. Munduko estatu-izenak, hiriburuak eta herritarren izenak

Oharrak:

- Izen ofiziala (adibidez, *Venezuelako Errepublika*) eta izen laburtua (*Venezuela*) ematen dira.  
—Batzuetan bi aukera ematen dira: adibidez, *Irlanda* eta *Eire*. Nahi dena erabil daiteke.  
—*Luxenburgo*-ren kasuan *Luxemburg* ere onartzen da, jatorrizko grafia erabiliz. Gauza bera esan daiteke antzeko beste hauetan: *Friburgo* edo *Fribourg*, *Hanburgo* edo *Hamburg*, *Estrasburgo* edo *Strasbourg*...  
—Zerrendan agertzen ez diren baina garrantzi handikoak diren beste izen batzuk: *Estatu Burujabeen Batasuna*, *Holanda* (*holandar*, *holandes*), *Ingalaterra* (*ingeles*), *Serbia* (*serbiar*), *Ulster* (*ulstertar*). Halaber, *Pekin*-ekin batera *Beijin* (*beijindar*) ere erabil daiteke.  
—Kultura-kutsuaren aldetik duten garrantziagatik, beste aukera hauek ere ematen dira egoera berezietan: *Azerbaijan* (*azeriar*), *Finlandia* (*suomitar*), *Frantzia* (*galiar*), *Georgia* (*kartveliar*), *Grezia* (*hele-niar*), *Hungaria* (*magyar*), *Israel* (*judu*), *Japonia* (*nipondar*), *Kanbodia* (*kanbodiarr*), *Mexiko* (*azteka*), *Mongolia* (*mongol*), *Portugal* (*lusitaniar*), *Uzbekistan* (*uzbeko*).

### 39. Zenbait aditzen erregimena (*gonbidatu*, *iguriki*, *itxoin*, *itraron*, *deitu*, *lagundu*)

#### 1. *Gonbidatu*

Aditz honek, NOR-NORK saileko denez, «du» eskatzen du, eta ez «dio»:

—*Mikel afaltzera gonbidatu dute* (eta ez gonbidatu diote).  
—*Andregaiak bere etxera gonbidatu nau* (eta ez gonbidatu dit).

2. ***Iguriki, igurikatu***

Aditz hauek ere «du» eskatzen dute, aspaldidanik NOR-NORK nagusitu baita:

—*Batak bestea igurikatzen zuen.*

3. ***Itxoin, itxaron***

Aditz hauen erabilera:

—Objektua dagoenean, NOR-NORI saileko aditza erabiliko da:

- *Hemen itxoingo diot.*
- *Mireni itxaron zioten*

—Objekturik ez dagoenean, NOR-NORK saileko aditza erabiliko da:

- *Goiz osoan alferrrik itxaron dute.*

4. ***Deitu***

Bi erataraz erabil daiteke, NOR-NORK edo NORI-NORK saileko aditzez:

—*Mikeli deitu diogu* edo  
—*Mikel deitu dugu.*

5. ***Lagundu***

Bi erataraz erabil daiteke, NOR-NORK edo NORI-NORK saileko aditzez:

—*Pozik lagunduko nioke Mikeli,*  
edo

—*Pozik lagunduko nuke Mikeli.*

40. ***Topiko(a) bihurtu***

—Perpaus baten barnean bi nor-sintagma agertzen direnean, eta horietako bat bestearen predikatu osagarria denean, *bihurtu* aditzak mugagabeen eskatzen du predikatu osagarri hori:

- *Ura ardo bihurtu zuten* (eta ez *ardoa bihurtu zuten*).
- *Topiko bihurtu da* (eta ez *topikoa bihurtu da*).

—Sintagmak ingurukariren bat daramanean (adjektiboa, izenlaguna...) artikulua eskatzen du askotan, kasua beti absolutiboa izango delarik:

- *Emakumerik ederrena bihurtu.*
- *Bihotz sendoko gizon bat bihurtu.*



#### 41. *Egiteko asmoz*

*Asmo* aditzarekin *-teko/-tzeko* erabiliko da, eta ez partizipio burutua:

—*Hitz egiteko, eztabaidatzeko, irakurtzeko asmoz etorri gara.*

Ez dira ontzat ematen, beraz, *joan asmoz, egin asmoz, eztabaidatu asmoz* bezalako formak.

#### 42. *Lehenago etorriko zen; lehenago asmatuko zuen*

Bi aldaera hauek ontzat ematen dira:

—*Hau jakin (izan) banu, etorriko nintzatekeen, EDO*

—*Hau jakin (izan) banu, etorriko nintzen.*

—*Errazagoa izan balitz, lehenago asmatuko zukeen, EDO*

—*Errazagoa izan balitz lehenago asmatuko zuen.*

#### 43. *Arazi aditzaren erregimena*

A) *Arazi*-ren subjektua beti ergatiboan doa:

—*Koldok etorrarazi du Mikel.*

B) *Oin-aditzaren* objektua beti absolutiboan doa:

—*Sagararak salarazi ditugu.*

C) *Oin-aditza* iragankorra denean, subjektua datiboan darama:

—*Niri liburua irakurrarazi zidaten.*

D) *Oin-aditzaren* subjektua absolutiboan doanean, absolutiboan ageri da perpaus kausatiboan

—*Mikel jarrarazi dute.*

E) *Oin-aditzaren* subjektua ergatiboa baldin bada eta agerian objekturik ez badu, bi egoera bereizi behar dira:

a) Objektua ezabatua edo aditzari atxikia duten aditzekin datiboa eskatzen du subjektuak:

—*Mikeli janarazi diote.*

—*Mikeli irri eginarazi diote.*

b) Sekula objekturik hartzen ez duten aditz deponenteekin, aditzaren izaera semantikoa kontuan hartu behar da. Aditzak subjektu biziduna eskatzen duenean, datiboan ageri da:

—*Inori ez diogu pairarazi behar.*

Baina subjektua bizigabea bada, absolutiboan jarriko da:

—*Ura irakinarazi dute.*

**44. Hiztegi Batua: *a - alkohol***  
*A - alkohol* letren arteko hitz-zerrenda ematen da.

**45. Gure egitura politiko batzuen euskal izenez**  
Izen hauek erabiltzea gomendatzen da:

*Nafarroako Foru Erkidegoa.*  
*Euskal Autonomia Erkidegoa.*

**Arauen laburpena (47, 49-53, 57, 73 arauak)**

**47. Hizkuntza hilak eta klasikoak**  
Munduko hizkuntza hilen eta klasikoen zerrenda alfabetikoa eskaintzen da.

**49. *ARI (-lari) atzizkiaz***

1. *-ari* eta *-lari* formen arteko banaketari dagokionez:

a) *-ari* atzizkia, *-a* bokalaz amaitzen diren izenei eransteko erabiltzeko da, batez ere bi silabatik gorakoak direnean:

*dantzari, tabernari, gramatikari, politikari, kritikari, eta abar.*

Hala ere, oso sartuak dauden *pentsalari* eta *hizkuntzalari* bezalako hitzak ontzat ematen dira.

2. Oinarriaren kategoriari dagokionez:

a) *-ari* atzizkia izenekin erabiliko da, eta *-le* edo *-tzaile* atzizkiak aditzekin:

*hezle* edo *hezitzaile, ikertzaile, eta abar.*

b) Aditz batek adiera bat baino gehiago izan dezakeenean, ordea, zilegi da adiera batean *-le* edo *-tzaile* erabiltzea, eta *-ari* beste adieran:

*zuzendari / zuzentzaile, zaindari / zaintzaile, idazkari / idazle...*

**50. *-ARI / -ARIO***

1. Izenondoetan:

a) Erdal *-ario / -aire* atzizkiez osatutako izenondoetan, *-ario* formarekin egingo da mailegatzea eta ez *-ari*-rekin:

*parlamentario, monetario, hipotekario, komunitario, e.a.*

b) Hala ere, ahal denean, maileguz hartutako erdal izenondoaren ordez, euskal egituraren araberrako ordainak erabiltzea gomendatzen da:

—*parlamentu(ko) talde (talde parlamentario-ren ordez)*

- hipoteka-kreditu (kreditu hipotekario-ren ordez)*
- unibertsitate(ko) aldizkari (aldizkari unibertsitario-ren ordez)*
- planeta-sistema (sistema planetario-ren ordez)*
- e.a.

## 2. Izenetan:

-ario forma erabiltzea gomendatzen da:

*notario, unibertsitario, funtzionario, e.a.*

Salbuespenik balego, Hiztegi Batuan zehaztuko dira bere garaian.

## 51. Kontinenteak, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak

- Kontinenteak: *Europa, Asia, Eurasia, Afrika, Amerika, Ozeania.*
- Kontinenteen azpisailak eta beste izen nagusi batzuk: *Ipar Europa, Erdialdeko Europa..., Hego Amerika..., Ekialde Hurbila, e.a.*
- Herritarren izenak: *europar, asiar, eurasiar, afrikar, amerikar, ozeaniar.*

## 52. Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak)

- Mendiak: *Alpeak, Dolomitak, Karpatoak, Pirinioak (edo Pirinio mendiak), e.a.*
- Ibaiak: *Amazonas, Danubio, Rhin, Tajo (edo Tajo ibaia), Ibai Beltza, e.a.*
- Itsasoak: *Adriatikoa (edo Itsaso Adriatikoa), Ozeano Atlantikoa, Ozeano Barea (edo Ozeano Pazifikoa), Bizkaiko Golkoa, Itsaso Beltza, Itsaso Gorria, Kaspiar Itsasoa, Mediterranea (edo Mediterraneo itsasoa), e.a.*

## 53. Munduko estatuetako hizkuntza ofizialak

Munduko estatuetako hizkuntza ofizialen zerrenda alfabetikoa eskaintzen da.

## 57. Euskal herrialdeen, herritarren eta euskalkien izenak

- Herrialdeen izenak hauek dira: *Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Garaia), Nafarroa Beherea edo Baxenabarre, Zuberoa.*
- Herritarren izenak hauek dira: *arabar, bizkaitar, gipuzkoar edo giputz, lapurtar, (Hegoaldeko) nafar edo Nafarroa Garaiko, (Iparraldeko) nafar / Nafarroa Behereko / baxenabartar, zuberotar.*
- Euskalkiak hauek dira: *Arabako euskara, bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, (goi) nafarrera / (goi-) nafarrera, (behe) nafarrera / (behe-) nafarrera, zuberera.*

**73. -go atzikia eta izen multzokariak**

Euskaraz askotan ez dago izen multzokariaren beharrik eta nahikoa da plurala erabiltzea: *ikastetxe honetako irakasle eta ikasleak, herri bateko biztanleak, hizkuntza bateko hiztunak*, etab.

1. Hala ere, izen multzokaria beharrezkoa denean, *-eria* atzikia erabiltzea gomendatzen da: *langileria, gazteria, biztanleria* edo *bezeria*.
2. *-go* atzikia kasu hauetan erabiliko da:
  - ofizioa edo lanbidea adierazteko: *artzaingoa, zurgingoa*, etab.
  - tasuna adierazteko: *euskaldungoa, ahaidegoa*, etab.

III  
EUSKALTZAINDIAREN  
ARAUGINTZA BERRIA



## 1. *Bat-batean, behinik behin, batik bat*

Beraz, Euskaltzaindiak hau erabakitzen du: idatz dadila euskara batuan *bat-batean* (eta halaber *bet-betan*), eta ildo beretik *bat-bateko* eta *bat-batekotasun*; orobat, idatz dadila euskara batuan *behinik behin* eta *batik bat*.

Honekin batera, Euskaltzaindiak gogorarazi nahi du esapide hauen ahoskerak betiko legeen arabera egitea ongi dela (*batipat*, adibidez).

*Tradizioa, irizpideak...*

(BAT-BATEAN) Literaturan erabili izan diren grafiak *bat batean* eta, batez ere, *bat-batean* izan dira. *Bapatean* idazkera ez da 1930 ingurua arte azaltzen, eta inoiz ez Iparraldeko tradizioan. Bestalde, hitz elkartuak idazteko idaztaruei jarraituz, *bat-batean* da esapide honi dagokion idazkera (*bi-biak* edo *hamabi-hamabietan* moduko zenbatzaile-bikoiztapen indargarria<sup>8</sup>).

(BEHINIK BEHIN) Esapide hau, Zubereraz izan ezik, gainerako literatura-tradizio guztietan erabiltzen da, nahiz Hegoaldean maizago agertzen den. Idazkera *p*-dunak (*beinipein*) ia gipuzkerazko testuetan soilik agertzen dira.

(BATIK BAT) Esapide hau berria da (1930 arte ia ez da azaltzen) eta Hegoaldekoa soilik. Hasieratik grafia *p*-dunak eta *p* gabeak lehian ibili dira, baita batuan ere (*batik bat* grafia sarriagotan, hala ere). Dena den,

<sup>8</sup> Ikus Euskaltzaindia (1992), *Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera*, 50-51. orr., Euskaltzaindia, Bilbo.

hitz elkartuei buruzko arauei jarraituz (*kalerik kale* eredua), *batik bat* grafia «erregularra» hautatu da.

## 2. *Baitu, baikara, bainatz*<sup>9</sup>

***Bait* partikula, kasu guztietan, aditzari atxikia idatz dadila: *bainatz, baikara, baitoaz*, e.a., eta ez *\*bai(t) natz, \*bai(t) doaz*, e.a.**

*Bait* aditzari atxikitzean, ondoko aldaketak kontuan hartu behar dira:

bait- + d- → bait- *baitator, baitoa, baita, baitugu...*  
bait- + n- → bain- *bainator, bainoa, bainenbilan...*  
bait- + h- → baih- *baihator, baihoa, baihoa, ...*  
bait- + l- → bail- *bailetorke, bailitzateke...*  
bait- + g- → baik- *baikentozen, baikinen...*  
bait- + z- → baitz- *baitzatorren, baitzuen...*

*Tradizioa, irizpideak...*

Iparraldeko tradizioan eta Hegoaldeko Nafarroako testuetan, zenbait salbuespen baztergarri alde batera utzirik, aditzari atxikirik agertzen da beti, lehenengo testuetatik gaurdaino. *Bait* bereiz idaztea guztiz berria da (azken 25 urteotako kontua, batez ere) eta Hegoaldeari soilik dagokiona; gainera, Hegoaldeko idazle eredugarrien artean ere grafia atxikia ere agertzen da.

## 3. *Aurrealde, atzealde*

Euskaltzaindiak hau erabakitzen du:

Erabil daitezela, oraintsu arte egin den bezala, espaside osoak:

***aurreko alde, atzeko alde, barruko alde, gaineko alde, azpiko alde, goiko alde, beheko alde, kanpoko alde*, e.a., edota forma atzizkidun jatorrak: *aurrealde, atzealde, barrualde, gainalde, azpialde, goialde, behealde, kanpoalde*, e.a.**

<sup>9</sup> Arau honek lehenetik harturiko erabakia zehazten/aldatzen du. Ikus *Euskera* XVII, 1972, 168-173. orr.



**Honek ez du esan nahi horretarako tradizio mintzatua dagoenean *aurreko alde*, *atzeko alde* formak [aurrekalde] eta [atzekalde] ebakitzea gaitzesten denik.**

*Tradizioa, irizpideak...*

Idazle zaharretan *aitzin alde* eta *aitzinalde* grafiak agertzen dira. Forma *k-dunak* (*barrukalde*, *atzekalde*...) mende honen erdi aldera hasi ziren agertzen Hegoaldeko euskara idatzian, *barruko alde*, *atzeko alde* esapideen batze baten ondorioz. Beraz, forma *k-dunak* berriak eta batasunhausleak dira.

#### 4. *Hau guz(t)ia*

Euskaltzaindiak gogorazi nahi du *hau guz(t)ia*, *bide hartan guz(t)ian*, *horiekin guz(t)iekin* eta kidekoak hobestekoak direla batasunaren izenean. Eta orobat *gauza hauek guz(t)iak* eta honen kidekoak. Beraz, *hau guz(t)ia* eta *guz(t)i hau* esapideen artean, lehen da hobesten dena. Eta berdin gertatzen da *bide hartan guz(t)ian* / *bide guz(t)i hartan*, *horiekin guz(t)iekin* / *guz(t)i horiekin* eta hauen antzeko bikoteetan. Denetan lehen aldaera da hobestekoa.

Hala ere, *hau guz(t)ia* eta *hori guz(t)ia* formekin batera *hau guz(t)iau* eta *hori guz(t)iori* ere oso bidezkoak dira (ez, ordea, \**gizonau* bezalakoak, jakina). Halaber, *hauek guz(t)iok*, *horiek guz(t)iok*, (*gauza*) *hauek guz(t)iak*, *horiek guz(t)iak* eta *haiek guz(t)iak* formak.

*Tradizioa, irizpideak...*

Testu zaharretan —euskalki guztietan— normalak dira hurrengo joskerak: *gauza hauk guziak*, *liburu hau guztia*, *egun a guztia*, *konbentu barri oneek guztiok*, *haur guzia*, *orietan guztietan*, *au guzia*, *horiekin guziekin*...

*Guzti hau*, *guzti haietan* bezalako joskerak batez ere XVIII eta XIX. mendeetan eta Hegoaldean zabaldu ziren. Eta azken urteetan oso nabarmena izan da joskera zaharraren beherakada. Beraz, tradizio zaharrea zegoen batasuna hautsia gertatu da.

#### 5. *Ene / nire, niri*

**Hauxe da, hortaz, Euskaltzaindiaren erabakia: *ni* izenordainaren *noren* kasuan *nire* erabil dadila (eta, jakina, *niretzat*, *nirekin*), eta orobat, *ene*, maila jasoan bederen; *nori* kasuan *niri* erabil dadila.**

*Tradizioa, irizpideak...*

Euskalki guztietako testu zaharretan genitibo edutezkoaren (NOREN) forma *ene* zen, bizkaieratik zubererara. *Nere* forma XVII. mendean agertzen da goi-nafarrerazko testu batean eta XVIII.ean lapurteraz eta gipuzkeraz azaltzen da. Geroago, baina XVIII. mendean, *nire* forma agertzen da bizkaieraz.

Harrezkero, *nire* eta *nere* formak nagusituz doaz Hegoaldean *ene* forma zaharraren kaltetan (gaur egun, esapide ihartuetan baizik gorde ez dena: *ene!*...). Iparraldean, aldiz, *ene*, *nere* bezain erabilia da, ahoz nahiz izkribuz.

Mende honetan, *nire* aldaeraren aldeko joera nabaria gertatu da Hegoaldean (Azkueren *Gipuzkera Osatua*-z geroztik batik bat) eta joera hori areagotu egin da euskara batuan, batez ere, Bizkaiko idazleek forma horri dioten atxikimendu handiaren eraginez.

*Neri* forma berria da, XIX. mendearen erdialdean *nere*-tik analogiaz sortu zena. Batez ere gipuzkerazko idazleek —eta ez denek— erabili dute.

## 6. *Usain, arrain, zain*

**Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: *-ain* eta *-ai* aldaerak dituzten hitzetan *-ain* formak erabil daitezela; hau da, *arrain*, *usain*, *zain*, (eta honen eratorriak diren *artzain*, *atezain*, *diruzain*, *itzain*, *ertzain*, *gotzain*, e.a.), *dohain*, eta orobat, *orain* idatz daitezela euskara batuan; baina beste sail batekoa denez gero *mahai*, eta ez *mahain*, idatz dadila.**

*Tradizioa, irizpideak...*

Bizkaieraz, lapurteraz eta zubereraz, eta Baztango eta Nafarroa Beheko testuetan, palatalizazioa gorabehera, *-ain* da hitz horietan betidanik azaltzen den forma; gipuzkeraz eta Goi Nafarroako testuetan, aldiz, *-ai* da lehen testuez gero beti agertzen den aldaera.

1968an euskara baturako ontzat eman ziren irizpideen arabera Bizkaian eta Iparraldean erabiltzen diren formak dira, bat datozenean, hobestekoak.

Bestelakoa da *orain* hitzaren kasua, zeren honetan Bizkai-Gipuzkoetan *orain* erabili baita. *Mahai*-ri dagokionez, *-n* gabeko forma da zabalduena (Iparraldean ez da ezezaguna eta forma bakarra da Hegoalde guztian).

## 7. Zenbakien idazkeraz

0	zero, huts
3	hiru
4	lau
5	bost (bortz)
10	hamar
13	hamahiru
15	hamabost (hamabortz)
18	hemezortzi (hamazortzi)
20	hogei
21	hogeita bat
30	hogeita hamar
40	berrogei
50	berrogeita hamar
60	hirurogei (hiruretan hogei)
70	hirurogeita hamar (hiruretan hogeita hamar)
80	laurogei (lauretan hogei)
90	laurogeita hamar (lauretan hogeita hamar)
100	ehun
101	ehun eta bat
200	berrehun
300	hirurehun
400	laurehun
500	bostehun (bortzehun)
600	seiehun
700	zazpiehun
800	zortziehun
900	bederatziehun
1.000	mila
1.200	mila eta berrehun
1.201	mila berrehun eta bat
1.984	mila bederatziehun eta laurogeita lau
1.000.000	milioi bat
10.000.000	hamar milioi
1.000.000.000	mila milioi (miliar bat)

### *Oharrak:*

—*Hemezortzi*-ren ondoan, *hamazortzi* ere onartzen da bigarren aukera gisan.

—*Ehun eta bat* zenbakian ez da beharrezkoa *eta* hori oso-osorik ahoskatzea eta mintzairen arabera [eta], [ta] edo [da] bezala ahoska dai-teke.

—*Mila* zenbakitik gora *eta* kenduko da ondoren datozen ehunekoetan ere agertzen bada: *mila eta berrehun*, baina *mila berrehun eta bi*; *mila eta laurehun*, baina *mila laurehun eta bi*.

*Tradizioa, irizpideak...*

1) *Zero* eta *huts*, biak erabiltzen dira, nahiz ez diren gauza bera: *bost eta huts*, *huts eta huts*, *zero bider zero berdin zero*, e.a.

2) *Hiru* eta *lau* zenbakiek bi sistema erakusten dituzte deklinatzeko orduan (ik. 8. araua).

3) *Bost* zenbakiaren aldaera *bortz* da, Iparraldeko zenbait hizkeratan —ez zubereraz ezta Nafarroa Behereko parterik handienez— erabilia.

4) 20-100: Ondoko aukerak agertzen dira tradizioan (tradizio nahasia):

EKIALDEAN	HEGOALDEAN	AZKEN URTEOTAN
hogeí eta zazpi [xviii.a arte]	hogeí eta zazpi	
hogeí ta zazpi	hogeí ta zazpi [nagusi]	
hogeí-ta zazpi	hogeita zazpi [tarteka]	
hogeita zazpi	Ø	
hogeitazazpi	Ø	hogeitazazpi [nagusi]

*Oharra:* (*hogeitazazpi* bezalakoak ageri diren arren, *hogeitamar* bezalakorik ez dago azken aldia arte)

5) *Hogoi* aldaera Ekialdekoa da (xviii.az geroztik, salbu Zuberoan, non *hogeí* erabiltzen baita egun ere).

6) Ekialdean ere *hirurogei* bezalakoak erabili izan dira historian, baina xviii. mendetik *hiruretan hogei* (*hiruetan hogei*, berriagoa) eta *lauretan hogei* (*lauetan hogei*). Jakina, *hogoi* aldaerak ere hartu behar dira kontuan.

7) *Mila* zenbakitik gorakoan artean ere ohiturak ez dira berdinak:

milla  $\phi$  bost eun ogei ta bi toneladakoa  
milla  $\phi$  bost eun laurogei ta emeretzigarren urtean  
milla **eta** ehun gizon  
milla **eta** bederatzireun da ogei ta bosgarren urtian  
milla  $\phi$  sei ehun eta berrogei eta bigarrean  
milla  $\phi$  sei eun ogei ta amabigarren urtean  
milla **ta** zazpieun  
milla **ta** zortzi eun, e.a.

## 8. Zenbakien deklinabideaz (*hiru*, *lau*)

Euskaltzaindiak uste du *hiru* zenbatzailea salbuespentzat jo behar dela euskal deklinabidean eta horregatik hauxe erabakitzen du:

- 1) *Hiru* izena denean, bokalez bukatzen diren gainerako beste edozein sintagma bezala deklinatuko da: *hiru, hirua, hiruak* (abs); *hiruk, hiruak, hiruek* (erg), e.a.
- 2) Izenordain baten funtzioa duenean (alegia, sintagma osoa berak bakarrik osatzen duenean), honelaxe deklinatuko da:

	Hiru	
MUGAGABEA		MUGATU PLURALA
hiru		hirurak
hiruk		hirurek
hiruri		hirurei
hirurik		Ø
hirutan		hiruretan
hirutako		hiruretako
hirutatik		hiruretatik
hirutara		hiruretara
hiruren		hiruren
hirurekin		hirurekin
hirurentzat		hirurentzat
hirurez		hirurez

- 3) Hau *hiru* zenbakiari bakarrik dagokio eta ez *hamahiru, hogeita hiru, berrogeita hiru* eta gainerakoei, hauen pluraleko deklinabidea *hamairuak, hogeita hiruak, berrogeita hiruak*, e.a. baitira.

Adibidea: *Atzoko hirurak etorri ziren, baina beste hamahiruak etxean gelditu ziren.*

*Lau* zenbakiaren kasuan Euskaltzaindiak hau erabakitzen du:

- 1) *Lau* izena denean, bokalez bukatzen diren gainerako beste edozein sintagma bezala deklinatuko da: *lau, laua, lauak* (abs); *lauk, lauak, lauek* (erg), e.a.
- 2) Izenordain baten funtzioa duenean (alegia, sintagma berak bakarrik osatzen duenean), honelaxe deklinatuko da:

	Lau	
MUGAGABEA		MUGATU PLURALA
lau		laurak
lauk		laurek
lauri		laurei
laurik		Ø

lautan	lauretan
lautako	lauretako
lautatik	lauretatik
lautara	lauretara
lauren	lauren
laurekin	laurekin
laurentzat	laurentzat
laurez	laurez

- 3) Hau *lau* zenbakiari bakarrik dagokio eta ez *hamalau*, *hogeita lau*, *berrogeita lau* eta gainerakoei, hauen pluraleko deklinabideak *hamalauak*, *hogeitalauak*, *berrogeitalauak*, e.a. baita.
- 4) Analogiaz sortu diren *zazpirak*, *zortzirik* eta horrelakoak bigarren mailan utzi beharko lirateke euskara idatzian, hauek bokalez bukaturiko izenak bezala deklinatzen baitira: *seiak*, *seietan*, *seietatik*, e.a.

Adibidea: *Atzoko laurak etorri ziren, baina beste hamalauak etxean gelditu ziren.*

*Tradizioa, irizpideak...*

0. Zenbakien deklinabideak ez du aparteko arazorik plazaratzen, *hiru* eta *lau* zenbakien kasuan ez bada.

1. *Hiru* eta *lau*, zenbakiak izendatzeko erabiltzen ditugunean (alegia, izenak direnean), beste edozein izen-sintagma bezala deklinatzen dira: «Hau *hirua* da eta beste hori *bosta*»; «Neskatxa horrek *zazpiak* beti handiak egiten ditu, baina *hiruak* eta *lauak*, aldiz, txiki-txikiak», e.a. Hortaz, mugagabea, singularra eta plurala bereiziko dira, ondoko adibideotan bezala: «Zein *hiruren* azpian pintatu behar da laukia?» (mugagabea); «*Hiruaren* eta *bostaren* artean *laua* jarri behar dugu» (sing.); eta «*Hiruen* kolorea ez da *lauena* bezain polita» (plur.). Izen honek *adiskide* edo *zuri* hitzen paradigma bera segituko du.

2. Hegoaldean batez ere, oso erabiliak dira hurrengo modukoak (plural *r*-dunak): «*Hiru* neska etorri dira eta *hirurak* txikiak» edo «*Lau* zerrri saldu ditu eta *laurak* gizenak». Genitiboaren markaz (*hiruren*, *lauren*) eta genitiboaren gainean eraikitako gainerako markaz (*hirurekin*, *hirurentzat*...) horniturik daudenean, ordea, forma bera hartzen dute mugatu pluralak (*hiruren*) eta mugagabeak (*hiruren*).

Leku-denborazko kasuetan eta datiboan, aldiz, idazleek bereizi egiten dituzte plurala eta mugagabea: «*Hirutan* egon naiz eta *hiruretan* ukatu dit

kontu hori». Kontua da plurala *hiruretan* (tradiziorik handiena duena) nahiz *hiruetan* izan daitekeela (gaur egun Ekialdean erabiltzen dena).

## 9. -Zio

**Hortaz, Euskaltzaindiak -zio, -zino, -ziño, -zinoe edo -zione aldaeren artean -zio aldaera (hots, *amorratio, begitazio, debozio, instalazio, integratio, zibilizazio, administratio, segizio, barkazio, bezalako formak*) hobesten du euskara baturako.**

*Tradizioa, irizpideak...*

Atzizkiak zenbait aldaera ditu euskalkien arabera. Aldaera nagusiak hauek dira:

-zino edo -ziño bizkaieraz

-zio gipuzkeraz

-zione Iparraldeko euskalkietan, Baztanen eta Erronkarin.

Azken 25 urteetan euskara batuaren eraginez horietako bi aldaera nagusitu dira:

-zio (Hegoaldean)

-zione (Iparraldean)

Euskara baturako soziolinguistikazko arrazoien kariaz Hegoaldeko aldaera izan daiteke hobestekoa.

## 10. *Nornahi, nonahi, non-nahi*

**Beraz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: galdetzaile batez eta *nahi* partikulaz osaturiko esapideak hitz bakar batean idatz daitezela: *zernahi, nornahi, nornahik, nolanahi, noranahi*, e.a. Aldiz, lehen osagaia *n-z, t-z* edo *k-z* bukatzen bada, hitz batean (*non-nahi, zenbanahi, nondinahi, nonahitik*), edo marratxo baten bidez bereziak (*non-nahi, zenbat-nahi, nondik-nahi, non-nahitik*) idatz daitezke.**

*Oharra:* erabaki hau idazkera soilari dagokio. Hortaz, *norinahi* edo *normahiri*, esaterako, zein hobetsi, eta kideko auziok, hurrengo batean erabakitzeko uzten ditu Euskaltzaindiak.

*Tradizioa, irizpideak...*

Esapide hauek bereiz idazten ziren Hego nahiz Iparraldeko testu zaharretan. Geroago (XVII-XVIII) zabaldu ziren bestelako idazkerak. Mende honetan asko hedatu dira hitz grafiko bakarra erakusten duten idazkerak.

Mende honetako testuetan *zeinahi* eta *nonahi* motako idazkerak ageri dira, nahiz *n* bakarreko grafia hauek ez diren erabat hedatu. Iparraldean *non-nahi* eta are *non nahi* idazkerak dira batez ere erabiltzen direnak. Bestalde, <nn> grafia bitxi gertatzen da euskal ortografi tradizioan. Hortaz, badirudi batasuna bideratzeko modua *-n-* eta *n-n* idazkeratik jotzea dela.

### 11. *Nor / nortzuk, zer / zertzuk, zein / zeintzuk*

**Euskatzaindiak, kontuan harturik forma atzizkidunak (*nortzuk, zertzuk, zeintzuk*) literatura-tradizio jakin bati lotuak daudela, hau erabakitzen du: *nor, zer* eta *zein* formei lehentasuna ematea. Ez ditu, ordea, atzizki pluralgileak dituzten formak inola ere gaitzesten. Orokorki duten izaera markatua aitortzen zaie soil-soilik, eta modu horretan —forma markatu gisa esan nahi da— aurkezten, bai eta onesten ere.**

**Edonola ere, forma hauen deklinabideko paradigmak hauek dira: *nortzuk, zertzuk, zeintzuk* (abs), *nortzuek, zeintzuek, zertzuek* (erg), *nortzuei, zertzuei, zeintzuei* (dat), e.a.**

*Tradizioa, irizpideak...*

Galdetzaile hauek mendebaldeko literatura-tradizio batean *-tzuk* atzizki pluralgilea dutela agertzen dira; beste literatura-tradizioetan, ordea, gauzak ez dira horrela:

*Ezen bazakian hatseandaniak  
Iesusek zein ziraden sinhesten  
etzutenak (Lç Io 6, 64)*

*Zer dira üdüri hurak? (Bp I 69)*

*Zein dira Gizunaren laur  
Ürrenbüriak? (CatS 35)*

*Nork dute Ordenen eta Tonsüraren  
emaiteko züzena? (CatLan 158)*

*Nortzuk dira borondatezko  
pobreak? (Cap 83)*

*Aen ofizioa leelengoak eta  
printzipaleak, zeintzuk izan zirean?  
(Cap 22)*

*Zertzuk*-i dagokionez, ordea, badirudi testu zaharretan *zer* besterik ez dela agertzen (*Ze gauza dira induljenziak?* Cap 67; *Zer dira fedeko ar-*



*tikuluak?* (Cap 26). **Zertzuk**-en lehen agerraldiak XVIII. mendekoak dira. Eta XIX. mendeko bizkaitar klasikoen artean ere, **zertzuk** baino askozaz gehiago erabiltzen da **zer** (**Zer** dira erreguelduak? *Aupatsak esan gura dozu.* Mg PAb 119). Azken urteotan bizkaierazkoak soilik ziren **nortzuk**, **zeintzuk** eta areago **zertzuk** aski hedatu dira euskara idatzian Hegoaldeko zenbait idazleren artean.

## 12. *Bat* eta *batzuk*-en deklinabidea

**Hortaz, literatura-tradizioaren bilakaera hau gogoan harturik, leku-denborazko kasuei dagokienez, forma hauek erabakitzen ditu Euskaltzaindiak euskara baturako (kontuan izan *bata*, *batak* eta halakoak *beste* hitzaren agerraldi mugatu baten eraginpean bakarrik erabiltzeko direla):**

Mugagabea	Mugatua
<i>bat</i>	<i>bata</i>
<i>batek</i>	<i>batak</i>
<i>bati</i>	<i>batari</i>
<i>baten</i>	<i>bataren</i>
<i>batentzat</i>	<i>batarentzat</i>
<i>batekin</i>	<i>batarekin</i>
<i>batez</i>	<i>bataz</i>
<i>batean, baten</i>	<i>batean</i>
<i>bateko</i>	<i>bateko</i>
<i>batera</i>	<i>batera</i>
<i>batetik</i>	<i>batetik</i>

(**Oharra:** ikus orduei buruzkoa den 35. erabakia)

*Tradizioa, irizpideak...*

*Bat* hitzak, leku-denborazko ez diren kasu-atzizkietako bat hartzen duenean, deklinabide mugagabearen arabera hartzen du. Hauek dira, beraz, formak: *bat*, *batek*, *bati*, *baten*, *batekin*, *batentzat*, *batez*.

Dena dela, *beste* hitzaren agerraldi mugatu baten eraginpean dagoenean, ez bestela, *bat-ek* deklinabide mugatuko formak hartzeko joera du literatura-tradizioan: *bata*, *batak*, *batari*, *bataren*, *batarekin*, *batarentzat*, *bataz*. Testu zaharretan beti gertatzen zen hori.

Gaur bi kasu bereizi behar dira. *Bat* bakarrik agertzen denean eta *beste* hitzaren agerraldi baten eraginpean dagoenean, gaur egun ere forma mu-

gatuan gertatzen da, batez ere Hegoaldean, eta badirudi horrelakoak gomendatu behar direla euskara baturako:

*bata ona da baina bestea txarra,  
batak edo besteak irabazi, berdin zait,  
batari nahiz besteari emateko,  
batarengan eta bestearengan.*

Determinatzaile gisa agertzen denean, aldiz, mugatua zaharkitua gertatzen da (*Estimatzen du egun bata bestea bainoago*, Lç Rom 14, 5). Hortaz, badirudi honelako formak gomendatu behar direla euskara baturako:

*saltzen duzula gauza bat bestearen lekuan,  
kaie baten erdia eta bestearen beste erdia.*

Leku-denborazko kasuei dagokionez, *beste*-ren agerraldi mugatu batek eragiten dien perpausetan, *batean*, *bateko*, *batera*, *batetik* erabili dira Iparraldean nahiz Hegoaldean: *etxe batean nahiz bestean* e.a. Orobat *-(e)kin*-en ondoan: *zeruko sainduekin batean* e.a.

*Beste*-ren agerraldi mugatu batek eragiten dituen perpausak alde batera utzirik, literatura-tradizioa bitan banatua agertzen da testurik zaharrenetan: Iparraldean Etxeparek eta Leizarragak, *batetan*, *batetako*, *batetara*, *batetarik* formak erabiltzen dituzte beti, baina Hegoaldean, Bizkaitik Erronkarira, ez da inoiz *batean* (bizkaieraz *baten*), *bateko*, *batera*, *batetik* (edo *baterik*) besterik ikusten. Bestalde, xvii. mendean bertan, Iparraldean *batean*-en saileko formak hasten dira agertzen; eta hurrengo mendean areagotuz doaz *batean*-en saileko agerraldiak, eta xix. mendean erabat nagusi agertzen dira. Zuberoako euskalkia da *batetan* saileko formei eusten dien bakarra.

**Hortaz, forma hauek erabakitzen ditu Euskaltzaindiak *batzuk*-en deklinabideari dagokionez:**

*batzuk*

*batzuek*

*batzuei*

*batzuen (batzuegan, batzuegana, batzuegandik, batzuen baitan, e.a.*

*batzuekin*

*batzuez*

*batzuentzat*

*batzuetan*

*batzuetako*

*batzuetara*

*batzuetatik (batzuetarik)*

**(Oharra: ikus orduei buruzkoa den 35. erabakia)**

*Tradizioa, irizpideak...*

Oro har, NOR eta NORK kasuen arteko bereizketa egiten da forma hauek erabiltzen diren euskalkietan eta euskara batuak ere bereizte hori gorde beharko luke. Kontua da bereizte hori era askotara egin izan dela:

*batzu / batzuk* (Leizarraga)

*batzuk / batzuek* (Etxeberri Ziburukoa, Axular)

*batzu / batzuek* (XIX. mendetik Iparraldean -ez Zuberoan-)

Bizkaieraz *batzuk* erabili izan da bietarako, eta gipuzkeraz, *batzuek*.

Beraz, Axularren bidea hobestea izan daiteke onena.

Bigarren arazoa, gainerako kasuei dagokiena da. Hauetan, salbuespenak salbuespen, euskalki guztietan *batzui*, *batzuen*, *batzuetan* saileko formak erabiltzeko joera nabarmena dago. Hortaz, badirudi formalki mugatu pluralak diren erak hobetsi behar direla euskara baturako.

*Batzuak* gisako erak, *bat*-en kasuan ez bezala, aski bakan eta oso idazle gutxitan agertzen dira eta beti *beste*-ren agerraldi mugatuaren eraginpean, noski. Hortaz, badirudi horrelako formak baztergarritzat hartu behar direla euskara batuan.

### 13. Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri

**Euskaltzaindiak hitzak silabaka zatitzea gomendatzen du.**

*Tradizioa, irizpideak...*

Hizkuntzetan bi irizpide nagusiz baliatzen dira idazleak lerroz aldatzean hitza ezinbestean zatitu behar dutenean eta, hortaz, marratxoak jarri behar dutenean: marratxo hau morfemak kontuan harturik jartzen da edo marratxoak silabak bereiziz jartzen da.

Euskararen kasuan, morfemak hartuko balira kontuan, honela banatuko lirake hitzak: *zakurr-a*; *due-la*; *dute-n*; *gizon-ik*; *maitasun-a*, e.a.

Morfemen ordean silabak hartzen badira, berriz, honako hau geratzen da: *za-ku-rra*; *du-e-la*; *du-ten*, *gi-zo-nik*; *mai-ta-su-na*, e.a.

Morfemak hartuko balira kontuan badirudi arazo handiak sor litezkeela: itxuragabekeriak (*du-zue-n*; *de-n-a*); morfemak non hasten diren eta non bukatzen zehaztea ez da gauza erraza (*gizon-e-k*; *g-en-bil-tza-n*; *Andoni-re-kin*) e.a. Gainera, bistan denez euskal idazle eta hiztunek askoz ere garbiago dute silabaren intuizioa morfemarena baino.

#### 14. Adizki alokutiboak (hikako moldea)

*Oharrak:*

1) Lehen-lehenik erran beharra da aditz alokutiboen parte bat baizik ez duela finkatu Euskaltzaindiak, hikako moldeari doakiona, hain zuzen ere. Zukako adizkera alokutiboek, ekialdeko euskalkietan bereziki erabiltzen direnek, batu gabe segitzen dute, beraz, oraino.

2) Euskaltzaindiaren lana adizkeren formaren finkatzea izan da, eta ez da sartu erabilera-arazoetan. Jakina denez, korapilo asko ditu erabilerak, bai morfosintaxiaren aldetik, bai eta, are gehiago, gizarteko baliagarritasunaren aldetik ere.

*Aditz laguntzaileak*

Adizkera alokutibo batuen eratzeke eztabaidakako adizkera batuen formetan oinarritu da Euskaltzaindia, aldi bakoitzean alokutibotasunak dakartzan mudantzak kontuan harturik, noski.

Jokabide desberdinen artean hautuak egiterakoan, erdibideko jokabideei eman zaie lehentasuna, bai eta sinpletasunari eta argitasunari ere. Horrela tradizioa kontuan harturik, baina mintzairaren bizitasuna ahanzi gabe eratu nahi izan dira paradigmak, orohar aitzineko urratsetako egiteko moldeari jarraiki izan zaiolarik.

Egin diren **hautu** garrantzi handikoenak:

—Erro-aldaketa izaten den kasuetan, sail bateko paradigma guzietan agertaraztea; horrela,  
-NOR bakarreko *izan*-en adizkera alokutiboentzat *-u-* erroa onartu da, aldi guzietan eta *ke*-dun formetan ere bai:

adibidez, *dateke* → *dukek*, eta ez *datekek*; *litzateke* → *lukek*, eta ez *litzatekek*.

-(NOR-)NORK saileko *edun*-en adizkera alokutiboentzat *-i-* erroa onartu da, aldi guzietan, eta pertsona guzietan:

adibidez, *nau* → *naik*, eta ez *n(i)auk*.

Azken kasu honetan NOR pluralaren morfema gisa *it* hobetsi da (*zki* baino):

adibidez, *ditu* → *ditik* eta ez *dizkik*.

—Lehen silaban *-i-* ez da onartu (ez orainaldian, ez eta erro-aldaketarik gabeko formetan ere): adibidez, *natzaio* → *natzaiok*, eta ez *nizatzaio*.

—Indize alokutiboa ergatiboarenaren ezkerrean ematea (eta ez haren eskuinean) onartu da, salbu morfema ergatiboa *-te* denean:

adibidez, *diagu*, eta ez *diguk*, baina *ditek* eta ez *diate* (edo *die*).

—*Izan*-en ez-oraineko NOR bakarreko 3. pertsonako adizkera alokutiboentzat, 2. pertsonako indizea atzizki gisa dakarten formak hobestea (aurrizki gisa daukatenak baino):

adibidez, *zen* → *zuan*, eta ez *huen*.

—Pertsona-aurrizkirik ez duten orainaldiko adizkeretan *d* → *z* aldaketa onartu da erro-aldaketarik ez dakarten adizkera alokutibo ergatibodunetan:

adibidez, *dezake* → *zezakek*, *dio* → *ziok*, baina *du* → *dik* (eta ez *zik*).

## 15. Partitiboaren erabilera okerra

Beraz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia:

**Erabil bedi partitiboa euskaraz, beti erabili izan den gisa, hau da, artikulurik gabe (*lagunik, lanik, ahuntzik, e.a.*) eta pluralik gabeko komuntadura eginez aditzarekin (*dugu, dute, genuen, e.a.*).**

*Tradizioa, irizpideak...*

Partitiboaren marka lotzen zaienean, mugagabea izan behar dute izen-sintagmek:

*Ez dut liburu garestirik erosi.*

*Ez dut lanik egin.*

Hortaz, ez daude ongi emanak beste hauek:

*\*Ez dut liburu garestiarik erosi.*

*\*Ez dut lanarik egin*

Batez ere, izena kontsonantez amaitzen denean hedatu da zenbait euskaldunen artean berria, eta aldi berean gramatikaz kanpokoa, den ohitura hau: *\*lanarik, \*planarik, \*muskerrarik, \*mahatsarik, \*aipamenarik, \*pluralarik, \*ahuntzarik, \*gizonarik, e.a.*

Hori horrela, aditzarekin egiten den komuntaduran izen-sintagma partitiboek ez dakarte sekula numero-markarik eta honenbestez, adizkera jokatuan ezin dezakete erabil pluralik. Beraz, azken aldiotan hedatzen ari

diren egitura hauek, hain segur erdal interferentziaren ondorio direnak, zeharo arrotzak eta baztertzekoak dira:

*\*Ez dituzte gaixoak sendatzeko behar diren tresnarik.*

*\*Aspaldian ez ziren entzuten horrelako hitzik.*

*\*Ez dituzu lagun onik aurkituko.*

## 16. *Zu izan ezik*

**Erabil bedi formula osoa, *izan ezik*, eta *ez ezik* bakarrik, eta aurreko sintagmak har beza dagokion kasu marka. Nolanahi ere, ergatiboaren kasuan zilegi da absolutibo kasua erabiltzea.**

*Tradizioa, irizpideak...*

Askotan entzun eta ikusten dira azken urteotan honelakoak:

*Autobusak eta taxiak ezik.*

*Zuri ezik, gainerako guztiei bidali diet txostena.*

Esan behar da, hala ere, «izen sintagma + *izan ezik*» dela autore gehienek erabiltzen dutena:

«Isabelek, aoz izan ezik, zuka itz egin bear izaten zion aizpari».

«Teologia izan ezik, beste eledergai guztiak agertu, ikertu...»

«Errira polbora-billa zoazenean izan ezik, ondo gordeta zaudeke an».

*Izan ezik*-en ezkerrean doan sintagmak dagokion kasu-marka hartu ohi du: *herri horretan izan ezik, zuri izan ezik, igandetan izan ezik*, e.a. Salbuespena, batzuetan, ergatiboarekin egiten dela dirudi, behin baino gehiagotan aurkitzen baita absolutiboan *izan ezik*-en aurreko sintagma, nahiz ondokoa ergatiboan joan:

*Bera izan ezik, ezin zuan iñork hitz egin errosarioa bukatu arte*  
(Oskillaso).

*Orixe egingo eban zu izan ezik beste edozeinek* (Tx. Agirre).

Baina askotan ergatiboa jartzen da, jakina:

*Horixe egingo luke, zuk izan ezik, beste edozeinek.*

## 17. Euskal alfabetoaren letren izenak(\*)

LETRA	IZENA	LETRA	IZENA	LETRA	IZENA
a	a	j	jota	r	erre
b	be	k	ka	s	ese
c	ze	l	ele	t	te
d	de	m	eme	u	u
e	e	n	ene	v	uve
f	efe	ñ	eñe	w	uve bikoitza
g	ge	o	o	x	ixa
h	hatxe	p	pe	y	i grekoa
i	i	q	ku	z	zeta

\* *Oharra:* Arau honek lehendik harturiko erabakia zehazten/aldatzen du. Ikus *Euskera XXIV*, 1979, 2, 703-704.

### *Erabilerazko oharra*

Letra hauetatik *c* eta honen aldaera *ç* (*c* hautsia) *q*, *v*, *w* eta *y*, ohiko euskal hitzak idazteko erabiltzen ez diren arren, kanpotar izenak transkribatzeko beharrezkoak direlarik, euskal alfabetoan sartzen dira.

Komeni da, beraz, euskal hiztegiak *abc* honetako letra-ordenaren arabera sailkatzea.

## 18. Ordinalen eta banatzaileen idazkera\*

**Laburbilduz, hortaz, hauxe da Euskaltzaindiaren erabakia:**

- 1) Ordinaletan «garren» ahoskatzen den bakoitzean puntua jar bedi haren ordainean: *Atano x.arekin, xx. mendean, 12. mendean.*
- 2) Oso-osorik letraz idazteko orduan arazoak sor ditzaketen ordinalak honela egiten dute: *hogeita batgarren, hirurogeita batgarren.* Hala ere, *bosgarren, hogeita bosgarren, hirurogeita hamabosgarren,* e.a. idatziko da.
- 3) Distributiboak, *-na* baliatuz osatzen direnean, honela idazten dira: *bana, bosna, ehuna, mila bana, zenbana,* e.a. Hauen aldaerak ere (*borzna*) berdin idatziko dira.

\* *Oharra:* Arau honek lehendik harturiko erabakia zehazten/aldatzen du. Ikus *Euskera XVI*, 1971, 150-153.

### Tradizioa, irizpideak...

Ordinalak adierazteko orduan euskal literaturan eta idazleen artean erabilera eta ohitura anitz izan direnez, batasuna egiteko Euskaltzaindiak beti puntu bat jartzea gomendatzen du ordinala adierazteko. Alegia, *garren* esango litzatekeen tokian puntua jarri behar da sistematikoki, inolako bereizketarik egin gabe erromatar eta beste sistemetako zenbakien artean. Horrenbestez, zenbakien ondoren puntua erabiliko da eta *garren* zenbakiak letraz idazten direneko bakarrik utziko da. Ordinala adierazteko marka horri artikulua eta kasu-marka gaineratuko zaizkio, hala beharko balitz, edozein sintagmarekin gertatzen den bezala:

- |  |  |
|--|--|
| 1) <i>xx. mendea</i>   | 10) <i>III. kapitulua polita da. Aldiz IV.a ez zaio hain ongi atera.</i> |
| 2) <i>hogeigarren mendea</i>   | 11) <i>xvii. xviii. eta xix. mendeetan</i>                               |
| 3) <i>10. mendea</i>   | 12) <i>xvii, xviii eta xix. mendeetan</i>                                |
| 4) <i>hamargarren mendea</i>   | 13) <i>Retegi II.a</i>   |
| 5) <i>10. lasterkaria</i>  | 14) <i>Tolosa III. arekin</i>  |
| 6) <i>2. etxea</i>   | 15) <i>Juan Karlos I.ak esan duenez e.a.</i>                             |
| 7) <i>3.ak esan du</i>   |  |
| 8) <i>Hau da 4.a eta beste hori 5.a</i>  |  |
| 9) <i>xix. mendean ez zen halako buruhausterik izan, baina xx.ean ordea bai.</i> |  |

Zenbait kasutan, hala ere, ordinal horiek ez dira beti benetako ordinal gisa erabiltzen eta ahoskatzeko orduan ez da «garren» erabiltzen (*Matematika II, Seat 850, N I errepidea*).

Nola ematen dira ordinalak letra bidez? Ordinalen letra bidezko idazkeran arazoak sortzen dituen bakarra 5.aren ordaina da. Literatura tradizioan erabiltzen diren formak *bostgarren* (edo *bortzgarren*) eta *bosgarren* (edo *borzgarren*) dira. *Boskarren* eta gainerako *-k-* dunak ez dira autore zaharretan ia agertzen. XIX. mendearen bukaeraz gero gehiago zabaldu zen *boskarren*, baina Hegoaldean soilik eta idazle garbizaleen artean bakarrik. Beraz, badirudi euskara baturako egokiagoak direla *-g-* aldaerak, eta horien artean batasunean kontsonante-multzoak murrizteko hartu den erabateko jokabidea (*hiztegi* eta ez *hitztegi* e.a.) kontuan harturik badirudi forma bakuna dela gomendatzekoa. Arrazoi bertsuakatik badirudi *bosna* (*borzna*) eta ez *bostna* dela gomendatu behar den forma. Bestalde, 21., 41. eta kidekoei dagokienez, *batgarren* grafia erabatekoa da.

Hortaz, hau da ordinalentzat Euskaltzaindiak euskara baturako erabakitzen duen idazkera:

*Bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren (borzgarren), seigarren, zazpigarren, zortzigarren, bederatzigarren, hamargarren, hamaikagarren..., hamabosgarren (hamaborzgarren) ..., hogeigarren, hogeita*



*batgarren, hogeita bigarren ..., hogeita hamargarren ..., berrogeita batgarren ... ehungarren, milagarren ...* Eta galderetan *zenbatgarren*.

Orobat, eta banatzaileei dagokienez, *bana* (eta, beraz, *hogeita bana*), *bosna* (*borzna*), *hamabosna* (*hamaborzna*), *ehuna*, *mila bana*, idazkera proposatzen du Euskaltzaindiak. Halaber, galderetan *zenbana* erabiliko da. Jakina denez, Iparraldeko tradizioan, zenbakia bokalez bukatzen denean *-na* gabe *-ra* erabiltzen da: *bira* (baina *hiruna*, *launa*), *seira*, *zazpira*, *zortzira*, *bederatzira*, e.a. Euskaltzaindiak ez du erabilera hau gaitzesten.

## 19. *Benetako, ohiko*

**Beraz, hau da Euskaltzaindiak erabakitzen duena: idatz dadila euskara batuan *benetako* (eta ez *benetazko*). *Ohiko* / *ohizko* bikoteari dagokionez, Euskaltzaindiak, inolako aukerarik egin gabe, gogorazazi nahi du *ohiko* dela tradizioan nagusitzen dena eta Iparraldean gaur bizi den forma bakarra.**

*Tradizioa, irizpideak...*

*Orotariko Euskal Hiztegian*, *benetan* sarreran ikus daitekeenez, *benetako* izenlaguna bizkaierazko eta gipuzkerazko literatura-tradizioetan, 1800. urteaz gero asko erabili den esapidea da. Han bertan ikus daitekeenez, *benetako* da tradizioko idazle guztiek erabili izan duten forma. Azken urte hauetan hainbat testutan agertzen den *benetazko* aldaerak ez du alde horretatik inongo euskarririk. Bestalde, eramoldearen aldetik ere badirudi, *benetan-en* izenlaguna denez gero, *benetako* dela dagokion forma. Hortaz, *egiazko*-ren kutsutik edo sortu bide den *benetazko*-k ez du, antza denez, inongo alde onik euskara baturako gomendatua izan dadin.

*Ohi* partikularen izenlagunari dagokionez, *ohiko* da Iparraldeko testuetan salbuespenik gabe (Goyhetcheren *ohizko* bat izan ezik) agertzen den forma. Azken hogeitaz urteotan, aldiz, *ohizko* analogikoa da Hegoaldean nagusitu den aldaera.

## 20. *Betiko* eta honen kideak

**Honenbestez, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: Idazleen erabilera eta deklinabideko egituratze formala kontuan hartuta, garbi dago *betiko* dela forma egokia Euskal Herri osoari begira eta *aditzondoa* + *ko* forma dela hobetsi beharrekoa. Hortaz, *gaurko*, *biharko*... bezalaxe, *atzoko*, *etziko*, *sekulako*, *luzaroko* eta *betiko* bezalako formak dira aditzondoentzako hobesten direnak**

### *Tradizioa, irizpideak...*

Ikusten denez, kontsonantez bukaturiko aditzondo hauek (*bihar, gaur*) -ko hartzen dute zuzen-zuzenean adizlagun bihurtzeko (*Adiskide, ze asmo duk biharko?*), nahiz noizbehinka *noizkorako, biharkorako*, e.a. bezalako formak ere ageri diren. Bokalez bukatzen direnekin, ordea, zalantzak sor daitezke: *betiko / betirako*.

Idazleen eta hiztunen usadioa kontuan hartzen bada, gauzak aski argi direla dirudi: Ekialdean *betiko* eta honen aldaerak (*betikoz*) erabili ohi dira beti; Mendebalean ere, Arrueren kasuan izan ezik, *betiko* erabili izan da xx. mendea arte. *Betirako*-ren adibide guztiak berriak dira, mende honetakoak eta Mendebalekoak: Labayen, Lizardi, Inza, B. Enbeita, Basarri, Berrondo, Txillardegi eta Irazusta. Erabileraren kopuruari begiratuz gero, hala ere, %6 inguru baizik ez dute osatzen *betirako* aldaeraren adibideek.

### 21. *Arabera*

**Beraz, euskara baturako erabakitzen den forma bakarra *arabera* da espaside gisa erabiltzeko.**

### *Tradizioa, irizpideak...*

Iparraldeko eta Nafarroako literatura-tradizioetako hitz hau hainbat eratan agertu da testuetan: *araura, arauera, arauiala, arabera*, etab. Dena dela, xviii. mendeaz gero erdarazko «*según / selon*»-en kide bezala, *arabera, arauera*, e.a. aldaera horien guztien artean, *arabera* da literaturan erabili den forma nagusia.

### 22. *Iritzi*

**Beraz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: *iritzi* erabil bedi aditz nahiz izen gisa.**

### *Tradizioa, irizpideak...*

Euskal literatura tradizioan hainbat formatan agertzen da hitz hau: *eretxi, eritxi, eritzi, iritxi* eta *iritzi* formatan gutxienez. Jakina denez, euskara batua eratzen hasi zenean, 1960-70 hamarraldian, *iritzi* zen, alde handiz, gehien erabiltzen zen era. Gero, euskara batuaren finkatze prozesuan,

hainbat idazle *eritzi* eraren alde makurtu zen, zaharrena eta bizkaierazko tradizioan erabilia zelakoan.

Literatura tradizioaren azterketa zehatzak gauzak ez direla horrela erakusten du. Idatziz lehen agertzen den forma, Juan de Zumarragaren gutunean (1537) jadanik, *eretxi* da, eta hori berori da bizkaierazko literatura-tradizioan erabat nagusi agertzen dena (etimologikoki jatorrizkotzat hartu behar den \**ereitzi* formatik gertuen dagoena). *Eritzi*, Iparraldeko eta Gipuzkoa aldeko testu zaharretan agertzen da, gehienbat *oneritzi*, *gaitzeritzi* eta antzeko elkartuetan, eta inoiz ez izen bezala. Bestalde, forma hau erabat desagertzen da Iparraldean XVII. mendean. Gipuzkoa aldean, haren ordez *iritzi* agertzen da XVIII. mendean (1713an jadanik) eta hau bakarrik erabiltzen da mende horren azkenaldez gero.

Azkenengo bi mendeetan, *iritzi* da, alde handiz gehien erabiltzen den forma. Bizkaieraz ere, 1800-1970 epean, oro har, *eretxi*-ren erabilera gutxituz doa eta *iritzi*-rena gehituz, eta dirudienez, 1970a inguruan *iritzi* zen bizkaierazko idazleen artean gehien erabiltzen zen forma, *eretxi*-ren (eta, noski, *eritzi*-ren) gainetik. Bestalde, azken hamarraldiotan hitza sartzen hasia da Iparraldean, *iritzi* forman hain zuzen.

Hortaz, badirudi, euskara baturako gomendatu behar den era *iritzi* dela nahiz izen, nahiz aditz bezala. Inork ez du zalantzan jartzen *e*-z hasten diren formak zaharragoak direla euskaraz, baina *ebili* eta *ekusi* zaharkituztat jotzen direnez gero, ez da arrazoirik ikusten *eritzi*-rekin beste horrenbeste ez egiteko.

### 23. *Arazi*\*

**Beraz hau da arauaren forma berria:**

- 1) Aditz «arazleak» eratzeko, *arazi* aldaera gomendatzen du Euskaltzaindiak, salbuespen bakarra *adierazi* delarik.
- 2) Aurreko aditzari lotua idatziko da beti *arazi*: *harrarazi*, *erorarazi*, *iraunarazi*, *hilarazi*, *betearazi*, *galarazi*, *geldiarazi*, *ezagutarazi*, *nabarmanarazi*, *ihardetsarazi*, *inarrosarazi*.
- 3) Zenbait aditzen aldaera *t*-dunak, hots, *sortarazi*, *agertarazi* eta kidekoak, *sorrarazi*, *agerrarazi* eta kidekoak bezain zilegizkotzat hartzen dira.
- 4) *Arazi*-ren aurreko aditza *a* bokalaz amaitzen baldin bada, *a* biekina bat egingo da: *aldarazi*, *benedikarazi*, *jokarazi*, *koordinarazi*, *obligarazi* sozializarazi.

\* *Oharra*: Arau honek lehendik harturiko erabakia zehazten/aldatzen du. Ikus *Euskera* XVI, 1971, 156-159. orr.

*Tradizioa, irizpideak...*

Aditz «erazleak» edo «arazleak» eratzeko, euskaraz *arazi / erazi / erazo / arazo* aldaeretan agertzen den hitzaz baliatzen gara. Hitz hau dago-kion aditzaren ondo-ondoan doa perpausean, eta delako aditzaren erroa da berez agertzen dena. Horretaz bestalde *eragin* ere badugu, euskalki guztietan *egin*-en bidez erutzen diren aditzen «erazle» gertatzen dena, eta, bizkaieraz, batez ere, gainerako aditzekin ere erabiltzen dena.

*Arazi / erazi / erazo / arazo* aldaerak horrela banatzen dira euskalkien arabera:

*erazi* (Z, Dech, Leiz)

*arazi* (L, BN, Baztan, GN)

Mendebaleko idazleengan, berriz, nahasiagoak agertzen dira gauzak:

(G) *erazo* (gehienek), *erazi*, *arazi* (bakanen batek), *azi* (zenbaitek)

Mende honetako autoreengan (1970 arte) horiek guztiok ikusten dira, eta aldaketa nabariena *arazi* aldaeraren agerraldien gehitzea bide da. Bizkaieraz *erazo* da, alde handiz, forma nagusia.

Batasun-prozesuak ekarri duen aldakuntza nagusia, *erazo*, *arazo* eta *azi* aldaeren desagertzea izan bide da. Batasunaren prozesuak ez du *arazi* eta *erazi*-ren arteko hautaketa bideratu: Iparraldeak *arazi* soilik erabiltzeari eusten dio, eta Hegoaldean bi aldaeren arteko zalantzek (askotan autore bat beraren baitan ere) beren hartan diraute. Bestalde, azken urteotan, zuberotarrak *Herria* aldizkarian bederen, *arazi* erabiltzen hasi dira *erazi*-ren orde.

Euskaltzaindiak gomendio bat eman zuen *arazi / erazi*-ri buruz. Hala ere, ez dira asko arau hura betetzen dutenak, besteak beste, aski korapilatsua delako eta hautakizun asko, gehiegi agian, eskaintzen dituelako: esaterako, *sor arazi*, *sor erazi*, *sortarazi*, *sorterazi* idatz daiteke arau horren arabera.

Gorago azaldu den egoeraren arabera, badirudi filologia-argudioek ez dutela aski pisu *arazi* eta *erazi*-ren artean bata bestearen gainetik hobesteko: biek dute, nork bere eremuan behar adina antzinasun eta literatur lekukotasun. Hortaz, beste era bateko arrazoiak erabili behar dira, puntu horretan batasuna bideratuko bada.

Arrazoi horien ildotik, argi bide dago errazago gerta daitekeela hainbeste zalantza agertu eta agertzen dituen Hegoaldea *arazi* erabiltzera bultzatzea, laurhun urtez inongo zalantzarik gabe *arazi* besterik erabili ez duen Iparraldeak bere usadioa alda dezan lortzea baino. Uste honetan, Euskaltzaindiak *arazi* aldaera gomendatzen du euskara baturako. Nolanahi ere, salbuespen gisa *adierazi* gomendatzen da, Hegoalde osoan lortu duen erabiltze zabalagatik.

Egokiagoa da Euskaltzaindaren ustez *arazi* beti loturik idaztea gomendatzea.

## 24. *Ba-* eta *gabe-*ren idazkera\*

**Horrenbestez, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: elkarturik idatzi behar da *ba-*, baina bereiz *gabe*.**

\* *Oharra*: Arau honek lehendik harturiko erabakia zehazten/aldatzen du. Ikus *Euskera XVII*, 1972, 168-173. orr.; *Euskera XVI*, 1971, 156-159. orr.

*Oharrak, gogorarazpena*

*Ba-* aurrizkia beti —baldintzazkoa izan nahiz baieztapenezkoa izan— aditzarekin batera idatzi behar da. Salbuespenak: *Ba omen dator*; *ba ote dator*?

*Gabe* hitza, aldiz, bereiz idatziko da:

*Argirik gabe*

*Argi gaberik* (\**Argirik gaberik*)

*Argi barik* (\**Argirik barik*)

*Argi gabe*

## 25. Hitz elkartuen osaera eta idazkera<sup>10</sup>

**Beraz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia:**

### 1. Bereiz idatziko dira:

- apozizioak (*Bidasoa ibaia*),
- egin eman*, *hartu* eta *eragin* aditzekin osatzen diren aditz-elkarteak (*lo egin*),
- etxez etxe* moduko bikoiztapenak,
- egin berri* modukoak,
- mahai gainean gisako* posposizioak,
- bigarren osagaia *bila*, *eske* edo *falta* duten elkarteak,
- lehen osagaia *erdal*, *euskal*, *giza* eta *itsas* duten elkarteak, *ihartuak* ez diren neurrian,
- lehen osagaiaren amaierako >a< galtzen denean (*biologi azterketa*).

<sup>10</sup> Arau honek lehendik harturiko erabakia zehazten/aldatzen du. Ikus *Euskera XVI*, 1971, 156-159. orr. Testuan ematen diren erreferentziatarako, ikus *Euskera XXXVII*, 1992, 2, 37. liburukia (2. aldia), 721. orritik aurrera.

2. Marrarekin idatziko dira:

- gorri-gorria moduko bikoiztapen indargarriak,
- apurka-apurka bezalako bikoiztapenak,
- seme-alabak, zuri-gorri modukoak,
- barra-barra, plisti-plasta bezalakoak,
- Ezkiotsaso moduko leku izen elkartuak (bi hizkuntzatan ematen direnean, ordea, ez: *Lizarra / Estella*).

3. Loturik idatziko dira:

- jarleku moduko elkarteak,
- aldagaitz bezalako izaera-elkarteak,
- odolustu moduko izen-elkarte arruntak,
- bigarren osagaia -gin, -gile, -zain, -zale, -dun, -gabe edota -gintza, -za(i)ntza duten elkarteak,
- bigarren osagaia -aldi, -buru, -gizon, -(g)une, -kide -(k)ume, -orde duten izen elkarteak,
- lehen osagaia aurre-, azpi- eta -gain duten izen elkarteak,
- lauburu moduko elkarteak.

4. Marrarekin edo marra gabe, nahi den bezala:

- eguzki lore, eguzki-lore moduko izen-elkartu arruntak,
- kale garbitzaile, kale-garbitzaile modukoak.

(Bi hitzak letra larriz hasten direnean hobe da, hala ere, marra gabe idaztea).

5. Elkarteko lehenbiziko osagaiak >ia< amaiera duenean >a<-rekin nahiz >a< gabe idatz daitezke: *biologi azterketa, biologia(-) azterketa*. Bestelako >a< itsatsiak ez dira galtzen elkarketa egiten denean, eta hitzak bere osotasunean eman behar dira. Salbuespen dira, dena dela, honako sei hitz hauek: *burdina, eliza, hizkuntza, kultura, literatura* eta *natura*. Hitz hauek, hala nahi izanez gero, gal dezakete >a< hori.

Idazkerari dagokionez, amaierako >a< galtzen den bakoitzean, bereiz idatziko da hitz elkartua eta >a< gordetzen denean, aukeran izango da bereiz idaztea nahiz marratxoa erabiltzea: *kultur etxea, biologi azterketa, kultura(-)etxea, biologia(-)azterketa*.

Sarrera

Maiz gertatzen da kontzeptu, gogamen, tresna edo jarduera berriak adierazi behar izatea. Bide egokia du horretarako euskarak, beste hainbat

mintzairak bezala, hitz-elkarketa. Horrela eratuak dira, adibidez, *lege-gordailu, aditz-erro, barne-araudi, Foru Aldundi, irrati-entzule, bozera-male, idazmakina, ziurtagiri, zelulabakar* eta beste mila. Ondoko hizkuntzetan sintagma zabalagoen bidez adierazten dena azaltzeko ere baliabide erosoak dugu hitz-elkarketa: *osaba-ilobak (zinaera joan dira), (autobusa) bete-betea (dator), etxez etxe(ko postarritza),...* Arrazoi sendoak ditugu, beraz, hitz elkartuen osaera-idazkerak ongi ikasi eta zuzen erabiltzen jakiteko.

Arreta bereziaz aztertu izan du Euskaltzaindiak hitz-elkarketaren esparru hau. 1971n emanak ditu, azkenekoz, hitz elkartuen idaztarauak. Gerortik ikusi ahal izan denez, gomendio-arau haiek ez dute behar adina argibide eskaintzen eta aski neurri mugatuan betetzen dira. Hori dela eta, hitz-elkarketaren azterlan zabal bat egin du Euskaltzaindiak, LEF batzordearen bidez, 1986tik honakoan. Langintza horren azken emaitza gisa, eta hainbat euskalduni iritzia eskatu ondoren, *Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera* izeneko txostena aurkeztu berri du LEF batzordeak.

Txostena berariaz aztertu du Euskaltzaindiak, Euskara Batuko batzordean eta osoko bilkuretan. Kontuan izan dira, horrekin batera, zenbait euskaltzainen ohar idatziak. Eta azkenik, guzti horren ondorioz, honako erabaki hauek hartu dira: *Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera* argitaratu ematea eta idazki horren laburpenezko gomendio-erabakia, orain eratzen diren hitz elkartuen oinarri-oinarrizko idaztarauak biltzen dituen, luze-zabal ezagutaraztea.

Hori guztia kontuan izanik, eta lehendik emandako pausoen ildotik, hitz elkartuei buruzko argibide eta gomendio-arau hauek eskaini nahi ditu Euskaltzaindiak.

## I. Irizpide nagusiak

### I.1 Hitz elkartuen erabilpen-eremua

Baliabide indartsua da hitz-elkarketa, erdarazko hainbat hitzarte euskaraz eroso eta labur azaltzeko. Erdal izen-konplementazio askoren ordaina, esate baterako, horrela ematen du euskarak: *guraso-elkarte, telefono-zenbaki, garapen-maila, zerga-biltzaile*. Aukera paregabea eskaintzen du, orobat, erdal «izen + adjektibo erreferentzial» egiturak ordezkatzeko: *esku-lan (trabajo manual / travail manuel), aho-literatura (literatura oral / littérature orale), ekonomi teoria (teoría económica / théorie économique)*, etab. Bide honi eutsi behar litzaioke orain ere, ahal den guztian, erdal hitz-moldaera arrotzen menpekoegi bihurtu nahi ez badugu.

Era berean, bikoteak izendatzeko dvandva-elkarteak ditugu egokienak: erdarazko *los hijos / les enfants, los reyes / les rois* edo *los padres / les parents* esamoldeen (hau da, bikotea izendatzen duten hitzen) ordain jatorrak *seme-alabak, errege-erreginak* eta *aita-amak (edo gurasoak)* dira euska-

raz; inoiz horien lekuan agertzen diren *erregeak*, *aitak* bezalakoak ez dira onargarriak.

Askotan eta egoki balia daitekeen hitz-elkarketak ere baditu, ordea, bere mugak. Osagaien arteko erlazio ilunak direla medio, mezu-hartzailearentzat ulergaitz gerta daiteke hainbat kasutan hitz elkartua. Hobe da kasu hauetan eraikuntza sintaktiko libreterara jo, argitasunaren mesedetan: *unibertsitateko irakasleak*, *merkatuaren bilakaera*, *udaletxeen antolamendua* edo *elizbarrutiko museoa* esan eta idatz dezagun halakoetan, *unibertsitate-irakasleak*, *merkatu-bilakaera*, *udaletxe-antolamendua* edo *elizbarruti-museo* modukoetara lerratu gabe.

## I.2. Hitz-junturako hots-aldaketak: hots-legeak

Hitz elkartuen junturako hots-aldaketak corpus zabal batean ikertu ondoren argi ikusten da lehen osagaiaren azken bokala erori eta ondorioz gertatzen diren kontsonante-aldaketak edo azken bokalaren aldaketak zenbait izenetara mugaturik egon direla. *Begi*, *ardi*, *argi*, *beso*, *etxe*, *arto*, *idi...* > *bet-*, *art-*, *art-*, *besa-*, *etxa-*, *arta-*, *it...* forman aurkitzen dira euskal lexikoan aspaldidanik txertatuak ditugun izenetan: *betile*, *artizar*, *iteuli*, *artaburu*, *besamotz*, *etxalde...* Baina hauen ondoan hor ditugu era berean *begi-keiñu*, *begi-kolpe*, *begi-azal*, *argi-txinta*, *argi-izpi*, *ardi-txabola*, *ardi-gazta*, *ardi-sail*, *arto-erregutada*, *arto jale*, *arto-alor*, *beso-lan*, *besogiharre*, *etxe-erretze*, *etxe-gain*, *etxe-bizitza...* Emaitza desberdin hauen aurrean, ondoko puntuok zehaztu beharra ikusten da:

- a) Orain eratzekoak diren elkarteetan ez da komeni behinolako hots-aldatze legeak, aspaldisko galdurik daudenak, berpizten jardutea: *txistulari-elkarte*, *botikari-lana*, *safari-bidaia*, *kultur(a) astea* esan eta idatz dezagun beraz, eta ez *txistulal elkarte*, *botikal lana*, *safal bidaia*, *kultul astea* eta abar.
- b) Aipamen berezia zor zaie azken urteetako *unibertsital*, *monetal*, *medikal*, *nekazal* eta antzekoei. Guztiak dira erdal adjektibo erreferentziala ordezkatzeko erabili direnak: *ámbito universitario* = *unibertsital esparrua*, *política monetaria* = *monetal politika*, *examen médico* = *medikal azterketa*, *ayuda financiera* = *finantzal laguntza...* ikusi eta irakurtzen ditugu gero eta maizago. Bide zuzena, hitz-elkarketaz baliatzeotan, *unibertsitate-esparrua*, *moneta-politika*, etab. erabiltzea da.
- c) Era berean, aparteko aipamena merezi du >a< itsatsiaren galerak: ikus I.3.

## I.3. Lehen osagaiaren amaierako >a<: galdu ala ez

Bada adibide zaharrik, bokal-kontrakzioa gertatu delako edo beste zerbaitengatik lehen osagaiaren amaierako >a< hori ageri ez duenik: *Elizon-*



do, *Elizmendi, Elejoste, eskolemaile*, etab. Halakoetan ere ez da falta izaten, ordea, bokalari bere horretan eutsi izanaren lekukotasunik: *Elizagairai, Elizabeherrea, Elejabeitia, eskola-emaile*, etab.

Puntu horietan desadostasun bat baino gehiago agertzen den arren, ez da hori gaur eguneko auzi-iturri nagusia. Esparru jakin-mugatu horretatik gainezka eginez, izan ere, bestelako hedadura eta agerpen-maiztasuna eskuratu du bokal-galera honek xx. mendean: 1950etik honakoan ugarituz joan diren *kultur hizkuntza, literatur tradizio, hizkuntz egoera, ortografi arau, teknologi maila* modukoetan bereziki. Gaur egun nahaste-borraste handia dago, puntu honi dagokionez, euskal idazleen (eta are, zenbaitetan, hiztunen) artean.

Hori guztia kontuan izanik, Euskaltzaindiak honako bide hau hobesten du:

1. Bukaeran >ia< duten hitzak lehen osagai edo mugatzaile gisa dihardutenean, >a< hori kenduta nahiz kendu gabe erabili: *biologi azterketa, geologi irakaslea, pedagogi berrikuntza, ortografi arauak, erreferentzi puntua, diplomazi falta, bidai agentzia, Filosofi Fakultatea, Euskal Autonomi Elkarte, edota biologia (-) azterketa, geologia (-) irakaslea, pedagogia (-) berrikuntza, ortografia (-) arauak*, e.a.
2. Lehen osagaia *eliza, burdina, hizkuntza, kultura, natura* edo *literatura* hitza (eta sei hitz hauek bakarrik) duten elkarteetan *eliz, burdin, hizkuntz, kultur, natur, literatur* forma >a<-gabeak zein *eliza, burdina-, hizkuntza-, kultura-, natura-, literatura-* >a<-dunak berdin onargarri dira. Ongi emanak daude, beraz, bai *eliz agintaria, burdin fabrika, hizkuntz gaitasuna, kultur emankizuna, natur zientziak, literatur tradizioa* modukoak eta bai *eliza (-) zerga, burdina (-) saltzailea, hizkuntza (-) eskola, Kultura Saila, naturazalea, literatura (-) joera* gisakoak. Lehen osagaiari berezko >a< hori kentzen zaionean, marrarik ez erabili (edota loturik eman, bigarren osagaia erdi-atzizki duten *burdingintza* modukoetan).
3. Gainerako elkarte berri guztietan debeku da lehen osagaiaren amaierako >a< kentzea. Beraz *eskola (-) liburua, iraultza (-) giroa, jaiotza (-) kontrola, plangintza (-) arduraduna, fonetika (-) legea, gramatika (-) araua, kutsadura (-) arriskua, ohitura (-) aldaketa, Medikuntza Fakultatea, hezkuntza (-) alorra, finantza (-) egitura...* idatz bedi, eta ez *eskol liburua, iraultz giroa, jaiotz kontrola, plangintz arduraduna, kutsadur arriskua, ohitur aldaketa, Medikuntz Fakultatea, hezkuntz alorra, finantz egitura...*

#### I.4. Berrelkarketa

Atal biko sintagma izan ohi da, normalean, hitz-elkarte: *zuzen-zuzenean, seme-alabak, mutur-zikin, meza-emaile, diru eske, ikasgela, zikin*

*fama, baratxuri-zopa, ardi-gazta* edo *bibliografi ohar* elkarteek, horrela, bina hitz dituzte.

Duda-mudak sortzen dira hitz bi baino gehiagoko elkarteetan. Ez da garbi ikusten, halakoetan, hitz-elkarketaz baliatzea egoki den ala izen-sintagma zabalagoetara jotzea komeni den. Irizpide nagusi gisa honako puntuok dira gaur-gaurkoz seguruentzat eman daitezkeenak:

1. Beharrik ez dagoenean ez gaitezen *euskal aldzkari-zuzendari-bilera, Mendibilgo udal-kirol-patronatua* edo *soinu-uhin-hedapen-bidea* modukoak sortzen ibili. Hobe da, horrelakoetan, sintagma-erabide desberdinak konbinatuz *euskal aldzkari(etako) zuzendarien bilera, Mendibilgo Udalaren kirol-patronatua, soinu-uhinen hedapen-bidea* gisakoak osatzea.
2. Tartean adjektiboren bat sartzen denean hitz-elkarketarik ez egin: *hautagai-zerrenda* baina *hautagai berrien zerrenda* (ez *hautagai berri zerrenda*); *lan-eguna* baina *lan gogorreko eguna* (ez *lan gogor eguna*).
3. Guztiarekin ere, berrelkarketa askoz onargarriago gertatzen da ondoko kasu hauetan:
  - 3.1. Mugatzailea *euskal, erdal, frantses...* dutenak: *euskal musika-taldea, euskal kultur mintegia, euskal liburu-sorta, erdal joskera-moldea, frantses lege-araudia*.
  - 3.2. Aposizioak. Inon baino sarriago ageri dira hemen, agian, berrelkarteak: *Elai Alai dantza-taldea, Ama Lur-filma, Joanak Joan eleberria, Urola-Kosta eskualdea, Bilb(a)o-Behobia autobiodea, Goiz-Arri aldzkaria*.
  - 3.3. Mugatzailearen koordinazio-hedapenak: *emakume- eta haur-taldeak, ebazpen- eta jarraipen-batzordea, edari- eta izozki-saltzailea, galdera- eta harridura-markak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila*.
  - 3.4. *Eguzki-lore* gisakoen alorreko *irizpen-, multzo-, zati- eta mota-elkarteak*. Beste gehienek baino askatasun handixeagoa dute hauek honelako hedapenetarako: *butano-saltzaile itxura, kafe erre usaina, zakar-biltzaile taldea, orein-haragi zatia, perpaus subordinatu motak*.
  - 3.5. *Jarleku* moduko hitz elkartuak ere sarritxo agertzen dira mugatzaile gisa: *deklinabide-atzizkia, geltoki-garbitzailea, aztergai-zerrenda, ikasliburu-saltzailea, logela-aldaketa*.

## II. *Banan-banako idaztarauak*

Orain eratzen diren hitz elkartuak bereiz, marrarekin ala loturik idatzi behar diren argitzen da atal honetan. Elkarte-mota batzuetan gauzak aski argi daudela ikusi du Euskaltzaindiak: adostasun handia dago elkarte-

modu horien idazmoldeaz. Gomendio-arau zehatza ematen da, ondorioz, elkarte horietarako. Beste zenbait elkarte-modutan, aldiz, ez da maila bereko adostasunik ageri: idazkera bi utzi dira, horietarako, aukeran.

Arau nagusiak ematen ditu Euskaltzaindiak oraingoan. Zehaztasunak, salbuespenak eta bestelako argibideak nahi dituenak jo beza *Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera* liburura: bertako bigarren zatian, «Atalez ataleko azalpenean» (aurrerantzean AAA) aurkituko ditu xehetasun horiek.

## II.1. Bereiz idaztekoak diren hitz elkartuak

a) Aposizioak: *Bidasoa ibaia, Aralar mendia, Larramendu kalea, Arriaga antzokia, Axular liburutegia, Euskalzale albistaria, Auspoa liburutegia, Gerediaga elkarte, Xalbador ikastegia, Uztapide bertsolaria; izeba Maria, aitona Domingo, arreba Klara, maisu Juan; B eredia, D dokumentua*. Zehaztasun gehiagotarako, ikus AAAren 14. atala.

b) *Egin, eragin, eman* eta *hartu*-rekin osatzen diren aditz-elkarteak: *lo egin, negar egin, barre egin, oihi egin, berba egin; negar eragin, barre eragin, leher eragin; beldur eman, hitz eman, kontu eman, su eman; min hartu, kargu hartu, parte hartu, kontu hartu*. Loturik idazten diren salbuespenetarako, ikus AAAren 6. atala

c) *Etxez etxe* moduko bikoiztapenak (lehen osagaia deklinaturik, bigarrena biluzik): *aurrez aurre, gainez gain, gizaldiz gizaldi, herriz herri, parez pare, pausoz pauso...*; *adarrik adar, bazterrik bazter, eskurik esku, kalerik kale, sasirik sasi...*; *menderen mende, bururen buru ...* Ikus AAAren 1.1. atala.

d) *Egin berri* modukoak: *amaitu berri, esan berri, hasi berri, sartu berri*. Loturik idazten diren *ezkonberri* modukoak salbuespen dira: ikus AAAren 9. atala.

e) *Mahai gainean, etxe aurretik* gisako posposizioak: *esku artean, gerra aurretik, aste barruan, hiri barnera, ikastetxe mailan, geltoki ondora, kable bidez; Urola aldeko (herriak), eskualde mailako (zerbitzua), denda osteko (almazena)* Loturik ematen diren *nazioarteko, jendaurreko, prentsaurreko...* formetarako ikus AAAren 11.5. atalean eta ondoren, idazkerari buruzkoetan, esaten dena.

f) Bigarren osagaia *bila, eske* edo *falta* duten elkarteak: *ur bila, bake bila, ardo bila, ogi bila; diru eske, barkamen eske, argibide eske, aholku eske; egur falta, harreman falta, lo falta, batasun falta*.

g) Lehen osagaia *erdal, euskal, giza, itsas* duten elkarteak: *erdal gramatika, erdal itzulpena, euskal olerkiak, euskal idazleak; giza zientziak, giza adimena; itsas garraioa, itsas ekologia* (forma zahar-ihartuetarako. ikus hiztegia).

h) Lehen osagaiaren amaierako >a< galtzen denean. Ikus, horri buruz. gomendiozko idaztarau hauen I.3. atala.

## II.2. Marrarekin idaztekoak diren hitz elkartuak

a) **Gorri-gorri(a)** moduko bikoiztapen indargarriak (lehen osagaia deklinabide-atzizkirik gabe dutenak): *labur-labur (azaldu), adi-adi (egon), erne-erne (gidatu), ozta-ozta (entzun); (hitzaldi) luze-luzea, (egun) argi-argia, (euskaldun) garbi-garbia, (bazkari hau) arin-arina (da); alfer-alferrik (saiatu) gazte-gazterik (hil), zabal-zabalik (utzi), doi-doia (jasan), gaur-gaurkoz, zuzen-zuzenean, azken-azkenean, bete-betean, bihotz-bihotzetik, hasiera-hasieratik, zin-zinez, gain-gainera; gehien-gehiena(k); asper-asper egin, dagoen-dagoen(ean)*. Ikus AAAren 1. atala.

b) **Apurka-apurka** moduko bikoiztapenak (bi osagaiek atzizki berbera): *tarteka-tarteka, banaka-banaka; launaka-launaka, aldian-aldian, ezarian-ezarian; egunero-egunero; astero-astero emeki-emeki, polito-polito, astiro-astiro*. Ikus AAAren 1. atala.

c) **Seme-alabak, zuri-gorri** moduko elkarteak: *senar-emazteak, zerulurrak, galde-erantzunak, maisu-maistrak, izen-deiturak; txuri-urdin, gazi-geza, luze-zabal, argi-ilun; han-hemen, ezker-eskuin, harat-honatan, laztan-musuka, negar-zotinka; sartu-irten, joan-etorri; hamar-hamaika (lagun), gutxi-asko*. Ikus AAren 2. atala.

d) **Barra-barra, plisti-plasta eta zehatz-mehatz** modukoak: *bor-bol; kili-kili, mara-mara, pil-pil, txin-txin, txio-txio(ka); binbi-banba, dinbilidanbala, hinki-hanka, kili-kolo, tirriki-tarraka, zirti-zarta; auzi-mauzi, duda-muda, erran-merran, handi-mandi, nahas-mahas, tarteka-marteka*. Ikus, salbuespenetarako bereziki, AAren 16. atala.

e) **Ezkio-Itsaso** moduko leku-izen elkartuak: *Abanto-Zierbena, Gernika-Lumo, Lasarte-Oria, Biurrun-Olkoz, Etxarri-Aranatz, Arratzu-Ubarrundia, Iruraitz-Gauna, Ainhize-Monjolose, Ürrüxtoi-Larrabile*. Ikus AAren 12.2. atala

Besterik dira itzulpenezko *Lizarra / Estella, Arrasate / Mondragón, Vitoria / Gasteiz...* elkarteak. Ikus AAAko 13. atala.

## II.3. Loturik idaztekoak diren hitz elkartuak

a) **Jarleku** moduko elkarteak (aditz-erro + izen): *egongela, aldagela, abiaburu, helmuga, idazmakina, mintzapraktika, salneurri, irakasmila; agerbide, eskabide, jokabide, komunikabide; agerraldi, egonaldi, emanaldi; galdegai, irakurgai, osagai; pausaleku, sorleku; biltoki, geltoki, erakustoki; jokamolde, pentsamolde; aztergune, lehiakide, sortalde, idazlan, ikerlan; ikasgela, ikastetxe*. Salbuespenetarako, ikus AAAren 10. atala.

b) **Aldagaitz** moduko izaera-elkarteak (aditz-erro + izenondo): *konformagaitz, pairagaitz, uxagaitz, herdoilgaitz; asmaezin, nekaezin, bateraezin, pentsaezin; ulerterraz, moldaerraz; isurbera, minbera*.

c) **Odolustu** moduko aditz-elkarte arruntak: *indargaldu, uranditu, gaitzetsi, antzaldatu, biziberritu, indargabetu; azpimarratu, aurreikusi*.

d) Bigarren osagaia **-gin, -gile, -zain, -zale, -dun, -gabe** edota **-gintza, -za(i)ntza** duten elkarteak: *hargin, zurgin, uztargin; bertsozile, haragizale, aurrerazale, neskazale; diruzain, bidezain, atezain; bertsozale, lotsagabe, mugagabe, zentzugabe; gaztagintza, barkugintza, burdingintza; egurgile, etxegile, talogile; gaixozaintza, ertzaintza, liburuzaintza*. Ikus AAren 5., 7. eta 8. atalak.

e) Bigarren osagaia **-aldi, -buru, -gizon -(g)une, -(k)ide -(k)ume, -orde** duten izen-elkarteak: *agintealdi, belaunaldi; batzordeburu, sailburu; lege-gizon, elizgizon; argiune, zerbitzugune; baliokide, solaskide; kalekume, bulegokume; izenorde, sailburuorde*. Loturik idazten dira orobat bigarren osagaia **-gai** edo **-alde** duten hainbat elkarte: *abadegai, erregegai, aztigai* modukoak edota *industrialde, eskualde, lurralde, hegoalde, iparralde, ekialde* gisakoak. Salbuespenetarako ikus AAren 11. atala.

f) Lehen osagaia **aurre-, azpi- eta gain-** duten izen-elkarteak: *aurrekontu, aurrelan, aurreproiektu; azpiegitura, azpimarra, azpimultzo; gainazal, gainbalio, gainkarga*. Ikus AAren 11. atala.

g) **Lauburu** moduko elkarteak (zenbatzaile + izen): *hiruadar; bostortz, hamalauzango, ehunzango; adarbakar, asmobakar, begibakar, zelulabakar*.

#### II.4. Marrarekin edo bereiz idatz daitezkeen hitz elkartuak

a) **Eguzki-lore** moduko izen-elkarte arruntak. Hemen sartzen dira, bereziki, hiztunak edo idazleak unean-unean eratzen dituen izen-elkarte berri, bizi, ugariak: *akordeoi-soinu* edo *akordeoi soinu, lan-hitzarmen* edo *lan hitzarmen, batzorde-atal* edo *batzorde atal, arau-proposamen* edo *arau proposamen, merkatari-mundu* edo *merkatari mundu, gizarte-bizitza* edo *gizarte bizitza, arazo-iturri* edo *arazo iturri, sakontze-ikastaro* edo *sakontze ikastaro, osasun-egoera* edo *osasun egoera, elebitasun-formula* edo *elebitasun formula, garapen-maila* edo *garapen maila, ikastetxe-mota* edo *ikastetxe mota, eskabide-orri* edo *eskabide orri*. Zehaztasun gehiagotarako, ikus AAren 11. atala.

b) **Kale-garbitzaile, adar-jotze edo ate-joka** moduko elkarte sintetikoki arruntak (bigarren osagaia aditz-izenkia dute, eta lehena bigarrenaren osagarri zuzen). Hauek ere oso ugariak dira:

—Egile-elkarteak: *kale-garbitzaile* edo *kale garbitzaile, bide-urratzaile* edo *bide urratzaile, harri-jasotzaile* edo *harri jasotzaile; odol-emaile* edo *odol emaile, soinu-jole* edo *soinu jole, eguraldi-iragarle* edo *eguraldi iragarle; aho-gozagarri* edo *aho gozagarri, bihotz-hunkigarri* edo *bihotz hunkigarri, begi-mingarri* edo *begi mingarri; euri-neurgailu* edo *euri neurgailu, orri-zulagailu* edo *orri zulagailu; behor-gidari* edo *behor gidari, erbi-ehiztari* edo *erbi ehiztari*.

—Ekintza-elkarteak: *adar-jotze* edo *adar jotze, zikiro-jate* edo *zikiro jate, odol-isurtze* edo *odol isurtze, denbora-galtze* edo *denbora galtze;*

*diru-bilketa* edo *diru bilketa*, *adimen-azterketa* edo *adimen azterketa*; *txosten-prestaera* edo *txosten prestaera*, *hitz-osaera* edo *hitz osaera*; *fede-ukapen* edo *fede ukapen*, *lan-eskaintza* edo *lan eskaintza*.

—Jardun-elkarteak: *ate-joka* edo *ate joka*, *aho-zabalka* edo *aho zabalka*, *errosario-esaka* edo *errosario esaka*; *kantu-kantari* edo *kantu kantari*, *kontu-kontari* edo *kontu kontari*.

Ikus, zehaztasun gehiagotarako, AAren 7. atala.

Oharra: osagai biak letra larriz hasten direnean hobe da hitz elkartua marrarik gabe idaztea. Errotuluetan, zenbait titulutan eta izendapenetan agertzen da hori batez ere: *Eusko Jaurjaritza*, *Foru Aldundia*, *Kultura eta Turismo Saila*, *Garraio Zuzendaritza*, *Medikuntza Fakultatea*, *Bertsolari Txapelketa*, *Zinema Jaialdia*, *Ur Kirolak* eta abar.

## II.5. Marrarekin edo loturik idatz daitezkeen hitz elkartuak

**Sudur-luze** moduko elkarte arruntak: (*neska*) *sudur-luze* edo *sudurluze*, (*zezen*) *adar-motz* edo *adarmotz*, (*agure*) *buru-soil* edo *burusoil*, (*mutiko*) *musu-gorri* edo *musugorri*, (*marinel*) *odol-bero* edo *odolbero*, (*adiskide*) *esku-zabal* edo *eskuzabal*, (*esparru*) *angelu-zuzen* edo *angeluzuzen*, (*teilatu*) *punta-zorrotz* edo *puntazorrotz*.

## 26. -Z gero

### Ondoko hau proposatzea erabaki du Euskaltzaindiak:

1. **Kasu guztietan -(e)z gero idatz bedi: hori eginez gero, hori egin duzunez gero.**
2. **Orduekin, eta oro har denbora-posposizio gisa, ezker ere idatz daiteke: hamarrez gero / hamarrak ezker, zortzietz gero / zortziak ezker, San Ferminetz gero / San Ferminak ezker, atzoz gero / atzo ezker.**
3. **Honezker, horrezker eta harrezker aditzondoak, era horretan idatziko dira, horrela erabili baitira euskararen literatura-tradizioan, nahiz horrezker aditzondoaren maiztasuna beste biena baino askoz ere apalagoa den.**

*Tradizioa, irizpideak...*

Euskal gramatikan baldintzako perpausak egiteko dagoen era arrunte-netako bat, aditz-adjektiboari -(e)z gero posposizioa eranstea da:

*Lan eginez gero, behar den bezala ordainduko dizute.*

Era berean, posposizio berberaz eta aditz jokatu batekin batera per-paus kausalak egin ditzakegu:

*Lana ondo egin duzunez gero, behar den bezala ordainduko dizute.*

Azkenik, aditz jokatu zein jokatu gabeekin batera denbora-perpau sak ere egin daitezke posposizio honen bidez:

*Eskolako lana eginez gero, jolas egitera joan zaitezke.*

Ikusten denez, posposizio hau elementu biz dago osaturik: alde bate-tik, instrumentalaren marka den -z atzizki az eta, bestetik, *gero* aditzon-doaz.

Bi elementu horiek idazteko orduan tradizioak bi bide segitu ditu: Iparral-deko idazleek bereiz idatzi izan dituzte (-z *gero*) eta Hegoaldekoek, aldiz, batera (*ezkero*, *azkero*).

Aipatu erabilera horiek ez dira, dena dela, posposizio honek dituen ba-karrak, denbora-aditzondo gisa ere aski arrunta baita, aurreko izena beti mugatua duela:

*Heldu den igandeaz gero etxean aurkituko nauzu.*

*Irugarren umea ezkero ama asko...* (Eguzkitza, *Gizarte-Auzia* 185).

## 27. *Hori eta, hori edo eta horrelakoen idazkera*

**Horrenbestez, hau da Euskaltzaindiaren erabakia:**

1. Egitura hauetan guztietan ageri diren juntagailuak osorik idatziko dira beti: *eta, edo*.
2. Egitura agerikoa eta antzematen erraza denean, bereiz idatzi-ko da juntagailua —ondoan koma izan edo ez—, bere garaian Euskaltzaindiak erabaki zuen bezala (*hori eta, hori edo, hori dela eta*).
3. Perpau konplexua denean, ordea, beharrezkoa izan gabe ere, aukeran izango du idazleak juntagailuaren aurrean marratxoa ipintzea, testua ulertzeko lagungarri dela iruditzen bazaio (*hori-eta, hori-edo, zer dela-eta*).

*Tradizioa, irizpideak...*

*Eta eta edo* juntagailuak aurreko osagaiari enklitikoki lotuz, honako egitura hauek eratzen dira:

*Pellok edo esango zuen hori.*

*Entzun edo egin du horrek.*

*Iñakirekin eta ibili da.  
Amaiak eta ondo egingo dute hori.*

*Banoa berandu da eta.  
Partidua irabazi dute eta, poz-pezik etorri dira.*

*Berandu dela eta, gurean geratu zen lotan.  
Larri dabil, krisia dela eta.*

Horrelakoetan juntagailua bereiz eta marratxorik gabe idaztea proposatu zuen aspaldi Euskaltzaindiak, beharrezkoa izanez gero ondoan koma ipiniz (*Euskera XVI*, 1971, 158-159). Halaz guztiz ere, gomendioak gomendio, marratxoa ipintzen jarraitzen dute idazle batzuek zenbaitetan, irakurketarako lagungarri delakoan.

Zer esan horretaz?

Egitura generikoa eta antzematen erraza denean, edo juntaduraren ondoan datorrena juntaduraren osagai ezin izan daitekeela garbi ikusten denean, ez dirudi marra jarri beharko litzatekeenik:

*Nora joango ziren, bada? Zinera edo...  
Goizeko hiruretan edo hasten dira lanean.*

Perpaua konplexuagoetan, ordea, marratxoa oso lagungarri gerta daiteke egituren esaldia hobeto ulertzeko:

*Esan didate zuen etxean-edo beste egun batean agertuko direla behar-bada.*

*Harrituta zeuden, itsusia zen-eta zuk esan zenuen hura.  
Ez dira-eta hamabost egun Mikel Isabelekin luzaz aritu zena.*

*Hori dela eta* moduko esapideei dagokienez, esan behar da, hasteko, esapide hauek, tradizioaren arabera, batez ere Hegoaldean bakarrik erabili direla, eta nahiko berriak direla. Neurri handi batean *hori dela-ta* da nagusi ageri dena, nahiz oso-osorik, hau da, *hori dela eta* bezalakoak idatzi dituzten idazleak ere badiren.

Hala ere, kontuan hartu behar da euskararen tradizioan *Etorri dela-ta* erabili izan dutenek *ta* erabili dutela bestela ere bokal ondoan beti: *Mirari ta Antton*, *Jone ta Mikel*, e.a. Beraz, kontua ez da nola idazten zuten esapide hau, edo honen tankerakoak, baizik nola idazten zuten *eta* juntagailua. Batasunerako *eta* aukeratua du Euskaltzaindiak, salbuespenik gabe. Orduan, badirudi egokiena litzatekeela esapide hauetan ere *eta* mantentzea, horrela idatzi duten autore asko dagoelako, batetik, eta horrela erabili ez dutenek esapidearekin zerikusi zuzenik ez zuten arrazoiengatik aukeratu dutelako beste idaztankera hori, bestetik.



## 28. Aditzoinen forma

Hau da, honenbestez, Euskaltzaindiaren erabakia, aditzoinen formari dagokiona:

1. Normalean aditzoina eta partizipioa bereizten dira: *Ikas / ikasi, bil / bildu, sar / sartu*.
2. Aditza beste kategoria batetik eratoritzen denean eta jatorrizko oinarritik ezertan ere bereizten ez denean, *-tu* atzizkia ere erabil daiteke aditzoinean: *ur / urtu, gizon / gizondu, gorri / gorritu, hobe / hobetu*. Kasu hauetan, hortaz, *urtu, gizondu* eta *hobetu* aditzoin gisa ere erabil daitezke.
3. Aditzoinen bukaera afrikatua denean, aditzoinak nahitaez atxiki behar du afrikatua: *huts dezaket (\*hus dezaket), zorrotz dezaket (\*zorroz dezaket)*.
4. Aditzoin bukaerak >i< berezkoa duenean, >i< amaiera atxiki behar da: *jaiki hadi (\*jaik hadi), jalgi hadi (\*jalgi hadi)*. Ez, ordea, berezkoa ez duenean: *ikas ezak, utz dezake*, e.a. *Itxi* salbuespena da, honetan ere atxiki behar baita >i<. *Eutsi* eta *iritzi* aditzen kasuan aukera uzten da, bietara.
5. Ondoko kasu hauetan bakarrik onartzen da *-t* bukaera aditzoinetan:

—Aditz eratorria bada eta haren oinarria *t-* duna: *laket / laketu*.

—Literatura tradizioan jokabide bakarra izan badu: *ohart, ezagut*.

—*Di* bukaerako oinarri batetik eratorria izatea eta forma laburtu gabetik semantikoki bereiz izatea: *hant* («hanpatu»), *ert* («gutxitu, murriztu»).

Besteetan *-t* gabe: *urrun* nahiz *urrundu* (baina ez *\*urrunt*), *lagun* nahiz *lagundu* (baina ez *\*lagunt*), *neur, ezkon*, e.a.

*Oharra:* Erabaki honetan forma bakarrik aztertzen da, ez erabilera. Hots, idazle batek aditzoinak erabili nahi baditu, aditzoin hauen forma zein den esaten zaio (*zorrotz daiteke, \*zorroz daiteke, hobe daiteke, hobetu daiteke*). Ez ordea, noiz erabili behar dituen.

### *Tradizioa, irizpideak*

Zenbait euskalkitan aditzoinak eta partizipio burutuak, formaz desberdinak izaten dira maiz (*sar/ sartu; ikus / ikusi, bil / bildu*). Garai batean mendebalean ere usatzen ziren aditzoin bereziak, baina aspaldi honetan

Iparraldeko eta ekialdeko euskalkietan baizik ez dira erabiltzen. Azken mende laurden honetan eginikako testuetan ere toki handia izan dute. Halatan euskara batuan aditzoinak erabiltzerakoan forma berezien onestea eta gomendatzea egoki ikusten du Euskaltzaindiak.

Beste kategoria batetik eratorritako aditzen kasuan mendebaldeko hiztunek dituzten arazoak kontuan harturik, bai eta garai bateko mendebaleko idazle zenbaiten joera gogoan edukirik ere, komenigarria dela ikusten du Euskaltzaindiak, horrelako kasuetan (aditzoin eratorriak osoki oinarriaren irudia duelarik), *-tu* atzizkia aditzoinetan erabiltzeko aukera ere onartzea (*ur* eta *urtu*, *gizon* eta *gizondu*, *gaurko* eta *gaurkotu*, *bere* eta *beretu*, *lodi* eta *loditu*, *hobe* eta *hobetu*, *hizka* eta *hizkatu*, *garai* eta *garaitu*...).

Aditzoina eratorketa edo elkarketa bateko osagai denean, *-tu* gabeko forma onartuko da bakarrik (*ikasgela*...).

Hemen ez da kontuan hartzen Euskaltzaindiak oraindik aztertu gabe dituen zenbait puntu, hala nola *ohera* / *oheratu*, *mendirra* / *mendiratu*, *nora* / *noratu*...

#### ADITZOIN BEREZIEN FORMA

Hona hemen Euskaltzaindiak duda batzuen arintzeko ematen dituen argibideak eta arauak:

##### 1. Aditzoin berezien bukaera afrikatua denean

Bukaeran afrikatua duen oinarri bati *-tu* lotzen zaionean afrikatua galten du adizkiak; alderantziz, adizki horri dagokion aditzoinak afrikatua nahitaez atxiki behar du. Beraz: *hustu dut*, baina *huts dezaket* (ez *\*hus dezaket*); *zorroztu dut*, baina *zorrotz dezaket* (ez *\*zorroz dezaket*); *hoztu naiz*, baina *hotz ninteke* (ez *\*hoz ninteke*); *piztu dut*, baina *pitz dezaket* (ez *\*piz dezaket*), etab.

Gogoan har, halere, gutiz gehienetan aditz eratorriak direla horrelakoak, eta haien kasuan aditzoin berezien ondoan *-tu* markarekilako forma ere onartzen dela euskara batuko aditzoinetan: *zorrotz* edo *zorroztu*, *huts* edo *hustu*, *hotz* edo *hoztu*, *aberats* edo *aberastu*, *latz* edo *laztu*...

##### 2. Aditzoin bereziak bukaeran i berezkoa duenean

Aditz izenkiaren forman *-tze* atzizkiaren aurrean *i* gelditzen denean (*jaikitze*, *jalgitze*, *etsitze*, *bizitze*, *aritze*,...) *i* berezkoa da, eta euskara batuan aditzoinetan ere haren atxitzeko aholkua ematen du Euskaltzaindiak: *jaiki hadi*, *jalgi gaitezen*, *ireki lezake*, *bizi bedi*... Alderantziz, *-i* bukaera, aditz izenkian agertu gabe, partizipio burutuan kausitzen denean, aspektu marka izaten da, eta, beraz, aditzoinetan ez da agertzen euskara batuan (*ikas*, *hauts*, *utz*, *araz*, etab). Azken arau honek tradizio

zaharreko aditz zenbaiten kasuan salbuespenak izan ditzake, baina oso guti: *eutsi, itxi, iritzi*.

### 3. Aditzoinak bukaeran noiz duen -t kontsonantea hartzen

Aditzoin bereziak darabiltzaten euskalkietan, maiz agertzen da -t kontsonantea -tu aspektu-marka har dezaketen aditzoinen bukaeran. Ordean, ez dute euskalki guztiak berdin jokatzeko puntu horretan, batzuek, -t ematen baitute, eta besteek ez, zein aditz den (*lagun / lagunt nazazu, dei / deit nazala...*). Orokorki harturik, *t*-dun forma bestearen ondotikakoa da, eta haren erabilera, zenbait aditzetan nagusitu bada ere, ez da aldebat hedatu. Gisa horretan, kasu mugatu batzuetan izan ezik, aditzoinen bukaeretan *t*-rik ez ematea hobesten du Euskaltzaindiak euskara batuarentzat.

*T*-ren erabilpena mugatuko duten puntuak hauek izanen dira:

- Aditz eratorria izatea eta haren oinarria *t*-duna izatea (*ausart / ausartu, laket / laketu, bat / batu, oroit / oroitu*).
- Literatura tradizioan jokabide bakarra izatea (*ezagut, lant, lot, ohart*).
- Di* bukaera duen oinarri batetik eratorririko aditz baten forma laburtua izatea eta forma laburtugabetik semantikoki bereiz izatea: *hant* «hanpatu»(#*handi*); *hert* «gutxitu, murriztu»(#*erdi*).

Euskara batuan, beraz, ondarrean *t*-rik gabe erabiliko dira -tu gabeko beste aditzoinak: *urrun hadi, dei ezazu, neur dezaket, ezkon zaitez, lagun nazazu, on daitezke, etab*.

## 29. Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea

**Beraz, hauxe da Euskaltzaindiaren erabakia: diptongoz bukatzen diren hitzak, orohar, bokalez amaitzen diren gainerako izen guztiak bezala deklinatuko dira. Alde batera utzirik *lau* zenbatzaileak, beste arrazoi batzuegatik, sortzen dituen arazoak, salbuespen bakarra *gau* hitza da, ondoko hiru kasu hauetan: *gauetz, gaueko, gauean*. Monosilaboak izanik instrumentalean doazenak ere salbuespentzat hartzen dira (*deiez*).**

*Tradizioa, irizpideak...*

Gai honetaz iritzi diferenteak eta kontrajarriak eman izan dira. Horrela, batasunerako bidea urratzen hasteko idazle batzuek 1964an Baionan egin zuten bileran diptongoz amaitzen diren izen guztiak kontsonantez

amaitzen direnak bezala deklinatzea erabaki zuten, inolako salbuespenik gabe, Azkuek berak ere egindako bide beretik.

Arau itxi hori pixkanaka aldatuz joan da, Mitxelenak eta Villasantek, besteak beste, egin lanei esker. Horrela, *ai* edo *au*, nola egiten duen diptongoak, bereizten hasi ziren idazleak: *etsai*, esate baterako, bokalez amaitua bailitzan hartzen zen, eta *gau*, ostera, kontsonantez bukatua balitz bezala.

Hala ere, azken urteotan arau hori ere zalantzan jarria izan da, araua jarraiki, *loui* edo *lauik* idatzi beharko bailitzateke, *lurri* edo *lurrik* esaten den modu berean. Beraz, badirudi *au*-z bukaturiko hitzetan ere salbuespenak bederen onartu beharko lirатеkeela.

Gauzak horrela, *OEH*-ko testuak aztertu ditu Euskaltzaindiak eta testu horietan idazleek diptongoz bukaturiko hitzak nola deklinatu dituzten ikusi: *barau*, *sarau*, *bakaillau*, *kofau*, *kopau*, *mokau*, *zamau*, *enparau*, *letrau*, *eskribau*, *garau*, *gaztelau*, *kristau*, *kristinau*, *kristiñau*, *arau*, *egitarau*, *lau* («zelai»), *lau*, *hamalau* eta *gau*.

Azterketa honen ondorioz, hau esan daiteke:

1. Bokalez amaituak bezala deklinatuko dira normalean *-au* diptongoaz amaitzen diren hitzak horrela egiten baita Hegoaldean —eta hor erabiltzen dira ugarienik horrelako hitzak— eta Iparraldean ere horrela jokatzeko baita zenbaitetan, guztietan ez bada ere. **Beraz: arau, araurik, arauri, araturen, arauz(ko), arautan, arautako, arautatik, arautara mugagabea eta arauan, arauko, arautik, araura singularrean.**
2. Salbuespen jakin batzuk baditu, hala ere, jokabide orokor horrek: *Gau* hitzak deklinabide berezia du. Euskalki guztietako jokabideari jarraituz, *-e-* bokala tartekatzen du mugagabeko instrumentalean eta singularreko leku-kasuetan, kontsonantez amaituek egiten duten bezala: *gauetz, gauean, gaueko*. Baina, bestalde, *-r-* tartekatzen du bokalez amaituek horrela egiten duten kasuetan: *gaurik, gauri, gauren*. Beraz, honako paradigma hau izango luke hitz honek: *gauk, gaurik, gauri, gauren, gauetz mugagabea eta gauean, gaueko, gauetik, gauera singularrean.*
3. *Lau* hitza, ordea, arau orokorraren arabera deklinatuko da. Testuek erakusten dutenaren arabera, hitz honen inesibo singularra salbuespena izan zitekeen, *lauan* bezala, *lauean* zein bietara deklinatzea erabaki baitzitekeen. Dena den, egokiago dirudi kasu horretan ere, beste guztietan bezala eta sistemari jarraiki, bokalez amaituen bi-deari jarraitzea eta *lauan* forma hobestea. Horrela egin du Euskaltzaindiak, zenbakien deklinabideaz eman duen arauan ere eta hitz hau, «izena» denean bokalez amaituak bezala deklinatzen dela esan duenean: *lauan, beraz, inesiboan*. Gauza bera zenbakia metahizkuntzan erabiltzen dugunean (*hori laua da; lauan marra bat jarri*

*behar da, e.a.*), hilaren eguna izendatzen dugunean (*martxoaren laua, uztailaren lauan* eta horien antzekoetan (*laua libre dago, lauan sar zaitez...*), «lau» zenbakia duen gelan, alegia). «Izenordain» bezala jokatzeko duenean, ordea, ez: *laurak etorri ziren, lauretan joango gara, e.a.*

4. Diptongoz bukatzen diren gainerako hitzetan (*garai, jai, gai, zelai*) ez da salbuespenik eta bokalez amaituak bailiran deklinatzen dira (*jaiean* eta horrelakoak berriak dira —nahiz Orixek joera handia zuen horretarako— eta Hegoaldekoak, gehienak), salbu monosilaboak instrumentalean: *deiez egon, edozein gaiez mintzatu.*

### 30. Partitiboa baiezkotzat erabiltzen noiz eta nola

**Horrenbestez, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: baiezkotzat erabiltzen partitiboa erabil badaiteke ere, enfasi mugatuetara bakarrik mugatu behar da, testuinguru berezietara, alegia, tradizioan beti egin izan den gisa. Halakoetan, normalean, izenak sintagma adjektibala bat behar du ondoan.**

*Tradizioa, irizpideak...*

Izen-sintagma partitiboak lau perpaus-motatan erabiltzen dira:

- ezezkoetan,
- galderetan,
- baldintzazkoetan,
- baiezkoetan, indar enfatikoak emanez.

Lehenbiziko hiru kasuetan ez da arazorik, eta partitiboak, nahi izanez gero, beti badu tokia:

*Ez dut ogirik erosi.*

*Ogirik erosi duzuia?*

*Ogirik erosi bazenu, puska bat hartuko nizun.*

Laugarren kasuan, baiezkotzat erabiltzen, alegia, gauzak ez dira hain argi.

Alde batetik, partitiboa baiezkoetan erabiltzea itzuli enfatiko bati dagokionez gero, ohiz kanpoko erabilera dela, edo bederen erabilera markatua dela esan beharra da, ugaritasuna edo *bizikitasuna* adierazten baita haren bidez, edo baieztapena indartzen: *Bada pentze gizenik hemen! Badut beste egiteko presatuagorik!*

Goiko adibide horietan gertatzen den bezala, maizenik *izan / egon* eta *ukan / eduki* dira perpausoko aditzak, baina ez da hori baitezpadako baldintza:

*Artzain baliusik hara biltzen da* (Etxahun).

*Gaur film hoberik egiten da* (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 328).

Bestalde, baiezko perpausetan diren sintagma partitiboek badute gutiz gehienetan ardatz-izenaren ondoan, izenondo bat, edo beste elementu adjektibal bat. Hona zenbait adibide:

### **Beste + izena**

*Badu bertze egitekorik goiz huntan* (Barbier, *Ipuinak*, 134).

*Beste esankizunik ere badago* (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 324).

### **Izenlagun genitiboa + izena**

*Bazen heien artean thalendu handitako gizonik* (M. Elissamburu, *Framazonak eta...*, 122).

*Bazeukan buruan aurreragoko gauzarik* (D. Agirre, *Garoa*, 160).

*Eukiko jok oraindino Anastasik nire beharrik* (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 198).

### **Izena + izenondoa**

*Ziberuan bada mithil eijerrik* (Etxahun).

*Botigan badut nik kalitate finik, Parisetik jinik, zuentzat eginik* (J. Moulier, *Lan orhoitgarri zonbait*, 205).

Batzuetan sintagmako ardatza isildua izanik, sintagma adjektibala bakarrik agertzen da; hori perpaus erlatiboekin ere maiz gertatzen da:

*Horretarako biguinagorik behar da* (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 253).

Joera hori ikusirik, zenbait gramatikarik, hala nola Lafittek (§ 160), erran izan dute izen xoil batez osatu izen-sintagmetan partitiboa ezin erabil daitekeela baiezko perpausetan. Alabaina, gutiagotan bada ere, sintagma partitiboak agertzen dira zenbaitetan baiezko perpausetan, inolako izenondorik ez izenlagunik izan gabe ondoan:

*Iratin eta Arbotin hik baduk lagunik* (Etxahun).

*Entzuleen artean komentariorik izan zen* (Erkiaga, *Irribarrea galtzen danean*, 68).

Sintagma partitiboak helburuzko perpaus bati lotuak direnean errazkiago agertzen dira izenak bakarrik haien barnean:

*Badauka lanik konjuruak egiten* (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 231).

Kontuan har bedi, halere, horrelakoetan izena bakarrik agertzen den arren, izenondo bat ondoan balu bezala ulertzen dela: *lagun onik, komentario txarrik...* balute bezala ulertzen ditugu goiko perpausak. Badirudi izena soilik utzi nahi bada, horrelako interpretazioei bidea irekitzen dieten izenak behar direla. Adibidez, ondoko adibideko perpausan *beste* kentzen bada sintagma partitibotik, perpausa trakeski moldaturik gelditzen da (edo oso testuinguru berezia asmatu beharra da interpretazio egokiari leku egiteko):

*Gatu horrek badu bertze buztanik/  
?? Gatu horrek badu buztanik.*

Ikus daitekeenez, baiezko perpausetan partitiboa erabil badaiteke, ez da nolanhika egiten. Horregatik ez da egokia itzuli hori enfasi-beharrik gabe eta izen soilekin erabiltzea.

Komeni litzateke baiezko perpausetako sintagma partitiboen erabilera zaintzea, eta tradizioaren arabera enfasi jokuetara mugatzea, komunzki izenaren ondoan zenbait sintagma adjektibal ere erabilirik.

Gainera dezagun, aurretik esana osatuz baina gauzei beste aldera behatuz, guziz baztergarria dela batzuetan, sintagmak balio generikoa duenean alegia, ezezkako perpausetan partitiboaren ordeztatik erabiltzea. Har dezagun adibide bat.

- a) *Papera bada.*
- b) *(Ez naiz ezkondua baina) haurrak badituz.*
- c) *Paperik ez da / ez dago paperik.*
- d) *(Ez naiz ezkondua eta) haurrik ez dut.*

Beraz, egia bada perpaus zenbaitetan bai artikulua eta bai partitiboa zilegi direla, ez da beti horrela gertatzen:

- a) *\*Lana ez dago → Lanik ez dago*
- b) *\*Ez ditut gehiago lagunak → Ez dut gehiago lagunik*

### 31. Ekartzea merezi du

**Hau da Euskaltzaindiaren erabakia: *merezi izan/ukan* aditzaren osagarria aditz-izen bat denean (*joatea, ikustea, egitea*) erabil bedi absolutiboa, eta ez ergatiboa, horrela erabiltzen baitu herriak bere eguneroko hizkeran eta horrela erabili izan baita euskararen tradizioan ere:**

*Joatea merezi du.*  
*\*Joateak merezi du.*

*Ikustea merezi du.*  
*\*Ikasteak merezi du.*

*Tradizioa, irizpideak...*

Azken urteotan badirudi zalantzak sortu direla zenbait idazleren artean *merezi izan/ukan* aditzak duen erregimenaz. Horrela, tradizioan ongi oinarritua dagoen *ekartzea merezi du* formaren ondoan hasi dira sortzen eta hedatzen *ekartzeak merezi du* bezalakoak. Esan behar da halakoak berriak direla, azken urteotan sortuak eta zenbait gramatikariren nola-halako gogoeten ondorio. Ez da bereizketa hori gertatu leku batzuetan modu batera esaten delako, eta beste batzuetan, ostera, bestera. Ez, badirudi gramatikaren itxurazko logikaz adizkiaren subjektu-ergatiboa izatearen ondorio gisa sortua dela.

*Orotariko Euskal Hiztegia* hartuz gero, ehunka perpauk jasoak daude *merezi* aditza dutenak:

*Iñaxiok ez du merezi.*

*Jainkoak laguntzea ote du merezi?*

*Hark hiltzea merezi du.*

Adibide horiek bezalakoak dira gehienak. Hala ere, puntu honetaz zerbait esan nahi bada, «nork» espresuki nahiz inplizituki esan gabeko perpausk aztertu behar dira, alegia, beste ergatiborik ez dutenak. Hau, esate baterako, nola esan beharko litzatekeen jakiteko: (1a) bezala ala (1b) bezala?

(1) a) *Merezi al du jaiotzea*

(1) b) *Merezi al du jaiotzeak?*

Esan bezala, *OEHN* ageri diren gehienak ergatiboa agerian dutenak dira. Badira, hala ere, ergatiborik gabeak, nahiz hauetan ere beti gelditzen den duda ez ote dagoen testuinguruan ergatiboren bat isildua edo ezkutatua. Hauetan, esate baterako:

*Orain akordatzia ez al du merezi? (Udarregi, Udarregi Bertsolaria 131).  
Merezi leuke mina ondotik ateratia (Mogel).*

Bada, hala ere, absolutiboaren aldeko zeharkako beste froga bat ere: aditz-izena, sarritan partitiboan erabiltzen da:

*Ez du merezi kontatzerik.*

*Ez du merezi zabarkerian orain galtzera uzterik.*

Baina, jakina denez, partitiboa, testuingurua nolakoa den, absolutiboaren tokian ager daiteke, ez ergatiboarenean:

*Ez da andrerik mintzatu.*

*\*Ez du gizonik hitz egin.*

*Andreak ez du gizonik ikusi.*

*\*Andrerik ez du gizona ikusi.*

Batzuetan garbiri ageri da nominalizazioa *merezi ukan* aditzaren osagarri zuzena dela, ergatibo dena bistan delako:



*Zuk bai merezi duzula jan gabe gelditzea.  
Hark ez du gurekin etortzea merezi.*

Beraz, tradizioaren eta herriaren erabileraren arabera, ez da inolako zalantzarik nominalizazioa absolutiboan (edo partitiboan) erabiltzen dela, baina ez ergatiboan:

*Ez dakit merezi duen erantzutea.  
Mereziko ez du bada guziok elkartzea!  
Ez du merezi horregatik haserretzea.  
Merezi ote du horrela bizitzea?*

## 32. Espainiako erresumako probintzia eta elkarte autonomoen<sup>11</sup> izenak

### A) Komunitateen izen ofizialak

Nahiz azken boladan aski erabilia izan, Euskaltzaindiak ez du garbi ikusten «Autonomi Elkarte» den «Comunidad Autónoma» terminoaren ordainik egokien eta zehatzena. Areago, hasieratik beretik azaldu zituen Euskaltzaindiak kontu honi buruzko kezka. Izan ere, jokabide bat baino gehiago ikusi da azken urteotan: *Erkidego Autonomo* (Espainiako Konstituzioaren itzulpenean); *Komunitate Autonomo* (Gernikako Estatutuaren itzulpenean). Bide beretik, «Comunidad Foral de Navarra», *Nafarroako Foru Komunitatea* itzuli da, edo «Comunidades Económicas Europeas», *Europako Ekonomi Komunitateak*. Oro har, *elkarte, komunitate, erkidego*, e.a.en erabilera behin betiko finkatu beharra ikusten du Euskaltzaindiak. Bestela, nola esan, adibidez, «Asociación de Comunidades Autónomas»? Irtenbidea aurkitzeko, administrazio-munduko adituekin hitz egingo da, azken erabakia hartu aurretik.

### B) Komunitateen izen soilak

<b>Andaluzia</b>	Andalucía	<b>Kanariar Uharteak/ Kanariak</b>	(Islas) Canarias
<b>Aragoi</b>	Aragón	<b>Kantabria</b>	Cantabria
<b>Asturias</b> (Asturiasen, Asturiasko...)	Asturias	<b>Katalunia</b>	Cataluña
<b>Balear Uharteak/ Balearrak</b>	(Islas) Baleares	<b>Madril</b>	Madrid
<b>Errioxa</b>	La Rioja	<b>Murtzia</b>	Murcia
<b>Extremadura</b>	Extremadura	<b>Valentzia</b>	Valencia
<b>Galizia</b>	Galicia		
<b>Gaztela eta Leon</b>	Castilla y León		
<b>Gaztela-Mantxa</b>	Castilla-La Mancha		

<sup>11</sup> «Elkarte autonomo» terminoa dela eta, ikus bedi 45. araua.

C) *Espainiako probintzia eta hiriburuak*

<b>Coruña</b>	A Coruña / La Coruña	<b>Lugo</b>	Lugo
<b>Alacant</b>	Alacant/Alicante	<b>Malaga</b>	Málaga
<b>Almeria</b>	Almería	<b>Murtzia</b>	Murcia
<b>Asturias</b>	Asturias	<b>Ourense</b>	Ourense/Orense
<b>Avila</b>	Avila	<b>Oviedo</b>	Oviedo
<b>Badajoz</b>	Badajoz	<b>Palentzia</b>	Palencia
<b>Bartzelona</b>	Barcelona	<b>Palma</b>	Palma de Mallorca
<b>Burgos</b>	Burgos	<b>Pontevedra</b>	Pontevedra
<b>Caceres</b>	Cáceres	<b>Salamanca</b>	Salamanca
<b>Cadiz</b>	Cádiz	<b>Santander</b>	Santander
<b>Castello de la Plana</b>	Castelló de la Plana / Castellón de la Plana	<b>Segovia</b>	Segovia
<b>Ciudad Real</b>	Ciudad Real	<b>Sevilla</b>	Sevilla
<b>Cuenca</b>	Cuenca	<b>Santa Cruz (Tenerifekoa)</b>	Santa Cruz (de Tenerife)
<b>Errioxa</b>	La Rioja	<b>Santiago</b>	Santiago
<b>Extremadura</b>	Extremadura	<b>Soria</b>	Soria
<b>Girona</b>	Girona / Gerona	<b>Tarragona</b>	Tarragona
<b>Granada</b>	Granada	<b>Teruel</b>	Teruel
<b>Guadalajara</b>	Guadalajara	<b>Valentzia</b>	Valencia
<b>Huelva</b>	Huelva	<b>Valladolid</b>	Valladolid
<b>Huesca</b>	Huesca	<b>Zamora</b>	Zamora
<b>Jaen</b>	Jaén	<b>Zaragoza</b>	Zaragoza
<b>Kordoba</b>	Córdoba		
<b>Las Palmas (Kanaria Handikoa)</b>	Las Palmas (de Gran Canaria)		
<b>Leon</b>	León		
<b>Lleida</b>	Lleida / Lérida		

D) *Bestelakoak*

<b>Ceuta</b>	Ceuta	<b>Melilla</b>	Melilla
<b>Eivissa</b>	Eivissa/Ibiza	<b>Menorca</b>	Menorca
<b>Mallorca</b>	Mallorca	<b>Merida</b>	Mérida

E) *Izen historikoak*

<b>Asturietak Printzea / Printzerria</b>	Príncipe/Principado de Asturias	<b>Oska</b>	Huesca
<b>Donejakue (Compostelako)</b>	Santiago de Compostela	<b>Sanandere</b>	Santander
		<b>Sibilia</b>	Sevilla

(Izen historiko hauek lurralde bakoitzaren historiarekin loturik daude eta, hortaz, historia-gaietan erabil daitezke).

### 33. *Ongi etorri!*

**Hau da, hortaz, Euskaltzaindiaren erabakia: agurra egitean eta *Ongi etorri!* esan bedi, ez *ongi etorria!* edo *ongi etorriak!*, hauxe baita euskararen tradizioa.**

*Tradizioa, irizpideak...*

1. *Ongi etorri!*
2. *Ondo ibili!*
3. *Ondo lo egin!*
4. *Zaretela ongi etorriak!*
5. *Ongi etorria eman digu.*
6. *Ongi etorri gartsua eman digu.*

Inori, bati nahiz gehiagori, oles eta hasierako agurra egitean horrela esan izan da beti, partizipioa mugatu gabe. Hala urrundik etorria kalean ikustean edo etxean hartzean edo aireportuan besarkatzean *Ongi etorri!* esan izan zaio beti, ez *Ongi etorria!*

Ez da oraintsu arte euskal literatura osoan horrelako alerik aurkitzen: *Ongi etorria!* edo *Ongi etorriak!* Hauek bart arratsekoak dira gure artean (Hegoaldeko berrikuntza) eta bistan da gainera nola eta zergatik sortuak: gazteleraz bezala «bienvenido! bienvenidos!» singularra eta plurala bereiziz esanez gero, hobeto esana dagoelakoan. Euskarak ez du horrelako bereizkuntzarik egin izan eta beti mugatu gabe esan du.

Horixe bera erakusten digu *Orotariko Euskal Hiztegiak*. Ehun esanplu baino gehiagotik bospasei bakarrik dira hemen ematen dugun dotrinaren kontra partizipioa mugatua daramatenak eta guziak azken hogeita bost urte hauetako idazleenak dira, eta guziak Hegoaldekoenak gainera. Betiko erabilera zein den jakiteko aski da Ziburuko Etxeberriren *Manual debotzionala* zabaltzea; zazpi lerrotan barrena (2301-2308) bost bider oihukarazten dio poetak Aita Eternoari *Ungi ethorri*, dohatsuen tropelak zeruko ateetara iristen ikustean:

- (1) *Ungi ethorri, Ungi ethorri, diozkete miletan  
O arima dohatsuak lekhu saindu hunetan.  
Ungi ethorri, fidel eta adiskide maiteak  
Eta ene Semearen ordenantzak gordeak.  
Ungi ethorri goiz eta arrats guri gomendatuak*

*Eta urrikariz biluz gorriak beztituak.  
Ungi ethorri bihotz sinple malezia gabeak  
Eta munduko plazeren oinez zapatzaileak (Etxeberri, Manual De-  
bozioezkoa).*

Etxahunek bere «khantoreetan» honela dio hiruzpalau aldiz:

- (2) a) *hunki jin ziradela, prima anderia (66)*
- b) *hunki jin hizala (91)*
- c) *ukhen zünin «hunki-jin» (104)*
- d) *Eta hunki jin erran orde.*

Esan daiteke, hala ere: *ongi etorria eman digu*. Baita hurrengoan mo-  
dukoak ere:

- (3) a) *zarela ongi etorria!*
- b) *zaretela ongi etorriak!*
- c) *orain etxetik aldegin dute baina egunen batean berriz etxera-  
tzen badira ONGI ETORRIAK izango dira.*

Ohart, haatik, Etxahunek kasu honetan ere mugatu gabe «hunki jin zi-  
radela» esan duela.

#### 34. Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia

Hau da, hortaz, Euskaltzaindiaren erabakia: *buru argiko nes-  
ka, adineko pertsona, hiru hankako mahaia, bost orriko txostena,  
lau laguneko taldea, ondo egin beharreko lana, neurri txikiko oine-  
takoak, fede apurreko jendea, e.a. bezalako sintagmetan, alegia no-  
lako galderari erantzuten diotenean, -ko hobesten da.*

Horregatik, tradizioak erakusten duen bezala, eta idazle  
gehienek segitu duten bidetik, *-ko* atzizki-forma da hobesten  
dena, eta ez *-tako*.

Oinarrian zenbatzaileraren bat ageri denean eta adina, prezioa,  
neurria, pisua... adierazten duten izenlagunak osatzen direnean  
ere, *-ko* da hobesten dena. Idatz bedi, hortaz, *bi urteko umea, bost  
liberako egunkaria, hiru kilometroko bidea, hamar metroko garaie-  
ra, hiru asteko egonaldia, e.a. Baina -ta-* atzizkia erabili beharre-  
koa izan daiteke zenbaitetan. Adibidez, nongo galderari erantzuz-  
ten zaionean: *hiru etxetako haurrak etorri zaizkit; hiru etxeetako  
haurrak etorri zaizkit; \*hiru etxeko haurrak etorri zaizkit, e.a. Zen-  
baitetan -ko/-tako bikoteaz baliatzea ezinbestekoa izan dezakegu  
bereizketak egiteko: zazpi urteko ardoa (botilan dagoen ardoak  
zazpi urte ditu), zazpi urtetako ardoa (ardoak zazpi urtetan, ez zor-*

**tzitan bildua izan da) eta zazpi urteetako ardoa (aldez aurretik ezagutzen ditugun zazpi urte diferenteetan zehar bilduriko ardoa. Azkeneko zazpi urteetan, esaterako).**

**Honek erakusten digu batzuetan -tako beharrezko dela, baina ez urte hauetan erakutsi izan den bezain sarri.**

*Tradizioa, irizpideak...*

*Hiru kiloko haurra* eta *hiru kilotako haurra* bezalako forma bikoitzak aurkitzen dira euskal testuetan, eta entzuten ahozko mintzairan. *-ko* eta *-tako* bi atzizki-forma ditugu, beraz, «eutea» edo posesiboa adierazten duten izenlagunak sorrarazteko. Kontuan harturik literaturan ageri den erabilera, ordea, ez da dudarik *-ko* atzizkia duen forma hobetsi behar dela, hori baita eskuarki erabilia.

*-ko* atzizkia, betetzen duen funtzioaren arabera, hiru egitura motatan ager daiteke:

1. Izena + *-ko* → izena (*masaileko, gerriko, belarritako...*)

Baina hemen ez gara *-ko/-tako* forma hartzen duen *-ko* erator-atzizki honetaz arituko.

2. Adizlaguna + *-ko* (*mendiko, mendietako, menditako...*)

—Hala ere, batzuetan ez du inesiboa oinarrian, destinatiboa baizik. Hori gertatzen da *-ko /-tako* formak elkarren ordeko agertzen direnean zenbatzailerik gabeko izen-sintagma bati atxikirik:

- (1) a) zuen *kaltetako/kalteko* izango da hori
- b) bere *onetako/oneko* esan diot egia
- c) artistaren *ohoretako/ohoreko* jarri dute oroitarri hori

Euskaltzaindia ez da ariko hemen egitura hauetaz.

—Kontuan hartzekoa da, halaber, *gerizpetako / gerizpeko, ilunpetako / ilunpeko, eguzkitako / eguzkiko* bezalako bikoteen arteko diferentzia formala, eta inoiz semantikoa ere. Euskaltzaindia ez da egitura hauetaz ariko hemen.

3. Izen-multzoa + *-ko*.

«Adizlaguna + *-ko*» egiturak ez bezala, egitura hau erakusten dutenek ez dute oinarrian inesibo kasuko izen-sintagmarik, ez mugatzailerik ez eta, beraz, numero-markarik:

- (2) a) *buru argiko* irakaslea dugu unibertsitatean
- b) *beso luzeko* mutilak hobe arraunketako
- c) *lau eta hiru hankako* mahaiak ezagutzen ditugu

- d) *azken hamarrekoa* jaso ondoren, museko lagunei *bostekoa* emanaz bukatu genuen musaldia
- e) gerra aurretik ezagunak ziren zilarrezko *errealbiko*, *peztako*, *bi peztako* eta *ogerlekoak*
- f) *hirurehun kiloko* harria jaso du Perurenak
- g) *hirurogei ontzako* hogei enbor ebak zituzten atzo aizkolariek
- h) *zenbat kilometroko* bidea dago Baionatik Donostiara?
- i) «Beldurra diot liburu *bakarreko* gizakiari», esan zuen Santo Tomasek
- j) *kantari askoko/anitzeko* taldea da Donostiako Orfeoia
- k) *zazpi eguneko epea* dugu azterketa prestatzeko
- l) *urte gutxiko haurrak* zer egin lezake gurasorik gabe?

Ikusten denez, *-ko* edo *-tako* atzizki-forma adjektibatzailea har dezaketenen izen-multzoak edo oinarriak mota askotakoak izan daitezke:

—Batuetan izena da oinarri:

- (3) a) *edadeko* pertsonari begirunea zor zaio
- b) *hitzeko* gizona errespetagarria da
- c) *itxurako* lanik egin al duzue?

—Beste batuetan partizipioa + *behar*:

- (4) a) *ondo egin beharreko* lana da hori
- b) euskaldunek *jakin beharreko* hizkuntza da euskara.

Bi kasu horietan *-ko* atzizkia bakarrik erabili izan da: ez da, beraz, lekurik *-tako* formarentzat.

—Izena + izenondoa:

Oro har, *-ko* atzizkia erabili izan dute idazleek:

- (5) a) *Negurri gaitzekoa* zuen (Elissamburu, *Piarres Adame*, 6)
- b) *Ago oneko kafea* (*Cancionero Vasco*, I, 23)
- c) Ergela da jende hori, *eta jite txarrekoa* (*J. Etchepare*, *Buruxkak*. 126)
- d) *Sudur handiko* gizona (Elissamburu, *Piarres Adame*, 30).

Badira, noski, *-tako* daramaten zenbait adibide ekialdeko testuetan. Haraneder-en testuetan batik bat («Aurkiturik, bada, perla bat *balio handitakoa*»).

—Zenbatzailea + izena (+ izenondoa).

Zenbatzaileak zehaztuak edo zehaztugabeak izan daitezke: oinarriko izena, berriz, adina, prezioa, neurria, pisua, tamainoa eta denbora adierazten duena izan ohi da gehienbat. Hauek sortzen dituzte bikoiztasun gehienak eta hauetan komeni da batasuna egitea.

*Orotariko Euskal Hiztegiak* eskaintzen dituen datuak kontuan hartuta, ez da zalantzarik idazle gehienek *-ko* aukeratzen dutela halakoetan, eta ez *-tako*. Horrela, *gutxi/guti/gitxi* zenbatzailea daramaten izen-sintagmetan ikusten denez, 167 adibide dira *-koren* aldeko (*neurri gutxiko gauza bezalakoak* alegia), euskalki guztietakoak, eta 19 bakarrik *-takoren* aldeko (*balio gutitako lanak bezalakoak*). Gauza bertsua gertatzen da *asko* eta *anitz*-ekin ere.

Zenbatzaile zehaztuekin ere, oro har, adina, neurria, pisua, tamainoa eta denbora adierazten duten izenekin *-ko* da erabiliena, inolako dudarik gabe. Adinaren kasuan 120 adibide ageri dira *-koren* aldeko eta 6 adibide bakarrik *-takoren* aldeko. Gauza bera neurriarekin (33 eta 1), pisuarekin (adibide bi bakarrik *-takorekin*), balioarekin eta denborarekin (forma bat bakarra *-takorekin*):

- (7) a) *Berrogei ta bi urteko mutilla* zen; oraindik ezkongai, eta bakarrik bizi zen munduan (*Izeta, Dirua Galgarri, 049*)
  - b) Batxin langosuk bere beiñ baiño sarriago esan eutsan (...) *amazortzi urteko mutilak ezabela berrogei urteko mutil zaarraz batu bear* (Azkue, *Batxi Guzur, 118*)
- (8) a) *Amar kilometroko bide berri bat* egiten ari gara (*Izeta, Dirua Galgarri, 036*)
  - b) Batez ere, *bi metroko itsas-huntzi zoragarri bat* (Oskillaso, *Kurloiak, 143*)
- (9) a) Errosarioa bukatzearekin bat jarri zuan etxeko-andre gazteak maia zapi zuri batekin, onen erdian plater aundi bat, ertz batean *sei librako ogi erre-berria* (Zabala, *Gabon gau bat...*, 048)
  - b) Donostiako plaza izanik garestienetako bat, egunik geienetan erosiko da bertan *zortzi edo amar librako azaburu bildua sei edo zazpi koartean* (Iztueta, *Guipuzcoaco provinciaren condaira, 155*)
- (10) a) Doi doia burua makurtzen duela: (...) emozue Marianari *hogoi liberako paper bat*, eta ez bertzerik (Barbier, *Supazter xokoan, 090*)
  - b) Han nuen beraz nere panpina, paparoa zabalik, *berrogoi'ta hamar liberako galtzerkisedak* zangoetan (...), besoak sorbalde-tarik beheraxago doi doia kukutuak (Barbier, *Supazter xokoan, 907*).
- (11) a) Ordun *iru orduko tartea* eman nion Santa Kruzi, ta errenditu zan, firmatuko zula (Orixe, *Santa Cruz apaiza, 116*)
  - b) Azkenik agerian, (...): arrapatzen zutenetik *bi orduko beta emateko, ondo iltzeko prestatu zedin* (Orixe, *Santa Cruz apaiza, 090*)

### 35. Orduak nola esan

Horrenbestez, hau da Euskaltzaindiaren erabakia orduen idazkerari buruzkoa:

1. Orduak honela ematen dira: *ordu bata, ordu biak, hirurak, laurak, bostak, seiak, zazpiak*, e.a. Ordu hitzaren orde *oren* ere erabil daiteke: *oren bata, bi orenak / biak, hirurak*, e.a. Eta honela deklinatu: *ordu batean, bietan / ordu bietan / bi orenetan, hiruretan*, e.a.
2. *Erdia* honela adierazten da: *ordu bat eta erdiak, ordu bi eta erdiak, hiru eta erdiak, bost eta erdiak, ordu bat eta erdietan, ordu bi eta erdietan, hiru eta erdietan, bost eta erdietan*, e.a. Gauza bera *oren* hitzarekin.
3. *Laurdena* honela adierazten da: *ordu bat eta laurdenak, oren / ordu bata eta laurden, ordu bi eta laurdenak, oren / ordu biak eta laurden, hirurak eta laurden, hiru eta laurdenak, hirurak eta laurdenetan, hiru eta laurdenetan, bostak laurden gutxi(ago)*, e.a.
4. *Minutuak*: *hamarrak hamar gutxi, hamarrak hamar gutxiago, hamarrak hamar gutxitan, hamarrak hamar gutxiagotan, seiak eta bostean, laurak eta hogeian, hirurak eta hemezortzian*, e.a.
5. *Zifretan* ematen direnean, bi punturekin bereizten dira orduak eta minutuak, eta bakoitzeko bi zifra erabili behar dira beti: *00:12, 12:10, 09:25*, e.a. Deklinatzen direnean, orduei plurala erantsi, eta minutuei singular-marka, dagozkien lotura bokalekin: *15:00etan, 15:03an, 15:04an, 15:30ean*, e.a. Irakurtzeko orduan hobe da, hala ere, honela irakurtzea: *hiruretan, hirurak eta hiruan*, e.a. Erabilera formaletan ontzat ematen dira, dena den, *hamabostak eta bostean, hamabostak eta hamabostean*, e.a.
6. *Egitarau, kartel eta horrelakoetan ez da eragozpenik erdiko bidea hartzeko: arratsaldeko 5etan, goizeko 11,30etan, iluntzeko 8etatik 11k arte, arratsaldeko 3etatik gaueko 12ak arte*, e.a.

*Tradizioa, irizpideak...*

Zalantzak izaten ditugu askotan ordua esatean. Modu honetakoak izan ohi dira zalantzok:

1. Zeri erantsi behar zaizkio artikulua eta plural-marka: orduari ala ondorengoari? Hots: *hamabiak eta laurdenak* ala *hamabiak eta laurden* esan behar da?



2. Kasu-marka daramatenean ere sortzen dira zalantzak batzuetan: *hamarrak eta hogeitan / hamarrak eta hogeian*.
3. *Gutxi* erabili behar dugunean, zalantzak ditugu nola esan: *hamarrak hamar gutxitan / hamarrak hamar gutxiagotan*.
4. Komunztadura-zalantzak ditugu azkenik: *ordu bata*-k komunztadura singularra ala plurala eskatzen du, batez ere «ordua gehi x minutu» esan nahi denean?

Proposamen zehatzagoren bat egin nahian, literaturako erabilera —*Orotariko Euskal Hiztegiko* corpusetik bildua— aztertu ondoren, ondorio hauek atera daitezke:

1. Orduak adierazteko, orduaren zenbakia eta plural-marka erabiltzen da, besterik gabe, Hegoaldean, eta Iparraldean ere bai batzuetan:

—*Bederatziak aldean joan zen Bernardatxo berriz ere arkaitzera* (Goñi)

—*Goizeko zortziak hirian* (Barbier).

Iparraldean ohikoena *oren* izena ere esatea da; Hegoaldeko autore bat edo bestegan ere aurki daiteke *ordu* izena:

—*Hamar orenak yoiteko hinkan* (M. Elissamburu)

—*Hamar orenak eta hogoi eta bi minuta ziren* (M. Elissamburu).

*Ordu bata*-ren kasuan, Bizkaialdean *ordu batak dira* nagusitzen da; Erdialdean eta Ekialdean *ordu bata / oren bata da*.

2. *Erdia* adierazteko bi joera nagusi ikus ditzakegu: artikulua eta plural-marka *erdi* osagaiari bakarrik eransten dion Hegoaldekoa (eta honek emendiozko juntagailua *t'* itxuran idaztea dakar berarekin gehienetan, *ta* forma laburtuan ere bai tarteka) eta Iparraldeko autore batzuetan ere ikus daitekeena:

—*Hamar t'erdia dira* (Mitxelena)

Iparraldean, plural-marka orduari ere eransten zaio; *erdi* batzuetan singularrean ageri da, pluralean beste batzuetan:

—*Bederatziak eta erdia, elizako ezkilatik* (J. Etxepare)

—*Argitu-eta, zazpiak eta erdia ondoxean jo du komisarioak etxean sartzeko* (Hiriart-Urruty).

*Atlas*-erako egin diren galdeketetan ere, Iparraldean, erantzun nagusia *lauaketerdiak* da, baina horren ondoan *lauak eterdia*, eta bakanago *lau eta erdiak* ere aurki ditzakegu.

Absolutibo kasua ez bestelakoren bat hartzean, ordea, badirudi beti plurala ageri dela (*erditan*). Proposamena, beraz, Iparraldeari dago-kionez, plural-marka bi osagaiei eranstea litzateke: *seiak eta erdiak*.

3. *Eta laurden* esateko, berriz, zalantza nagusia artikulua orduari eta laurdenari, biei, erantsi ala laurdenari bakarrik erantsi bada, hara nola jokatu duten gure idazleek.

Hegoaldekoek, *erdi*-rekin bezalaxe, azkenean bakarrik ematen dute plural-marka:

—*Ilunabarrean, berriz, 8 eta laurdenetatik 9 t'erdietara jai eta aste* (Mitxelena)

—*Hamabi ta laurdenetan* (Oskillaso).

Iparraldekoek, bietan ezartzen dute plurala, edo ordua adierazten duen zenbatzailean bakarrik:

—*Arratsaldeko hiruak eta laurdenetarik bortzak eta laurden iri arte* (Hiriart-Urruty).

4. Hurrengo ordurako zenbat falta den adierazteko, berriz, gehienetan *gutxi* aurki daiteke:

—*Eguerdi laurden guti zen* (Barbier)

—*Eguardiko amabiak laurden gutxitan illargitik praille bat botako baluteke* (G. Mujica).

*Gutxiago* ere aurki daitekeen arren, autore berak bi formak erabiltzea ere gertatu izan da:

—*Goizeko bostak laurden gutxiagotan* (Anabitarte).

*Atlas*-erako egindako galdeketa ere hauxe ageri da: *gutxi / guti* Erdialdean eta Ekialdean, *gutxiago* Mendebaldean.

5. Komuntzadurari dagokionez, *ordu bata da* esango dugu, baina gainerakoetan, jakina, pluralean egingo da komuntzadura: *hirurak dira*, etab.

Zalantzak, *ordu bata* gehi «x minutu» adieraztean sortzen zaizkigu. Nola egin komuntzadura? *Orotariko Euskal Hiztegiko* adibideteak ez du gehiegi laguntzen, bi adibide bakarrik ageri baitira:

—*Ordu bata t'erdixak bano eztozak* (J. San Martin, *Zirikadak*)

—*Zelan ordu bata t'erdixak!* (Oskillaso, *Kurloiak*).

Datu hauek ikusirik, Gramatika batzordeak zenbait gomendio aurkeztu zituen Leioako Biltzarrean. Gomendio horiek, ordea, askotan bikoitzak ziren, bi modu uzten ziren aukeran. Hori zela eta, batasunerako eskea egin zitzaion batzordeari, forma bakarra gomenda zezala, alegia. Eskeari jaramon eginez, orduak emateko molde bakarra gomendatzen ahalegindu da batzordea, Leioan aurkeztu zen txostena aldatuz eta horren gainean hartu du Euskaltzaindiak erabakia.

1. Orduak adierazteko

Aski da dagokion zenbatzaileari artikulua eta plural-marka erans-  
tea, *ordu bata* da salbuespena, jakina. Beraz:

- Ordu bata da*
- Ordu biak dira*
- Hirurak dira...*

Iparraldean *oren bata*, *bi orenak/biak*, *hiru orenak/hirurak...*

Eta kasu-markak eransteak:

- Ordu batean / oren batean*
- Ordu bateko mezatara joango da / oren bateko mezatara joanen da*
- Ordu bietan / bi orenetan / bietan*
- Hiruretan / Hiru orenetan...*

Bizkaian *ordu baten* «ordubete barru» izan arren, zabalduena dela-  
ko gomendatzen da batasunerako *ordu batean*.

2. *Erdia* eta *laurdena* adierazteko

a) *Erdia* adierazteko

Pluraleko marka bigarren osagaian bakarrik ezartzea gomenda-  
tzen da batasunerako, hau da:

- Hiru eta erdiak*
- Bost eta erdiak.*
- Hiru eta erdietan*
- Bost eta erdietan.*

*Oren* ezartzen denean, berriz —Iparraldean maiz egiten den be-  
zala— bi osagaietan emango da pluraleko marka:

- Hiru orenak eta erdiak*
- Hiru orenak eta erdietan.*

Idazkerari dagokionez, *t'erdi* da Hegoaldean erabat hedatua;  
Iparraldean, ordea, *eta* idazteko ohitura dago, eta oraingo erabi-  
leran *et'erdi* ere arrunta da. Horiek horrela, batasuna *eta*-ren bi-  
detik egin behar dela uste du Euskaltzaindiak. Ahoskerari dago-  
kionez, bakoitzak bere euskalkiko ohitura gorde beza.

b) *Laurdena* adierazteko

Orain arte esanaren arabera, bi lekutan ager daiteke pluraleko  
marka. Lehen osagaian edo bigarrenen:

- Ordua + *erdiak*:                    *sei eta erdiak*
- Ordua + *-ak* + minutuak:       *seiak eta hamar.*

Bikoiztasun hori bera erakusten dute euskalkiek *laurdena* adie-  
razterakoan: euskalki batzuetan «ordua + *laurdenak*» esaten du-

ten bitartean, beste batzuetan «ordua + *-ak* + *laurden*» aukera egin dute (pluraleko marka bietan ezartzen duten lekuak ere ez dira falta, *seiak eta laurdenak* esanez). Euskaltzaindiak sisteman kokatzen diren bi formak libre uztea erabakitzen du. Hortaz, *laurden*, *erdi* bezala erabiltzen den lekuetan,

—*Hiru eta laurdenak*

esango dute. Minutuen arabera erabiltzen dutenetan, ostera,

—*Hirurak eta laurden*.

Biok ematen dira ontzat batasunerako.

3. Zenbat minutu gutxi adierazteko  
Puntu honetan, *gutxi/guti* eta *gutiago*, biak onartzea proposatzen du Euskaltzaindiak. Nolanahi ere, gogorarazi nahi du *gutxi/guti* dela hedatuena:

—*Hamarrak hamar gutxi dira / hamarrak hamar gutxiago dira*

—*Bostak laurden gutxitan / bostak laurden gutxiagotan*.

4. Zenbat minutu gehiago adierazteko  
Ordua gehi zenbat minutu igaro diren adierazteko, erabilerak erabilerera, Euskaltzaindiak kasu-marka singularrean ematea gomendatzen du:

—*Seiak eta bostean elkartuko gara*

—*Hamarrak eta hamarrean*

—*Laurak eta hogeian*.

5. Ordua zenbaki bidez adierazi nahi denean  
Ordua zenbaki bidez adierazi nahi denerako honako gomendioak ematen ditu Euskaltzaindiak:

- a) Tauletan zenbaki, xifra hutsak ezarri, kasu-markarik gabe. Bilbotik Donostiarako autobusen irteera-orduak, esaterako, honela adieraz daitezke:

09:00

10:15

12:30

Edo denda bat zein ordutatik zein ordutara dagoen zabalik:

—*Goizetan* 10:00 - 13:30

—*Arratsaldeetan* 16:00 - 19:30

- b) Kasu-marka erantsi nahi denean, aukera bat baino gehiago egon daiteke: kasu-marka soila erantsi, beti pluralari dago-

kion forma erantsi, edo kasuan-kasuan dagokiona ezarri. Hurrenez hurren:

*15:05n 15:05etan 15:05ean*

Euskaltzaindiaren iritziz, egokia da orduak esateko eman diren gomendioak zenbakietan ere betetzea. Hortaz, orduei pluraleko kasu-marka ezarriko zaie, eta minutuei singularrekoa (behar denean lotura-bokala erantsiz):

*15:00etan, 15:01ean, 15:02an, 15:03an, 15:04an, 15:05ean, 15:15ean, 15:30ean.*

*15:00etara/ 15:00ak arte, 15:01era/15:01 arte, 15:02ra, 15:03ra, 15:04ra, 15:05era, 15:15era, 15:30era.*

*15:00etatik, 15:01etik, 15:02tik, 15:03tik, 15:04tik, 15:05etik, 15:15etik, 15:30etik*

- c) Irakurri, berriz, xifra horiek bere horretan irakurtzeko tradizio-rik eza kontuan harturik, hizkera arruntan, egunerokoan (irriti, telebista, etabarretan), honela irakurtzea gomendatzen da:

*—Arratsaldeko hiruretan*

*—Arratsaldeko hirurak arte*

*—Arratsaldeko hirurak eta bostean*

*—Arratsaldeko hiru(rak) eta laurdenetan.*

Era berean, erabilera informalean, 00:00, *gaueko* nahiz *gauerdiko hamabiak* irakurriko dugu. Halaber, 00:30, *gauerdiko* edo *gaueko hamabi eta erdietan*, e.a.

Erabilera formalagoetan, ordea, honela irakur daitezke, zenbakien arteko bi puntuen ordeztasunarekin *eta* ahoskatuz:

*—Hamabostetan*

*—Hamabostak eta bostean*

*—Hamabostak eta hamabostean*

*—Hamabostak eta hogeita hamarrean*

*—Zero orduan / orenean*

*—Zero ordua / orena eta hogeita hamarrean.*

- d) Azkenik, erdibideko erabilerak ere ikusten ditugu behin baino gehiagotan, batez ere egitarau, kartel eta horrelakoetan: hots, orduak hamabika kontatuak *goizeko, arratsaldeko, arratseko* nahiz *gaueko* erantsiz. Hala egin nahi denean, honela idaztea gomendatzen da:

*—Goizeko 10etan*

*—Arratsaldeko 8etan*

*—Goizeko 11,30etan / goizeko 11 eta erdietan*

*—Iluntzeko 8etatik 11ak arte.*

### 36. Frantziako errepublikako eskualdeen izenak

*Eskualdeak* (Egokitzapenen bat behar duten izenak bakarrik jaso dira beheko zerrendan)

<b>Akitania</b>	Aquitaine	<b>Lorrena</b>	Lorraine
<b>Alsazia</b>	Alsace	<b>Normandia Garaia</b>	Haute-Normandie
<b>Auvernia</b>	Auvergne	<b>Normandia Beherea</b>	Basse-Normandie
<b>Borgoina</b>	Bourgogne	<b>Pikardia</b>	Picardie
<b>Bretania</b>	Bretagne / Breizh	<b>Rhône-Alpeak</b>	Rhône-Alpes
<b>Korsika</b>	Corse		

*Frantziako departamenduak eta departamendu-hiriburuak* (Egokitzapenen bat behar duten izenak bakarrik jaso dira beheko zerrendan)

<b>Alpe Garaiak</b>	Hautes-Alpes	<b>Lot-et-Garona</b>	Lot-et-Garonne
<b>Angulema</b>	Angoulême	<b>Marseilla</b>	Marseille
<b>Ardenak</b>	Ardennes	<b>Martinika</b>	Martinique
<b>Belfort Herrialdea</b>	Territoire de Belfort	<b>Nantes</b>	Nantes-Naoned
<b>Bordele</b>	Bordeaux	<b>Niza</b>	Nice
<b>Carcasona</b>	Carcassonne	<b>Paue</b>	Pau
<b>Dordoina</b>	Dordogne	<b>Perpinyà</b>	Perpignan
<b>Ekialdeko Pirinioak</b>	Pyrénées-Orientales	<b>Pirinio Garaiak</b>	Hautes-Pyrénées
<b>Estrasburgo</b>	Strasbourg	<b>Pirinio Atlantikoak</b>	Pyrénées-Atlantiques
<b>Garona Garaia</b>	Haut-Garonne	<b>Quimper</b>	Quimper / Kemper
<b>Gironde</b>	Gironde	<b>Rennes</b>	Rennes / Roazhon
<b>Guadalupe</b>	Guadeloupe	<b>Savoia</b>	Savoie
<b>Guyana Frantsesa</b>	Guyane Française	<b>Savoia Garaia</b>	Haute-Savoie
<b>Hego Korsika</b>	Corse-du-Sud	<b>Tarbe</b>	Tarbes
<b>Itsas Alpeak</b>	Alpes-Maritimes	<b>Tarn eta Garona</b>	Tarn-et-Garonne
<b>Korsika Garaia</b>	Haute-Corse	<b>Tolosa (Okzitaniakoa)</b>	Toulouse
<b>Landes / Landak</b>	Landes		
<b>Arroxela</b>	La Rochelle		

*Oharrak:*

1. *Aturbe*, *Erruan* eta *Auski* erabil daitezke *Tarbe*-ren, *Rouen*-en eta *Auch*-en izen historiko gisa.
2. *Landes / Landak* izena dela eta, deklinabidea era bietara egiten du: *Landesetara / Landetara*, e.a.
3. *Estrasburgo* izenarekin batera onartzen da jatorrizko hizkuntzako *Strasbourg* grafia ere.

## Bestelakoak

Akize	Dax		
-------	-----	--	--

### Irizpide nagusiak eta oharrak

Espainiako Erresumako eta Frantziako Errepublikako probintzia, departamendu eta eskualdeen euskal ordainak finkatzean honako irizpideok izan dira gidari:

- a) Toki-izen horiek idatziz eta ahoz euskaraz izandako tradizio, usadioa eta hurbiltasuna: *Gaztela, Madril, Kordoba, Tolosa, Bordele, Arroxela, Paue, Akize...*
- b) Toki-izenen garrantzia eta erabiltzeko maiztasuna kontuan izanik, Herrialde Nagusi ezagun eta hurbilenak euskal fonetikaz jarri dira: *Errioxa, Aragoi, Bartzelona, Palentzia, Murtzia, Borgoina...* Beste batzuetan eskualdearen tradizio historikoa hartu da kontuan izena euskaratzeko (*Pirinio Atlantikoak*); baina tradizio historiko hori falta dutenean—eta, beraz, administrazio-zatiketa hutsari bakarrik dagozkionean—, bere horretan utzi dira (*Haut-Rhin*). Halaber, batzuetan ibai edo mendien izenak euskaratu dira (*Rodano, Alpeak*), baina ez eskualdeen izenak (*Rhône, Alpes*), izen horiek normalean erabiltzen dituzten euskaldunen ohiturei jarraiki. Zenbait kasutan jatorrizko izenak ere jarri dira, hain ezagunak ez direnean: *Bretagne/Breizh, Quimper/Kemper*, e.a.
- c) Gure artean gutxi erabiltzen ditugulako, tradizio sendorik ez duten izenak jatorrizko era ofizialean eskaintzen dira, inoiz toki bereko hizkuntza jatorren grafiak errespetatuz, ofizialak direnean bereziki: *Avila, Valladolid, Ourense, Avignon, Lozère, Nancy, Troyes, Lleida, Girona, Eivissa, Alacant, Perpinyà...*
- d) Inoiz, bigarren mailan bada ere, forma historiko zaharrak eskaini dira: *Sibilia, Oska, Auski, Aturbe*, e.a.
- e) Izen ofizial osoaz gain, ohiko izena ere, laburtua, eskaintzen da: *Balear Uharteak* eta *Balearrak*, *Kanariar Uharteak* eta *Kanariak*.
- f) Zenbait izenetarako proposatzen den formak, *Kordoba*, adibidez, ez du esan nahi Espainiatik kanpo izen horrekin diren beste hiriak ere horrela esan behar direnik: Argentinako hiria, kasu, *Córdoba* da.

### 37. Data nola adierazi

**Data adierazteko orduan, hortaz, forma hauek erabil bitez:**

—*Durango(n), 1995eko martxoaren 7a(n), aukeran utziz inesiboaren marka.*

—*1995/03/07; 1995-03-27; 1995/III/07; 1995-III-27; 1993-11-23ko bilera agiriak dioenez...*

—*Urtarrilak 20 bezalakoak ere erabil daitezke, baina aposizioan: gaur, urtarrilak 20 bezalakoetan (beraz, \*otsailak 20 egin zuten bilera ez da zuzena).*

*Tradizioa, irizpideak...*

Data adierazteko formarik hedatuena eta erabilienak honako hauek dira:

*Durango(n), 1983ko martxoaren 7a(n)*

*Durango(n), 1983ko martxoak 7.*

Dena den, bi horien artean ere, lehena da orain arte gehien erabili dena, bai *-n* kasu-marka leku-izenari eta egunari ezarriaz, bai kasu-markarik gabe. Hori da, beraz, batez ere Euskaltzaindiak gomendatzen duena:

*Durango(n), 1983ko martxoaren 7an*

*Durango, 1983ko martxoaren 7a.*

Zenbaki bidez adierazteko, berriz:

*1983/03/07; 1983/III/07*

nahiz

*1983-03-07; 1983-III-07*

Eta era berean:

*1993-03-07ko Euskaldunon Egunkaria-n*

Hilabetea eta eguna bakarrik adierazi nahi denean, ostera, bi aukera ditugula esan ohi da:

*urtarrilaren 20a*

*urtarrilak 20*

Gehiago zehaztu beharko litzateke, ordea, ez baitira beti biak aukeran izaten. *Urtarrilak 20* egitura, kasu-marka agerikorik eskatzen ez duenean erabil daiteke, beste zerbaiten aposizioan doanean, esaterako:

*Datorren ostegunean, urtarrilak 20, bilduko da epaimahaia.*



«Urtarrilak 20 egun dituela» edo horren antzeko egituraren laburpena da, azken batean. Baina kasu-markaren bat ezarri behar zaionean ezin dugu egitura hau erabili. Okerrak dira, beraz, ondokoak:

*\*Otsailak 24tik 27 arte izango da ikastaroa.*

*\*Datorren otsailak 14 egingo dugu bilera.*

Horrela behar lukete:

*Hilaren 20an eta 27an*

*Otsailaren 24tik 27 arte.*

*Datorren otsailaren 14an.*

Honek guztiak testuan zehar urtea, hilabetea eta eguna adierazi nahi denerako ere balio du, jakina. Goian aipatu ditugun aukeretatik forma bakarra geratzen zaigu orduan:

*1993ko martxoaren 7a egun handia izango da guztiontzat.*

*Jardunaldiak Bilbon, 1994ko urtarrilaren 5etik 7ra izango dira.*

Azkenik, aposizioetan, hiru modutara eman daiteke asteko zein egun den:

*martxoaren 7an, osteguna / ostegunean / ostegunarekin.*

Horrenbestez, azken bolada honetan asko hedatu den arren, ez da gramatikala ondorengoa:

*\*martxoaren 7an, ostegunez, ezkonduko dira.*

### 38. Munduko estatu-izenak, hiriburuak eta herritarren izenak

Afganistango Errepublika afganistandar, afganiar Kabul kabuldar	Afrika Erdiko Errepublika afrikaerditar Bangi bangiar	Albaniako Herri-Erepublika <i>Sozialista</i> albaniar Tirana tiranar
Alemaniko Errepublika Federala alemaniar / aleman Berlin berlindar	Aljeriako Herri-Erepublika <i>Demokratikoa</i> aljeriar Aljer aljertar	Ameriketako Estatu Batuak / AEB estatubatuar Washington washingtondar
Andorrako Printzerria andorratar Andorra la Vella andorratar	Angolako Herri-Erepublika angolar Luanda luandar	Antigua eta Barbuda antiguar Saint John's saintjohnstar
Arabiarr. Emireerri Batuak emireerribatuar Abu Zabi abuzabiar	Argentinako Errepublika argentinar Buenos Aires buenosairestar	Armenia armeniar Erevan erevandar

Australiako <i>Errepublika</i> australiar Canberra canberrar	Austriako <i>Errepublika</i> austriar Viena vienar	Azerbaijan azerbajandar Baku bakutar
Bahamak/Bahametakoa <i>Commonwealth</i> bahamar Nassau nassautar	Bahreingoa <i>Estatua</i> barheindar Al-Manamah manamahar	Bangladeshko <i>Herri-Erepublika</i> bangladeshtar Daka dakatar
Barbados barbadostar Bridgetown bridgetowndar	Belgikako <i>Erresuma</i> belgikar Brusela bruselar	Belize belizetar Belmopan belmopandar
Beningo <i>Herri-Erepublika</i> benindar Porto Novo portonovoar	Bielorrusia bielorrusiar Minsk minskar	Boli Kostako <i>Errepublika</i> bolikostar Abijan (legis.) / Yamussikro (adm.) abijandar/yamussukroar
Boliviako <i>Errepublika</i> boliviar La Paz lapaztar	Bosnia-Herzegovina bosniar Sarajevo sarajevoar	Botswanako <i>Errepublika</i> botswanar Gaborone gaboronetar
Brasilgo <i>Errepublika Federala</i> brasildar Brasilia brasiliar	Britainia Handiko eta Ipar Irlandako <i>Erresuma Batua / Britainia</i> <i>Handia Erresuma Batua</i> britainiar Londres londrestar	Bruneiko <i>Estatua</i> bruneitar Bandar Seri Begawan begawandar
Bulgariako <i>Herri-Erepublika</i> bulgariar Sofia sofiar	Burkina Faso burkinafasoar Uagadugu uagadugar	Burundiko <i>Errepublika</i> burundiar Bujumbura bujumburar
Bhutango <i>Erresuma</i> bhutandar Tinbu tinbutar	Cabo Verdeko <i>Errepublika</i> cabovertetar Praia praiatar	Costa Ricako <i>Errepublika</i> costarricar San Jose sanjosetar
Danimarkako <i>Erresuma</i> danimarkar, daniar Kopenhage kopenhagetar	Djibutiko <i>Errepublika</i> djibutiar Djibuti djibutiar <sup>12</sup>	Dominikako <i>Commonwealth</i> dominikar Roseau roseautar
Dominikar Errepublika dominikar Santo Domingo santodomingoar	Egiptoko Arabiar <i>Errepublika</i> egiptoar Kairo kairotar	Ekialdeko Timor timortar Baguia baguiar
Ekuadorko <i>Errepublika</i> ekuatortar Quito quitoar	Ekuatore Gineako <i>Errepublika</i> ginear (ekuatoreginear) Malabo malaboar	El Salvadoroko <i>Errepublika</i> salvadortar San Salvador sansalvadortar

<sup>12</sup> Izenak aldaketak izan ditu eta orain *Afar* eta *Isatarren Kosta* bezala ageri da batzuetan (*Côtes des Afars et des Issas*).

Eritrea eritrear Asmara asmarar	Errumania errumaniar Bukarest bukarestar	Errusia errusiar Mosku moskutiar
Eslovakia eslovakiar Bratislava bratislavar	Eslovenia esloveniariar Ljubljana ljubljanar	Espainiako <i>Erresuma</i> espainiar, espainol Madril madrildar
Estonia estoniar Tallinn tallinndar	Etiopiako <i>Herri-Errepublika</i> etiopiar Addis Abeba addisabebear	Fijiako <i>Errepublika</i> fijiar Suva suvatar
Filipinak/ <i>Filipinetako Errepublika</i> filipinarr Manila manilar	Finlandiako <i>Errepublika/Suomiko Errepublika</i> finlandiar Helsinki helsinkiar	Frantziako <i>Errepublika</i> frantses, frantziar Paris paristar
Gabongo <i>Errepublika</i> gabondar Libreville librevilletar	Ghanako <i>Errepublika</i> ghanatar Akkra akkratar	Gambiako <i>Errepublika</i> gambiar Banjul banjuldar
Georgia georgiar Tbilisi tbilistar	Ginea Bissauko <i>Errepublika</i> ginear (gineabissautar) Bissau bissautar	Gineako <i>Errepublika</i> ginear Konakry konakriar
Grenada grenadar Saint Georges saintgeorgestar	Grezia/Heleniar <i>Errepublika</i> greziar, greko Atenas atenastar	Guatemalako <i>Errepublika</i> guatemalar Guatemala guatemalar
Guyanako <i>Errepublika Kooperatiboa</i> guyanar Georgetown georgetowndar	Haitiko <i>Errepublika</i> haitiar Port-au-Prince portauprincetar	Hegoafrikar <i>Errepublika</i> hegoafrikar Pretoria (exe.)/Bloemfontein (jud) Lurmutur (legis.). pretoriar
Herbehereak/Herbereetako <i>Erresuma</i> nederlandar/herberehetar Amsterdam amsterdamdar	Hondurasko <i>Errepublika</i> hondurastar Tegucigalpa tegucigalpar	Hungariako <i>Errepublika</i> hungariar Budapest budapestar
Indiako <i>Errepublika</i> indiar New Delhi newdelhiar	Indonesiako <i>Errepublika</i> indonesiar Jakarta jakartar	Irakeko <i>Errepublika</i> irakiar Bagdag bagdagar
Irango <i>Errepublika</i> irandar Teheran teherandar	Irlanda/Eire irlandar/eiretar Dublin dublindar	Islandiako <i>Errepublika</i> islandiar Reykjavik reykjavikar
Israelgo <i>Errepublika</i> israeldar Jerusalem jerusalemndar	Italiako <i>Errepublika</i> italiar Erroma erromatar	Jamaika jamaikar Kingston kingstondar

Japonia japoniar Tokio tokiotar	Jordaniako <i>Haxemi Erresuma</i> jordaniar Amman ammandar	Jugoslavia jugoslaviar Belgrad belgradar
Kamerungo <i>Errepublika</i> kamerundar Jaunde jaundetar	Kanada kanadar Ottawa ottawar	Kanputxeako <i>Estatua</i> <sup>13</sup> kanputxear Phnom Penh phnompenhdar
Kazakhstan kazakhstandar Alma Ata almaatar	Kenyako <i>Errepublika</i> kenyar Nairobi nairobiar	Kirgizistan kirgizistandar Pishpek pishpekar
Kiribatiko <i>Errepublika</i> kiribatiar Bairiki bairikiar	Kolonbiako <i>Errepublika</i> kolonbiar Bogota bogotar	Komoreak/Komoreetako Islamiar Errepublika Federala komoretar Moroni moroniar
Kongoko <i>Herri-Errepublika</i> kongoar Brazzaville brazzavilletar	Koreako <i>Herri-Errepublika</i> <i>Demokratikoa</i> (Ipar Korea) korear Piongiang piongiangdar	Kroazia kroaziar Zagreb zagrebar
Kubako <i>Errepublika</i> kubatar Habana habanar	Kuwaiteko <i>Estatua</i> kuwaitar Kuwait kuwaitar	Laosko <i>Herri-Errepublika</i> <i>Demokratikoa</i> laostar Vientian vientiandar
Lesothoko <i>Erresuma</i> lesothoar Maseru maserutar	Letonia letoniar Riga rigatar	Libanoko <i>Errepublika</i> libanoar Beirut beirutar
Liberiako <i>Errepublika</i> liberiar Monrovia monroviar	Libiako <i>Arabiar Herri-Errepublika</i> <i>Sozialista</i> libiar Tripoli tripoliar	Liechtensteingo <i>Printzerria</i> liechtensteindar Vaduz vaduztar
Lituania lituaniar Vilnius vilniustar	Luxenburgoko <i>Dukerri Handia</i> luxenburgotar Luxenburgo luxenburgotar	Madagaskarko <i>Errepublika</i> <i>Demokratikoa</i> madagaskartar Antananarivo antananarivoar
Malawiko <i>Errepublika</i> malawiar Lilongwe lilongwetar	Malaysia/Malasia (zah.) malaysiar Kuala Lumpur kualalumpuratar	Maldivak/Maldivetako <i>Errepublika</i> maldivar Male Maletar
Maliko <i>Errepublika</i> maliar Bamako bamakoar	Maltako <i>Errepublika</i> maltar Valleta valletar	Marokoko <i>Errepublika</i> marokoar Rabat rabatar

<sup>13</sup> Izena kolokan dago eta azken Gobernuak berriro hobetsi bide du: *Kanbodia*.

Mauritaniako <i>Islamiar Errepublika</i> mauritaniar Nuakchot nuakchotar	Maurizio mauriziar Port Louis portlouistar	Mazedonia mazedoniar Skopje skopjetar
Mendabaldeko Sahara/Saharako <i>Errepublika Arabiar Demokratikoa</i> saharar Aaiun aaiundar	Mendabaldeko Samoako <i>Estatu</i> <i>Burujabea</i> samoar Apia apiar	Mexikoko <i>Estatu Federatuak</i> mexikar Mexiko Hiria mexikar
Mikronesiako <i>Estatu Federatuak</i> mikronesiar Kolonia koloniar	Moldavia moldaviar Kishinev kishinevar	Monakoko <i>Printzerria</i> monakoar Monako monakoar
Mongoliako <i>Herri-Erepublika</i> mongoliar Ulan Bator ulanbatortar	Mozambikeko <i>Herri-Erepublika</i> mozambiketar Maputo maputoar	Myanmarko <i>Batasuna/Birmania</i> myanmar/birmaniar Rangun rangundar
Namibiako <i>Errepublika</i> namibiarr Windhoek windhoekar	Nauruko <i>Errepublika</i> nauruar Yaren yarendar	Nepalgo <i>Errepublika</i> nepaldar Katamandu katmandutar
Nigerko <i>Errepublika</i> nigertar Niamei miameiar	Nigeriako <i>Errepublika Federala</i> nigeriar Lagos (hbr. Abuja) lagostar	Nikaraguako <i>Errepublika</i> nikaraguar Managua managuar
Norvegiako <i>Erresuma</i> norvegiar Oslo osloar	Omango <i>Sultanerria</i> omandar Maskat maskatar	Pakistango <i>Islamiar Errepublika</i> pakistanar Islamabad islamabadar
Panamako <i>Errepublika</i> panamar Panama panamar	Papua Ginea Berria gineaberriar Port Moresby portmoresbiar	Paraguaiako <i>Errepublika</i> paraguaitar Asuncion asunciondar
Peruko <i>Errepublika</i> perutar Lima limatar	Poloniako <i>Errepublika</i> poloniar Varsovia varsoviar	Portugalgo <i>Errepublika</i> portuges Lisboa lisboar
Puerto Ricoko <i>Estatu Libre Elkartua</i> puertorricoar San Juan sanjuandar	Qatar qatartar Dauhah dauhahtar	Ruandako <i>Errepublika</i> ruandar Kigali kigaliar
Saint Kitts eta Nevisko <i>Federazioa</i> sankistar Basseterre basseterretar	Saint Vincent eta Grenadinak saintvincentar Kingstown kingstowndar	Salomon Uharteak salomondar Honiara honiarrar
San Marinoko <i>Errepublika</i> sanmarinoar San Marino sanmarinoar	Santa Luzia santaluziar Castries castriestar	Sao Tome eta Principeko <i>Errepublika Demokratikoa</i> saotometar Sao Tome saotometar

Saudi Arabiako Erresuma saudi arabiar Riad riadar	Senegalgo Errepublika senegaldar Dakar dakartar	Seychelleak/Seychelleetako Errepublika seychelletar Victoria victoriar
Sierra Leonako Errepublika sierraleonar Freetown freetowndar	Singapurko Errepublika singapurtar Singapur singapurtar	Siriako Arabiar Errepublika siriar Damasko damaskoar
Somaliako Errepublika Demokratikoa somaliar Muqdisho muqdishoar	Sri Lankako Errepublika Sozialista Demokratikoa srilankar Kolonbo (adm.) /Kote (hbr)	Swazilandiako Erresuma swazilandiarr Mbabane (adm) / Lobamba (hbr) mbabenetar / lobambar
Sudango Errepublika sudandar Khartum khartumdar	Suediako Erresuma suediar Stockholm stockholmdar	Suitzako Konfederakundea suitsar Berna bernatar
Surinamgo Errepublika surinamdar Paramaribo paramariboar	Tadjikistan tadjikistandar Dushanbe dushanbetar	Thailandiako Erresuma thailandiar Bangkok bangkokar
Tanzaniako Errepublika Batua tanzaniar Dar es Salaam (hbr Dodoma) daresalaamdar	Togoko Errepublika tongatar Nukualofa nukualofar	Trinidad eta Tobagoko Errepublika trinitatear Port-of-Spain portofspaindar
Tunisiako Errepublika tunisiar Tunis tunistar	Turkiako Errepublika turkiar, turko Ankara ankarar	Turkmenistan turkmenistandar Ashkhabad ashkhabadar
Tuvalu tuvalutar Fongafale fongafaletar	Txadeko Errepublika txadar Njamena njamenar	Txekiako Errepublika / Txekia txekiar Praga pragatar
Txileko Errepublika txiletar Santiago santiagotar	Txinako Errepublika / Taiwan taiwandar Taibei taibeitar	Txinako Herri-Erepublika txinatar Pekin pekindar
Ugandako Errepublika ugandar Kampala kampalar	Ukraina ukrainar Kiev kievtar	Uruguaiako Ekialdeko Errepublika uruguaitar Montevideo montevideoar
Uzbekistan uzbekistandar Tashkent tashkentar	Vanuatuko Errepublika vanuatuar Vila vilatar	Vatikonoko Hiria / Vatikanoko - Hiriko Estatu / Vatikanoa vatikanoar Vatikanoko Hiria vatikanoar
Venezuelako Errepublika venezuelar Caracas caracastar	Vietnamgo Errepublika Sozialista vietnamdar Hanoi hanoitar	Yemengo Errepublika yemendar Aden adendar

Zaireko Errepublika zairetar Kinshasa kinshasar	Zambiako Errepublika zambiar Lusaka lusakar	Zeelanda Berria zeelanda berritar Wellington wellingtondar
Zimbabweko Errepublika zimbabwetar Harare hararetar	Zipreko Errepublika zipretar Nikosia nikosiar	

*Oharrak:*

1. Izen ofiziala (*Venezuelako Errepublika*) eta laburtua (*Venezuela*) ematen dira.

2. Batzuetan bi aukera uzten dira: *Irlanda* eta *Eire*, nahi dena erabil dadin.

3. *Luxenburgo*-ren kasuan *Luxemburg* ere onartzen da (*luxenburgar*). Gauza bera proposatzen da *Friburgo* (Suitzakoa), *Hanburgo*, *Edinburgo*, *Estrasburgo* eta *Salzburgo* hiriekin. Horietan guztietan, jatorrizko grafiak ere onartzen dira: *Fribourg*, *Hamburg*, *Edinburgh*, *Strasbourg* eta *Salzburg*.

4. Garrantzi handikoak diren beste izen batzuk: *Estatu Burujabeen Batasuna*, *Holanda* (*holandar*, *holandes*), *Ingalaterra* (*ingeles*), *Serbia* (*serbiar*), *Ulster* (*ulstertar*). Halaber, *Pekin*-ekin batera *Beijin* (*beijindar*) ere erabil daiteke.

5. Kultura-kutsuaren aldetik duten garrantziagatik, beste aukera hauek ere har daitezke egoera berezietan: *Azerbaijan* (*azeriar*); *Finlandia* (*suomitar*); *Frantzia* (*galiar*); *Georgia* (*kartveliar*); *Grezia* (*heleniar*); *Hungaria* (*magyar*); *Israel* (*judu*); *Japonia* (*nipondar*); *Kanbodia* (*kanbodiarr*); *Mexiko* (*azteka*); *Mongolia* (*mongol*); *Portugal* (*lusitaniar*); *Uzbekistan* (*uzbeko*).

**39. Zenbait aditzen erregimena**

**Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia ondoko aditz hauen erregimenaz:**

—*gonbidatu* aditzak NOR-NORK eskatzen du: «Mikel gonbidatu dute»

—*iguriki* aditzak NOR-NORK eskatzen du: «Ez dute bertzerik igurikitzen»

—*itxoin* eta *itxaron* aditzek NORK-NORI eskatzen dute objektua dutenean: «Mireni itxoin zioten eguerdiraino». Eta objekturik gabe daudenean NOR-NORK behar dute: «Egongelan itxoin dute goiz osoan»

—*deitu* eta *lagundu* bietara erabil daitezke: «Mikeli deitu diogu», «Mikel deitu dugu»; «Mikeli lagundu diote», «Mikel lagundu dute».

*Tradizioa, irizpideak...*

Zenbait idazle eta irakasleren artean zalantzak sortzen dira askotan aditz batzuen erregimena dela eta. Horrela *gonbidatu diot* bezalakoak entzun daitezke eta, halaber, ez dira falta *nik lagunduko dizut* bezalakoak gaitzesten dituztenak ere. Aditz horietako batzuk alderatuko ditugu hona, literaturan nola erabili izan diren ikusteko.

—**Gonbidatu, gonbidatzen**

Aditz honek *du* eskatzen du, eta ez *dio*, literaturan ageri diren ehundakako adibideek, eta gaurko erabilerak ere, ongi aski erakusten duten gisa. Esan beharra da XVI-XVII. mendetik hona aise erabiliagoa dela aditz hau Iparraldean, Hegoaldean baino (*gomita, gomitatu* formekin gainera). Hona hemen adibide batzuk:

*Sanjuanetan konbidau ninduen* (J. San Martin, 232)

*Jabiak nindun gonbidatu* (Txirrita, 171)

*Aingeruen kantuek gaituzte gonbidatzen* (Echeberri, 7)

—**Iguriki & igurikatu**

*Iguriki* forma guztiz erabilia izan da Iparraldean. Behin batean NORK NORI edo NORK ZERI erregimena zeraman aditz honek, baina XVIII. mendetik hona, NORK NOR edo NORK ZER nagusitu da orotan. Hemendik egin behar da, beraz, batasuna. Esan dezagun, bestetik, *igurikatu* forma aski berria dela:

*Iguriki zinioen tormentan* (Echeberri, 7)

*Iguriki derautazu orai artean* (Materre, 8)

*Ez dut beraz bertzerik igurikitzen* (Haraneder, 45)

*Josepek ez zuen argia iguriki* (Larregi, 47)

*Nik hemen igurikatuko zaitut* (Laphitz, 128)

*Batak bestea igurikatzen zuten* (Mirande, 278).

—**Itxoin, itxoiten**

*Itxoin* forma Gipuzkoan baizik ez da aurkitzen eta hor ere XIX. mendearen bukaeran, euskara mintzatuan, bereziki. NORK NORI erregimena darama beti (*Mikeli itxoingo diot*) non ez den objekturik gabe gertatzen (*Hemen berean itxoingo dut*). Objekturik ez duenean NOR NORK hartzen du. Beraz:

*Arri itxoiten zagon bitartean* (V. Mokoroa, 121)

*Emen itxoingo ziotet beaz gure mutillai* (M. Lekuona, 203)

*Itxoingo diegu guztiai* (A. Labayen, 200)

—**Itxaron, itxaroten**

*Itxaron* aditza, Bizkaian *itxadon* eta Gipuzkoan *itxoin*. Hegoaldeko idazkietan aurkitzen da, bai NORK NORI bai NORK ZER erregi-



menekin erabilia. Euskara baturako proposatzen da bide beretik jarraitzea, hots, objektua baduelarik NORK NORI, eta objekturik ez dagoenean NOR NORK:

*Zeren begira edo zer itxaroten egongo zara?* (Echeita, 159)  
*Artzain txarragan, artalde onik ezin legike itxaron* (Enbeita, 226)  
*Jainkoagan itxaroten dot bere kurutziak eruateko indarra* (J.A. Mogel, 71)  
*Beragandik itxaroten dogu eskatuten doguna* (Astarloa, 67)  
*Gelditu ziran ba bijak, batak bestiari itxaroten* (Kirikiño, 157)  
*Ez erritarren aldetik sari on bat itxaron* (Tx. Agirre, 100)  
*Itxaron barik gizonai* (E. Azkue, 96)  
*Hainbeste itxaron dut!* (Gaztelu, 248)  
*Meza ondoan itxarongo dizut* (J. Echaide, 255)

—**Deitu, deitzen**

Gaur arte dirauen tradizioari jarraikiz Iparraldean DEITU aditzaren erregimena NOR NORK izan da eta Hegoaldean, berriz, aditz berarekin NORI NORK nagusitu da. Euskara batuan bi formak dira onartzeoak:

*Asto bati deitu neike andria?* (J. San Martin, 232)  
*Notarioari deituko deitsagu* (F. Bilbao, 230)  
*Deitu deitsa aitak txakurrari* (Erkiaga, 230)  
*Deitu eutsan Tramanak Manaziri* (Tx. Agirre, 161)  
*Geuk be deitu daiogun txori orren antzera* (K. Enbeita, 149)  
*Askotan deitu zituen munduko guziak bere erreinu berera* (Mendiburu, 33)  
*Zortean deitu izan gintuen* (M. Etchamendy, 220)  
*Horra non jende guziek deituko nauten dohatsua* (Joannategui, 130)  
*Hunetakotzat deitu zuen Noe zeritzan gizon bat* (Axular, 9).

—**Lagundu, laguntzen**

*Lagundu laguntzen* aditzaren erregimena NOR NORI izan da Iparraldean XVII. gizaldi arte; baina geroztik Iparraldeko tradizioaren arabera NORK NOR besterik ez da. Hegoaldean, ordea, NORK NORI da nagusi. Beraz, euskara batuan bi formak dira onartzeoak:

*Izekok lagundu eion auzi orretan* (Echeita, 159)  
*Ama euskarari bizi dan arte egin daiogun lagundu!* (B. Enbeita, 226)  
*Pozik be lagunduko neuskio* (F. Bilbao, 230)  
*Neure Angeru Cuardakoa lagundu egidazu!* (Mogel, 70)  
*Jaungoikoak lagunduko dizu ezegoki gabe eta ondo iritxi zaiten* (G. Arrue, 116)  
*Berak gau eta egun lagunduko dizu* (Agirre Asteasu, 75)

*Badakizu lagundu behar zatzaizkidala* (Materre, 8)  
*Jainkoa heldu eta lagunduko zaiku* (Pouvreau, 16)  
*Nork lagunduko zaika?—Nehork erranagatik ezetz etzaizula la-*  
*gunduko eztuzu sinesten* (Axular, 9)  
*Lagundu nauzu graziaz lagun zakizkit konplitzeko behar den in-*  
*dar guziaz!* (Gasteluçar, 12)  
*Behar dugu guziek elkar lagundu* (Chourio, 25)  
*Jainkoak erran zuen elkar lagunduko duzue* (Duvoisin, 136)  
*Ikusiko dugu nongo jainkoak lagunduko zaituzten!* (Hiribarren, 131)

#### 40. *Topiko(a) bihurtu*

**Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: perpaus baten barnean bi nor-sintagma agertzen direnean, eta horietako bat bestearen predikatu osagarria denean, *bihurtu* aditzak mugagabean eskatzen du predikatu osagarri hori: *ura ardo bihurtu zuten*. Hala ere, sintagma izen soil batek osatu beharrean beste ingururkariz janzen denean, izenondoak, izenlagunak, adjektibo konparatiboak, perpaus erlatiboak, e.a. erabiliz, orduan artikulua eskatzen du askotan. Kasua, berriz, beti absolutiboa erabiliko da: *emakumerik ederrena bihurtu zen*.**

#### *Tradizioa, irizpideak...*

Euskal mugagabearen erabileraren legeak ikertu dituztenek egitura hau aipatzen dute, besteak beste: perpaus baten barnean bi nor-sintagma ager daitezke, eta askotan horietako bat bestearen predikatu osagarria izan ohi da eta mugagabean joan. Hona Etxepareren bertso lerro hau:

*Othoi, Iauna, enguztazu lagun zure sailduiak* (Etxepare, I,72).

«Santuak emazkidazu lagun», alegia. Asko dira egitura hori onartzen duten aditzak, hain iragangaitzak zein iragankorrek: *joan, egon, sartu, jarri, gelditu, egin, hautatu, izendatu, eduki, saldu* eta abar. Hona horietako batzuk:

*ene arreba neska zahar gelditu da*  
*ene laguna apaiz egin da*  
*etxeko alaba neskame joan da*  
*gazteena hautatu dute alkate*  
*Peruk gazteak hartu ditu lagun.*

Aditz horien artean bat *bihurtu* da:  
*ikatza urre bihurtu zuen*

*eguna gau eta gaua egun bihurtu da  
adiskidea etsai bihurtu zaio.*

Arrazoi zuen Mitxelena ohi zuen ironia mingotsez idatzi zuenean «Gramatika aldetik, nolana ere, ongi baino hobeki gabiltza. Badakigu, behintzat, *geniezazkizuekeen* esaten, baldin ederki esana badago. Baita ere, gainera, *topikoa bihurtu da* (ze arraio bihurtu ote da «topiko» hori),...» (MEIG VII. 29. or.).

Buruenean, honen guztiaren ikasgaia hau da: horrelako egituretan izen-sintagma bat mugatua dela beti; bestea, berriz, predikatu delakoa, mugagabea.

Hori da dotrina orokorra eta gehienetan konplitzen dena. Gauzak nahasixeago dira, ordea, aditza *bihurtu* denean. Honekin ere predikatu delakoa gehienetan mugagabea da, bai, eta aski arrazoi dirudi horrek euskara baturako mugagabea gomendatzeko; baina ezin uka batzuetan mugatua ere ager daitekeela. Modu askotara, gainera: ia beti absolutiboan; baina adlatiboan eta inesiboan ere bai (hauek guztiak *OEHTik* hartuak dira):

*Hau Inglaterrako duke-herri BAT bihurtu zen  
...bihotz sendoko gizona haur BAT bihurtua  
...ornament ederrenetarik BAT bihurtu zen  
...ornamentik ederrenaA bihurtu baita  
...emakumerik ederrenaA bihurtu al banendi  
...arnas huts-hutsA biurtu banintz bezela  
Zure bizi moldea guretzat damugarriagoA bihurtzeko  
...biurtu ziraden buztin kolorekoAK  
...biurtu ziran demonio itsusi nazkagarriAK  
...borroka bi anaien artekoA biurtu  
...siñiste gaiztokoA biurtuko litzeke  
  
...seme izateRA biurtzen gaituana  
Amore loi guzia biurtu zitzaion gorrotoRA  
Biurtu zan gobernadoriaren amodijua gorrotoAN  
...ur garbiya ardo oniAN biurtu zuan.*

Predikatua izen soila denean arautzat eman daiteke mugagabea dela: «Eguna gau bihurtu da». Baina izena bestelako ingurukariz (hala nola, ize-nondo, izenlagunez, partizipioz, adjektibo superlatiboz nahiz konparatiboz, eta abar) janztean, hor goiko lehen hamaika etsenpluetan bezala, araua joera hutsa gertatzen da eta mugagabearen ordez predikatua mugatua duten salbuespenak nahitaezkoak dira.

Arraragoak dira, eta horregatik ez ditugu euskara baturako gomendatzen, predikatua kasu adlatiboan edo inesiboan daramatenak, hor goiko azken lauetan bezala. «\*Piztia gizonan» edo «\*gizona munstro batean» edo «\*ametsa topiko batean bihurtu» bezalako perpausak dira bereziki baztertzen ditugunak.

#### 41. Egiteko asmoz

**Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: erabil bitez egiteko asmoz, joateko asmoz, eztabaidatzeko asmoz, e.a., tradizioa duten egiturez baliatuz, eta ez \*joan asmoz, \*egin asmoz, \*eztabaidatu asmoz.**

*Tradizioa, irizpideak...*

Asko zabaldu da azken urteetan «partizipio burutua + *asmoz*» egitura:

—*Ama ikusi asmoz joan nintzen hara.*

Autore gehienek, ordea, *-tzeko asmoz, asmo(t)an, asmoarekin...* idatzi dute:

—*Joan zen andik beste gauzarik Erroman ekusi bage bere errira itzultzeko asmoan* (Mendiburu).

—*Kontu andijagaz ibilteko asmoz, duanak alango danzeetara, pekatu loijari gorroto deutsala, librau leite pekatuti* (Mogel).

—*Kupiturik sartzan du /gaisoak kolkoan / ango beroarekin / pizteko asmoan* (Iturriaga).

—*Etxe baten egiteko asmutan* (Duvoisin).

—*Izan bere bekatuen damu egiazkoa bizitza ondotzeko eta Eliza ama sainduak agintzen duenean konfesatzeko asmoarekin* (Legaz).

—*Multzo-teoria batez ere zelatan dago beti alde eta aldi oro linguistika osoaren oinarri bihurtzeko asmotan edo* (Mixelena).

Hala ere, badira «partizipioa + *asmoz, asmotan*» egitura erabili dutenak ere (*Mun egin gogoz ta asmoz Jesusen llagaren bat*, Añibarro). Gutxi dira, ordea, goikoekin alderatuz gero.

Badirudi bi egituren arteko desberdintasuna, bataren ugaritasuna eta bestearen urritasuna, beste bikote bati loturik azal daitekeela:

a) *etortzeko asmoa dut*

b) *etorri asmo dut.*

Izan ere badira zenbait izen —*asmo, gura, gogo, nahi* edo *behar—izan* (\**edun*) aditzarekin perifrasiak osa dezaketenak eta, horrenbestez, aurretik partizipioa har dezaketenak:

a) *etorri asmo du*

b) *etorri gura du*

c) *etorri gogo du*

d) *etorri nahi du*

e) *etorri behar du.*

Aditz perifrasi horien ondoan, «partizipioa + izena» egiturako izen elkartuak ere osa daitezke,

- a) *etorri asmoa*
- b) *etorri gura*
- c) *etorri gogoa*
- d) *etorri nahia*
- e) *etorri beharra*.

Aldi berean, perifrasi guztiak ez dira emankortasun-maila berekoak. *Behar*, *nahi* eta *gura* izenekin egunorokoak ditugu; ez, oster, *gogo* eta *asmo* izenekin. Azken bi hauekin, askoz maizago esan eta idatziko dugu *etortzeko gogoa / asmoa dut*, *etorri gogo / asmo dut* baino (nahiz badiren literaturan halako perifrasiaren lekukotasunak, Lardizabal, Etxaide edo Mitxelenarenak, besteak beste). Eta hortaz, *etorri gogoa* eta *etorri asmoa* ere askoz bakanago aurkituko ditugu, *etortzeko gogoa* edo *etortzeko asmoa* maizenak izanik.

#### 42. *Lehenago etorriko zen; lehenago asmatuko zuen*

**Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: *Hau jakin (izan) banu, etorriko nintzatekeen; berehala esango niokeen, etab. nahiz hau jakin (izan) banu, etorriko nintzen; berehala esango nion, etab. biak, ontzat ematen dira.***

*Tradizioa, irizpideak...*

Bi esaldi hauek ontzat ematen ditu Euskaltzaindiak:

—*Garaiz esan bagenio, lehenago etorriko zatekeen.*

—*Garaiz esan bagenio lehenago etorriko zen.*

Bigarren moldea, zalantzarik gabe, lehena baino maizago aurkitzen da edozein euskalkitan edo erregistro-mailatan. Hortaz, ez da ikusten erabilpen hori gaitzesteko edo ez bultzatzeko arrazoirik.

Zenbait gramatikarik normaltzat jo izan dute *etorriko zen* forma ezinezko ondorio direlakoetan, hala nola Lafittek (*Grammaire*, 376-7) eta Gramatika batzordeak (*EGLU*, II, 431). Bestalde, esan behar da Altube (*Erderismos*, 230) eta Txillardegi (*Oinarri bila*, 143), besteak beste, hemen ontzat emandako formaren, adiera horretan noski, baztertzearen alde egon izan direla.

Iragan-geroa delakoa (adibidez, *etorriko zen*) hemen interesatzen zaigun erabileran (besteak baditu eta: ikus *EGLU* II, 425), baldintzako ondo-

rioetan ez ezik, baldintzarik aipatzen ez den zenbait perpaus-motatan ere erabili ohi da, hala nola: *Oso gustora geldituko nintzen berarekin egun hartan; nork esango zuen hau gerta zitekeela; Beharbada berriro saiatu beharko genuen*. Beti gertatu ez zen ekintza edo egoera hipotetiko batez ari gara, hau da, mundu irreal bateko gertakariak aipatzen ditugu forma hauen bidez (egiazko munduan, ostera, *ez nintzela berarekin gelditu; inork ez zuela esan eta berriro saiatu ez ginela* presuposatzen dute perpaus hauek).

Haatik, beste modu-nozio bat adierazteko, gertakari hipotetikoak baina gerta litezkeenak aipatzen dituena, alegia, iragan-geroaz baliatzea onartezina da goi-mailako euskaran: beraz gaitzetsi behar dugu:

—\*orain bertan txuleta eder bat jango nuen

esan nahi delarik:

—orain bertan txuleta eder bat jango nuke.

#### 43. *Arazi* aditzaren erregimena

Hau da, horrenbestez, Euskaltzaindiaren erabakia *arazi* aditz arazlearen erregimenaz:

1. *Arazi*-ren subjektua beti ergatiboan doa: *Koldok* *etorrarazi du Mikel*.
2. Oin-aditzaren objektua beti absolutiboan: *Sagararak* *salarazi ditugu*.
3. Oin-aditza iragankorra denean, subjektua datiboan daralma: *Niri* *liburua irakurrarazi zidaten*.
4. Oin-aditzaren subjektua absolutiboan doanean, absolutiboan ageri da perpaus kausatiboan ere: *Mikel* *jarrarazi dute*.
5. Oin-aditzaren subjektua ergatiboa baldin bada eta agerian objekturik ez badu, bi egoera bereizi behar dira:
  - a) Objektua ezabatua edo aditzari atxikia duten aditzekin datiboa eskatzen du subjektuak: *Mikeli* *janarazi diote; Mikeli irri eginarazi diote*.
  - b) Sekula objekturik hartzen ez duten aditz deponentekin, aditzaren izaera semantikoa kontuan hartu behar da. Aditzak subjektu biziduna eskatzen duenean, datiboan ageri da (*Inori* *ez diogu pairarazi behar*), baina subjektua bizigabea bada, absolutiboa (*Ura* *irakinarazi dute*).

*Tradizioa, irizpideak...*

*Arazi* aditz arazlea izanik beste aditz batekin batean agertzen ohi da, biek bat egiten dutela adizkera kausatiboa moldatuz<sup>14</sup>.

*Arazi* ergatiboa manatzen duen aditza da eta, ondorioz, arazlea adierazten duen sintagmari marka ergatiboa lotzen zaio. Ez da horretan arazorik (*Jonek jakinarazi du*).

Buruhauste batzuk agertzen dira, ordea, zenbaitetan, *arazi*-rekin batean, honi eratzekirik agertzen den aditzaren erregimenak sortuak: zein kasu eman behar zaie perpaus kausatiboetan, bigarren aditz honen osagarri gramatikalei (esan nahi baitu gramatikazko kasua dakartenei)?:

—*Jonek Mireni etorrarazi dio*

edo

—*Jonek Miren etorrarazi du*

esan behar da? Edo biak dira ontzat ematekoak?

Gehienetan euskalki guztiek jokabide bera baldin badute ere puntu horretan, batzuetan ez da horrela gertatzen eta dudak izan ditzake batek osagarri horietarik batzuk kausatiboetan nola agertu behar diren finkatzera-koan.

1. Lehenik kezkarik sortzen ez duten elementuak laburki bederen aipa ditzagun.

1.1. Aditz eratxekiaren objektuen kasuan, euskalki guztiak bat datoz: objektu zuzenak —3. pertsonakoak dira beti perpaus kausatiboetan— absolutiboan agertzen dira:

—Sagarrak *janarazi dizkidazu*

—Liburua *irakurrarazi dizut*.

Izen-sintagma objektua biziduna denean berdin gertatzen da:

—Haur sortu berria *medikuari ikerrarazi zioten*

—Haur guztiak *elkarretararazi zizkieten irakasleari*.

Aditz eratxekiaren zeharkako objektuen kasua piska bat desberdina da, zeren arras gutitan agertzen baitira hauek perpaus kausatiboetan. Halere, bazterreko aukera izanagatik, badirudi testuinguru egokietan onartzeoak direla (ik. *EGLU II*, 62.or.<sup>15</sup>).

<sup>14</sup> Hala ere, bizkaieraz *erazo* aditza bakarrik ere agertzen da batzuetan, orduan *eragin* edo *eginarazi* esan nahi duelarik: *Erazo eikiozuz zeure biotzari iru gauza orreek* (Añibarro).

<sup>15</sup> *Apezari aitorrarazi didate nire bekatu handia; salgai nuen landa Mikeli salarazi didate modukoak onargarriagoak dira hurrengo baina: ? Aitari liburua emanarazi diote Joxeri*.

1.2. Aditz eratzekiari dagokion subjektuarekin ere arazorik ez da agertzen, aditz eratzekia iragankorra denean. Datibo gisa agertzen da orduan beti haren subjektua perpaus kausatiboetan:

—*Niri irakurrarazi zizkidaten amaren gutunak.*

Adibide horretan *Niri* sintagma *irakurri* aditzaren subjektua da, baina sintagma datiboa da perpaus kausatiboan.

2. Arazoak ororen buru aditz eratzekiaren subjektua absolutiboa denean, edo aditz eratzekiak subjektu ergatiboa izanik objekturik ez duenean agertzen zaizkigu. Bi egoera hauek aldizka azter ditzagun:

2.1. Aditz eratzekiaren subjektua absolutiboa denean

Tradizio nagusiaren arabera, aditz eratzekiaren subjektua NOR sintagma denean, absolutiboan gelditzen da perpaus kausatiboan:

—*Etorri zara etorrarazi zaitudalalako*

—*Mintzaraziko zaitugu*

—*Langileak lanari jarraikiarazi zituzten.*

Mendebaldeko zenbait euskalkitan datiboa erabiltzeko joera agertzen da holakoetan, aditz eratzekiari dagokion NOR sintagma biziduna edo pertsona denean:

—*Alakoari alde eragin eta erbestean bizi-erazi bear genioke* (J. Zaitegi, *Platoneneko atarian*)

Bigarren bide hau euskara batuarentzat ez bide da gomendatzekoa, euskalki horietan ere absolutiboaren atxikitzea izan baita joera nagusia, hala bizigabeekin, nola bizidunekin eta pertsonekin:

—*Etzaitut gogait arazi nai* (A. Labayen, *Su emailleak*)

—*Jenarorekin ezkondu arazi nai nautelako* (T. Alzaga, *Burruntziya*).

Esan gabe doa azken jokabide hau dela Iparraldean kausitzen den bakarra.

2.2. Aditz eratzekiak subjektu ergatiboa izanik objekturik ez duenean.

Hiru egoeratan agertzen ahal da aditz ergatiboduna ondoan objekturik izan gabe: aditz deponente delakoekin (*iraun*, *irakin*, *urten* (mendebalean), ...), objektu zehaztugabea ezabatua izan dezaketen aditzekin (*jan*, *edan*, *kantatu*...) eta objektua lokuzio batean aditzarekin bat egina duten aditzekin (*irri egin*, *hitz egin*, *min hartu*...).

2.2.1. Objektu zehaztugabea ezabatua duten aditzekin, edo objektua aditzari lotua duten aditzekin, subjektu ergatiboa datiboan agertzen ohi da perpaus kausatiboetan. Hori da, bederen, joera nagusia:



- Gizon horrek irri eginarazten dit*
- Euskaraz hitz eginarazi ziguten*
- Haurrei ongi janarazi behar genieke.*

Iparraldean beste joera bat ere kausitzen da batzuetan, subjektua absolutiboan emanik: *irri eginarazten nauzu, behiak edanarazi ditugu*. Badirudi joera berria dela hau, eta ez osoki zabaldua. Batasuna zen tokian zatiketa ekartzen duenaz gero, bide hau ez da gomendatzekoa euskara batuan.

2.2.2. Sekula objekturik hartzen ez duten aditz deponenteen kasuan gauzak are nahasiagoak dira. Aditzak subjektu biziduna eskatzen duenean, datiboan agertzen ohi da hura perpaus kausatiboetan<sup>16</sup>. Alderantziz, subjektu bizigabea eskatzen duenean, absolutiboan ematen ohi da<sup>17</sup>. Horrela *irakin* eta *sofritu* aditzen subjektuak, adibidez, molde desberdinetan agertzen ohi dira perpaus kausatiboetan:

- Ura irakinarazi behar da lehenik*
- Inori ez diogu debaldetan sofriarazi behar.*

Aditz deponenteez ari baikara, gogorarazi behar da, bestalde, euskalki guztiak ez datozela bat aditz deponenteen finkatzeko orduan. Adibidez *bazkaldu* edo *afaldu* aditzak NORK aditzak dira mendebaldean, eta NOR aditzak berriz ekialdean. Halaber, *irten / urten* aditza ergatiboduna da toki batzuetan eta ergatiborik gabea beste batzuetan. Erran gabe doa, araberan aldatzen direla aditz horiek perpaus kausatiboetan dituzten erregimenak.

*Bazkaldu* NOR aditz gisa darabilten euskalkietan absolutiboan agertzen da haren subjektua perpaus kausatiboetan. Aitzitik, aditz hori NORK aditz gisa darabilten euskalkietan, datiboan ematen ohi da:

- Bazkaldu ez bazara, orain bazkalaraziko zaitut*
- Bazkaldu ez baduzu, orain bazkalaraziko dizut.*

#### 45. Gure egitura politiko batzuen euskal izenez

**Beraz, hauek dira Euskaltzaindiak gomendatzen dituen izen ofizialak, hitz hauek Euskal Herriko hiru eremu politikoetan oinarritzen direlako eta bi erkidegoen arteko hizkuntzaren batasuna bultzatzen dutelako:**

*Nafarroako Foru Erkidegoa*  
*Euskal Autonomia Erkidegoa.*

<sup>16</sup> Iparraldeko zenbait mintzamoldetan joera nabaria da aditz deponenteen subjektu bizidunak bizigabeak bezala absolutiboan uzteko (*Sofriarazi ninduten*).

<sup>17</sup> Mendebaldean aditz deponenteen subjektu bizigabeak ere datiboan agertzen dira batzuetan (...*aita izan nai du ta onela bere biziari iraurarazi ondorengo bitartez*).

*Tradizioa, irizpideak...*

Euskaltzaindiari aspalditik egin zaizkio galderak eguneroko ihardue-  
ran asko erabiltzen ditugun zenbait hitzi buruz. Horien artean sartzen dira  
izen ofizial batzuk, hala nola, *Nafarroako Foru Komunitatea*, *Euskal He-  
rriko Autonomi Elkarte*, *Europako Ekonomi Elkarte*, e.a. Hitz hauekin  
behin baino gehiagotan sortu izan dira kezka idazleen eta kazetarien arte-  
an ere.

Oro har, bada zerbait harrigarria Nafarroako eta mendebaldeko hiru  
herrialde historikoetako euskaldunak kontu hauetan bat ez gatozenez:  
gauza bakarra adierazi nahi denean, bi izen erabiltzen dira inolako premia-  
rik gabe, batean *komunitate* deitzen zaion bitartean (*Nafarroako Foru Ko-  
munitatea*) bestean *elkarte* esaten baitzaio (*Euskal Herriko*—edo *Euskadi-  
ko*—*Autonomi Elkarte*). Bada hemen, Euskaltzaindiaren ustez, zerbait  
zuzentzekoa.

*Elkarte* hitza da azken urteotan gehien erabili izan dena *komunitate* er-  
dal hitzaren ordainez, XIX. mendean Europan sortu zen *komunitate* kon-  
tzeptua adierazteko; baina *komunitate* hitza, erdal hitza baldin bada, *elkar-  
te* hitza, ostera, orokorregia da eta zabalegia, parean jartzen baititu, azken  
batean, «muslarien elkarteak», «Europako elkarteak» eta «Euskadiko elkar-  
teak» ere, horiek ezin direlarik, inola ere, maila berean jarri. Bistan da kan-  
tari batzuen elkarteak maila apalagoa duela Euskadikoak edo Europakoak  
baino.

Batasuna nahi badugu, eta Euskaltzaindia hizkuntzaren ikuspuntutik  
bakarrik mintzo da, hitz bakarra bultzatu behar dela dirudi. Eta hitza bila-  
tzeko orduan, badirudi, euskarak duen altxor aberatsean bilatu beharko  
dela.

Bada hor oso ongi egokitzen den tradizio handiko hirugarren hitz bat,  
erdarazko *komunitate* eta zabalegia den *elkarte* hitzez bestelakoa: *erkide-  
go* da hitz hori, Espainiako Konstituzioaren itzulpenean ere esanahi hone-  
kin erabili izan dena (*komunitate politikoa* adierazteko) eta arazoa konpon  
lezakeena. Hitz honek bereiziko lituzke egunoroko elkarte arruntak eta po-  
litika-mailakoak. Hortaz, hitz hau erabili beharko litzateke *elkarte* hitza-  
ren ordez *komunitate politikoa* oro har adierazteko.

Bestetik, Euskaltzaindiak aukeran utzi bazuen ere *autonomi* nahiz *au-  
tonomia* erabiltzea hitz-elkarteetan, kasu honetarako *autonomia* hobetsi  
du. Aldi berean, *Euskal Herri* eta *Euskadi* baino egokiago ikusten du *Eus-  
kal* hitza erabiltzea. Proposamen honek, bere osotasunean harturik, gaine-  
ra, ez lituzke egungo siglak aldatuko *EAE*-ren kasuan.

#### 47. Hizkuntza hilak eta klasikoak

akadiera (Mesopotamia)	hurriera (Mesopotamia)	pehleviera (Pertsia)
akitaniera	iberiera	prakrito (India)
avestera (Pertsia Zaharrekoa)	indoeuopera / indoeuopar hizkuntza	sanskrito
dalmaziera (Kroazia)	koptoera (Egiptoko kristauen erlijio-hizkuntza)	sumeriera (Mesopotamia))
egiptoera	kornubiera <sup>18</sup>	tokhariera (Pamir, Txina aldean))
Eskoziako gaeliko <sup>19</sup>	latin	tximuera (Peru)
etrusko	lidiera (Anatolia zaharrekoa)	ugaritera (Siria)
feniziera	likiera (Asia Txikia)	urartuera (Mesopotamia))
gotiko	lupitera (Anatolia)	vediko (India zaharra)
greziera / greko	manxera (Manx uharteko gaelikoa)	volapük
hatiera (= aurrehitiera)	meroera (Nubiakoa)	zeltiberiera
hitiera	paliera (Indiakoa)	

#### 49. -ARI (-lari) ATZIZKIAZ

Hau guztia kontuan izanik, hauxe erabakitzen du Euskaltzaindiak:

1. Erabil bedi *-ari* forma, *-a* bokalaz amaitzen diren izen oinarriari eransteko, batez ere bi silabatik gorakoak direnean. Beraz, *gramatikari* edo *politikari* erabil bitez batasunerako (eta ez *gramatikalari* edo *politikolari*).  
*-ia* amaierako izenekin, *-ialari* hobesten da: *historialari*, *zientzialari*.

<sup>18</sup> Kornubia edo Kornualles-ekoa.

<sup>19</sup> *Eskoziara*, aldiz, gaur egun han egiten den ingeles dialektala da.

2. Era berean, erants bekio *-ari* atzizkia izenari, eta *-le* edo *-tzaile* atzizkiak, berriz, aditzei. Hortaz, *hezle*, *hezitzaile* edo *ikertzaile* dira batasunerako formak, *hezi* eta *iker(tu)* aditzak baitira.

Aditz batek adiera bat baino gehiago izan dezakeenean, zilegi izan daiteke adiera batean *-le* edo *-tzaile* eranstea, eta *-ari* beste adieran: *idazle* / *idazkari*, *zuzentzaile* / *zuzendari*.

*Tradizioa, irizpideak...*<sup>20</sup>

Bi puntu dira atzizki honen inguruan arautu beharrekoak: formari dagokiona bata —noiz *-ari* eta noiz *-lari*—, eta oinarriaren kategoriari buruzkoa bestea —nola behar du: *ikerlari* ala *ikertzaile*?—.

### 1. *-ari* eta *-lari* formen arteko banaketa:

Gaur egun auzia *-ari* eta *-lari* formen arteko banaketan dugu, *-lari* aldaera nagusitzen ari baita: *segari* forma zaharraren ondoan *segalari* nagusitu zaigu; *jokari* eta *jokalari* ere hor ditugu lehian, e.a. Hitz berriak eratzeko orain arteko jokabidea eredu hartzen badugu, gomendioa hau izango litzateke:

**-a + -ari:** izen oinarria *-a* bokalaz amaitzen denean, eta batez ere bi silaba edo gehiagoko oinarrietan:

*dantzari, tabernari, pilotari, dendari, errotari*

e.a. bezala, berrietan ere. Hortaz:

*fisikari, politikari, gramatikari, kritikari.*

Halakoa izan da azken urteetako jokabidea ere. Honek ez du esan nahi, jakina, oso sartuak dauden *hizkuntzalari, pentsalari* bezalakoak aldatzen hasi behar denik.

*-ia* bukaerako oinarrietan *-a* galdu gabe emango da:

*ekonomialari, zientzialari, historialari...*

<sup>20</sup> Txosten honetan eztabaidatzen dena *-ari* eta *-lari* atzizkien erabilera da, ez besterik. Horrela eraturiko izenak dira eztabaidagai. Badira beste hitz asko beste modu batera ere sor daitezkeenak: *filosofo, teologo, biologo, kritiko, politiko, pianista, kritikagile, historiagile, armagin, musikagile*, etab. Hitz hauek guztiak Euskaltzaindiko Hiztegi Batuko batzordeak aztertuko ditu eta ikusiko batasunerako onargarri diren ala ez.

Gainerakoetan ez dirudi gomendio orokorrik eman daitekeenik, baina oro har *-lari* da nagusitzen ari den forma: *txotxongilolari*...

## 2. Oinarriaren kategoria:

*-ari* atzizkiaren oinarria izen-kategoriakoa izan da, eta aditzoin-kategoriako oinarriari *-le* edo *-tzaile* erantsi izan zaio. Izena izateaz gainera, arrunta eta bizigabea tasunak izaten ditu *-ari*-ren oinarriak. Hala ere, honek ez du esan nahi edozein izen arrunt, bizigabek har dezakeenik *-ari*: guztiok baitakigu *\*mahaiari* edo *\*ardolari* bezalakorik ez dela sortzen. Bidezko dirudi, beraz, hala egitea aurrerantzean ere eta *ikertzaile*, *hezle* edo *hezitzaile* esatea, ez *ikerlari* edo *hezilari*. *Aurkezle* hobe, *aurkezleri* baino, etab. Erabat sartua dugun *gidari*, *pentsalari* eta besteren bat ere bere horretan utz daitezke, noski.

Dena dela, badira aditzoin berari bi atzizkiak, *-le* eta *-ari*, erantsiz sortutako izen bikoteak ere, esanahi diferentea dutenak. Horrelako kasuetan zilegi da aditzoin berari *-le* edo *-tzaile* eta *-ari*, biak eranstea:

*zuzendari / zuzentzaile*

*idazkari / idazle*

*zaindari / zaintzaile*

etab.

## 50. -ARI / -ARIO

**Orain arte esanak gogoan izanik, honako arau hau ematen du Euskaltzaindiak:**

**Erdal *-ario/-aire* atzizkiez osatutako izen-izenondoak *-ario* forman, eta ez *-ari* forman, mailega bitez:**

- izenen artean *notario*, *komisario*, *unibertsitario*, *funtzionario*, *kortsario*, *mertzenario*, etab. (salbuespenik balego, hiztegi batuan zehaztuko dira albuespen hauek bere garaian);
- izenondoetan, (*talde*) *parlamentario*, (*sistema*) *planetario*, (*jokabide*) *sektario*, etab. Baina ahal dela, maileguz hartutako erdal izenondoen ordez, hobe euskal egituraren arabera-ko ordainak erabiltzea: *talde parlamentario* esan beharrean, *parlamentu(ko) talde*, edo *sistema planetario* esan beharrean, *planeta-sistema* edo *planeta sistema* esatea egoakiagoa da. Gauza bera *aldizkari unibertsitario*-ren kasuan ere, egokiagoa baita *unibertsitate(ko) aldizkari* erabiltzea.

*Tradizioa, irizpideak...*

Joera nabarmena izan da azken urteetan, lanbidea adierazten duten erdal maileguak (batez ere erdaraz atzizkia dutenak direnean), *-ari* amaieraren bidez egokitzeko. Behin baino gehiagotan entzun eta irakurri ditugu: *enpresari, komisari, tripulari, unibertsitari, funtzionario*, etab. Ez da erabateko jokabidea izan ordea, *unibertsitario, funtzionario* edo *mertzenario* ere ez dira-eta zeharo arrotzak.

Bestalde, erdaraz *-ario* atzizkiaz izenak eta izenondoak sor daitezke: goiko adibideen ondoan, *humanitario, hipotecario, (grupo) parlamentario...* ere badira. Izenondo hauekin ere jokabide bikoitza izan da, bietara entzuten baitugu *talde parlamentario* nahiz *talde parlamentari*. Egia da *-ari*-rekin osatzen ditugun hitzak behin baino gehiagotan izenondo modura-edo erabiltzen ditugula; aspaldikoak dira, gainera, halako adibideak (ikus Axularren *esku trabailari* eta *hitz jokolari*). Erdal *-ario* izenondoak, ordea, izenondo erreferentzialak direnez, urrun samar geratzen dira (askotan behintzat) euskal *-ari* atzizkiaren esanahitik. Zer zentzu dute *borroka proletari* edo *sistema planetari-k*? «Proletan ari den borroka» eta «planetan ari den sistema»? Betiko erabileretan, aldiz, *gizon bertsolari* «bertsotan ari dena», *hitz jokolari* «jokoan ari dena», *zakur zaunkari* «zaunka ari dena», etab. bezala uler daitezke.

***-ario /-aire atzizkiez osatutako izenondoen mailegatzeaz:***

*-ari / -ario* auzian, beraz, hau litzateke lehen gomendioa: erdal *-ario/-aire* atzizkiez osatutako izenondoak *-ario* forman mailegatu:

*autoritario, estatutario, finantzario, frakzionario, hipotekario, humanitario, komunitario, monetario, parlamentario, primario, sektario, sekundario, solidario, unitario...*

Nolanahi ere, ahal denean, maileguz hartutako erdal izenondoen ordez, hobe euskal egituraren araberrako ordainak erabiltzea: *talde parlamentario* esan beharrean, *parlamentu(ko) talde*, edo *kreditu hipotekario* esan beharrean, *hipoteka-kreditu*; *aldizkari unibertsitario* baino, hobe *unibertsitate(ko) aldizkari*.

***-ario /-aire atzizkiez osatutako izenen mailegatzeaz:***

Datuen azterketa:

Horrelako erdal maileguak euskal literatura-tradizioan nola ageri diren aztertuz gero, *OEHko* eta *EEBSko* (*Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoko*) corpusek erakusten dute *-ario* forma dela ia bakarra Hegoaldean (azken urteak kenduaz, jakina). Iparraldean ere ez da ezezaguna. Egia da, bestalde, izen gutxi direla—dozena-erdi bat inguru—tradizioan ditugunak (*bikario, botikario, boluntario, komisario/komisari, notari* (ipar.)/*notario* (heg.), *sekretario/sekretari*). Datu hauen aurrean, garbi samar ikus-

ten da, *-ario* izan dela Hegoaldeko joera nagusia eta baita Iparraldekoa ere behin baino gehiagotan. Batasunerako gomendioak ematean erabiltzen dugun irizpidea hartuz gero, ez legoke zalantzarik *-ario*-ren aldeko gomendioa emateko.

## 51. Kontinenteak, geografia-izen batzuk eta herritarren izenak

### **Europa:**

**Ipar Europa,  
Hego Europa,  
Ekialdeko Europa,  
Mendebaldeko Europa,  
Erdialdeko Europa.**

### **Asia:**

**Asia Txikia**

### **Eurasia.**

### **Afrika.**

### **Amerika<sup>21</sup>:**

**Ipar Amerika,  
Hego Amerika  
Erdialdeko Amerika.**

### **Ozeania:**

**Antartika** (baina adjektiboa denean «**Antartiko**»:  
«**Ozeano Antartikoa**». Bide beretik «**Ozeano Ar-  
tikoa**»)  
**Ekialde Hurbila.**  
**Ekialde Urruna.**

**europar,  
asiar,  
eurasiar,  
afrikar,  
amerikar<sup>22</sup>  
ozeaniar**

<sup>21</sup> Geografia-zentzu hertsian kontinenteari Amerika deitu arren, horrek ez du eragozten, hizkuntza mintzatu eta idatzian pluraleko formak ere erabiltzea (*Ameriketara joan nintzen, Ameriketatik etorri da...*) inguruko erdaretan egin ohi den bezala: *Hacer las Américas, Irse a las Américas, Aller aux Amériques, il vient des Amériques...*

<sup>22</sup> *Amerikano* hitza ere bada, noski, eta aspaldian Europatik Ipar Ameriketara bizimodu hobe baten bila joandakoa aipatzeko erabiltzen da: *osaba amerikanoa, euskaldun amerikanoak...* Ameriketara, orohar, joandakoari *indiano* esan ohi zaio.

52. Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak)

Nazio bat baino gehiago hartzen dutenak:

MENDIAK	IBAIAK <sup>23</sup>	ITSASOAK
Alpeak (Alpe mendiak)	Amazonas	Adriatikoa (Itsaso Adriatikoa)
Dinariar Alpeak	Danubio	Arabiako Itsasoa edo Omango Itsasoa
Dolomitak (Dolomita Alpeak)	Ebro	Ozeano Atlantikoa
Glarisko Alpeak	Ibai Beltza	Ozeano Australa
Hegoaldeko Karpatoak edo Transilvaniako Alpeak	Ibai Gorria	Baltikoa (Itsaso Baltikoa)
Karpatoak (Karpato mendiak) (Ozeano Pazifikoa)	Ibai Horia	Ozeano Barea
Erdialdeko Mendigunea (Massif Central)	Ibai Urdina edo Yangzi	Bizkaiko Golkoa
Metal mendiak	Miño	Indiako Ozeanoa
Pririnioak (Pirinio mendiak)	Mosa	Ipar Itsasoa
Rhetiako Alpeak	Mosela	Itsaso Beltza
Transilvaniako Alpeak edo Hegoaldeko Karpatoak	Rhin	Itsaso Gorria
	Rodano	Itsaso Hila
	Tajo	Itsaso Horia
		Itsaso Zuria
		Itsaso Jonikoa
		Kaspiar Itsasoa
		Liongo Golkoa
		Mediterranea (Mediterraneo Itsasoa)

<sup>23</sup> Hauetan guztietan «ibai» hitza jar daiteke atzean: «Amazonas ibaia», «Ebro ibaia», etab.



### 53. Munduko estatuetaiko hizkuntza ofizialak

<b>afrikaans</b> <b>aimara</b> (Bolivia, Peru) <b>albaniera</b> <b>aleman</b> <b>amharera</b> (Etiopia) <b>arabiera</b> <b>armeniera</b>	<b>indonesiera</b> <b>ingeles</b> <b>inuitera</b> <b>islandiera</b> <b>italiera</b>	<b>samoera</b> <b>serbokroaziera</b> <b>shotoera</b> (Lesotho) <b>somaliera</b> <b>suediera</b> <b>swahili</b> <b>swaziera</b> (Swazilandia)
<b>bengaliera</b> (Bangladesh) <b>bielorrusiera</b> <b>birmaniera</b> <b>bislamera</b> (Vanuatu) <b>bulgariera</b>	<b>kartveliera</b> (=georgiera) <b>katalan</b> (Andorra) <b>kannadera</b> (India) <b>kazakhera</b> <b>kaxmirera</b> (India) <b>kitxua / runa simi</b> (Peru, Bolivia, Ekuador) <b>khemerera</b> <b>koreera</b> <b>kreolera</b> (Haitiko kreolera)	<b>tagalo</b> <b>tamilera</b> (India, Sri Lanka) <b>teluguera</b> (India) <b>thaiera</b> (Thailandia) <b>tibetera</b> <b>tigrera</b> (Etiopia) <b>tongera</b> (Tonga) <b>turkiera</b> <b>turkmeniera</b> <b>txekiera</b> <b>txetxeniera</b> <b>txetxeno-inguxera</b> <b>txinera</b> (mandarinera)
<b>daniera</b> <b>dariera</b> (Afaganistan) <b>divehiera</b> (Maldivak)	<b>laosera</b> <b>letoniera</b> <b>lituaniera</b>	<b>ukrainera</b> <b>urdu</b> <b>uzbekera</b>
<b>errumaniera</b> <b>errusiera</b> <b>eslovakiera</b> <b>esloveniera</b> <b>espainiera / gaztelania</b> <b>estoniera</b>	<b>malgaxera</b> <b>maltera</b> (Malta) <b>maoriera</b> <b>maratiera</b> <b>mazedoniera</b> <b>moldaviera</b> <b>mongoliera</b>	<b>vietnamera</b>  <b>xhosa</b> (Hego Afrika)
<b>fangera</b> <b>farsiera</b> (Iran) <b>finlandiera / suomiera</b>	<b>nederlandera</b> <b>norvegiera</b>	<b>zingaliera</b> <b>zuluera</b>
<b>gaelera / gaeliko</b> (Eskoziakoa edo Irlandakoa) <b>garoera</b> (Bangladesh) <b>gaztelania / espainiera</b> <b>georgiera</b> (= kartveliera) <b>greko / greziera</b> <b>guarniera</b> (Paraguai) <b>gujeratiera</b> (India)	<b>punjabiera</b> (India) <b>paxtoera</b> <b>persiera</b> <b>poloniera</b> <b>portuges</b>	
<b>hausa</b> <b>hebreera</b> <b>hindi</b> <b>hungariera</b> (Magyarrera)	<b>rapanuiera</b> <b>rundiera</b> (Burundi)	

## 57. Euskal herrialdeen, herritarren eta euskalkien izenak

Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia probintzien, herritarren eta euskalkien izenez:

HERRIALDEA	HERRITARRA	EUSKALKIA
Araba	arabar	Arabako euskara
Bizkaia	bizkaitar	bizkaiera
Gipuzkoa	gipuzkoar, giputz	gipuzkera
Lapurdi	lapurtar	lapurtera
Nafarroa (Garaia)	(Hegoaldeko) nafar Nafarroa Garaiko	(goi) nafarrera (goi-)nafarrera
Nafarroa Beherea Baxenabarre	(Iparraldeko) nafar Nafarroa Behereko baxenabartar	(behe) nafarrera (behe-)nafarrera
Zuberoa	zuberotar	zuberera

*Tradizioa, irizpideak...*

Ez zaizkigu era bakar batean heldu Euskal Herriko probintzien izenak, ezta herritarrenak eta euskalkienak ere. Baina literatura-tradizioari so egin ez, halaber egungo erabilera kontuan hartuz, garbi dago ez garela batasunetik zenbaitek uste dezakeen bezain urruti, bizpahiru izenetan dagokeen zalantza gorabehera.

Probintziaz probintzia goazelarik, eta lekukotasunen mukuruan galdu gabe, honako hau aipa daiteke:

1. *Araba* da, jakina, probintziaren izena euskaraz, < *Alaba*, jatorrian latinezko *planus*-ekin lotua. Halaz guztiz, leku askotan arrunta den *Araba-herria* deitura (gogora bedi Axularren *Alaba-herria*) ez da gaitzestekoa.

Herritarra *arabar* da (cf. *Orti Arauarra*, 12. mendean). *Arabatar* alderak ez du inolako pisurik euskara jasoan.

Euskalki zaharra, eta, batez ere, Mediterraneoko isurialdekoa, izendatzeko, *Arabako euskara* da, Euskaltzaindiaren iritziz forma egokiena, azken urteotan erabili den eta nahasgarri gerta daitekeen *arabera* formaren aldean.

2. *Bizkaia* izenaren inguruan ez da ezein dudarik agertzen. Garai batez hitz arrunta zen honetan, *bizkar* hitzaren kidekoa, dirudienez (cf. *Iheldo Bizchaya*, 1141. urtean, egungo *Igeldo*; Nafarroako *La vizcaya* eskualdea; *Biscaye*, etab.), ez da ahantzi behar *a* hori artikulua dela, eta horrenbestez, lekuko kasuetan *Bizkaiko*, *Bizkaitik*, *Bizkaian*, *Bizkai osoa*) direla forma zuzenak.

Herritarra *bizkaitar* deitzen da.

Euskalkiaren izena *bizkaiera* da. Bereizi behar denean *Ekialdeko, Mendebaldeko*, e.a. ezar daiteke aurretik.

3. *Gipuzkoa* da euskara jasoan gomendatzen den probintziaren forma (*Ipuzkoa*, 1025. urtean). Euskara batuan baztertzekoak dira, Euskaltzaindiaren aburuz, *Gipuzko* eta *Gipuzku* aldaerak. *Gipuzkoa* izenean *a* hori berezkoa da, jakina denez: *Gipuzkoako, Gipuzkoatik, Gipuzkoan*, etab.

Herritarraren deitura *gipuzkoar* edo *giputz* da (historian zehar, *iputz* Erdi Aroan, cf. *Enecho de Ypuça, don Ypuça de Nauaz*, e.a.), baina *gipuzkoar* orokorragoa da.

Euskalkia *gipuzkera* da. Bereizi behar denean erants daiteke *Goierriko, Beterriko*, etab.

4. *Lapurdi, lapurtar* eta *lapurtera* izenetan ez da inolako zalantzarik, euskara batuko idazkeran kontsonante ondoko aspirazioa kentzea erabaki zenetik. *Laburdi*, ezaguna denez, oso bakana da euskal testuetan.

5. *Nafarroa, Gipuzkoa* bezala, *a* organikoduna da *Nafarroako, Nafarroatik, Nafarroan*. Bereizi behar denean *Nafarroa Garaia* esan daiteke, Axularrez gero bederen erabiltzen den gisara. Horrela bada, *Nafarroa Garaiko, Nafarroa Garaitik, Nafarroa Garaian*, etab. dira forma zuzen bakarrak, hots, *Garaia*-ren <a> hori artikulua dela. *Naparro, Naparru* eta *Nabarra* ez dira hain erabiliak, eta horrenbestez ez dira gomendatzen.

*Nafar* da herritarren izena, *napar, napartar* edo *nafartar* baino egokiagoa, guztiek *nabar* dutelarik iturburu. *Nafarroa Garaiko* ere esan daiteke, behar izanez gero, edota *Hegoaldeko nafar*.

Euskalkia *nafarrera* da; zehazteko premia denean, (*Iparraldeko* edo *Hegoaldeko*) *goi-nafarrera* (marra aukeran utziz).

6. *Nafarroa Beherea* da probintzia honen izena. *Beherea* artikuluduna denez, *Nafarroa Behereko, Nafarroa Beheretik, Nafarroa Beherean*, e.a. esan behar da. *Baxenabarre* ere erabil daiteke, baina maila jasoan *Nafarroa Beherea* gomendatzen du Euskaltzaindiak. *Behe-nafarroa, Benabarra, Benaparra, Benaparroa* eta abar ez dira inola ere zuzenak.

Herritarren izena *nafar* da, baina Hegoaldeko beste nafarretarik bereizketa egin nahi bada *baxenabartar* edo *Iparraldeko nafar* nahiz *Nafarroa Behereko* erabil bedi.

Euskalkiez denez bezainbatean *nafarrera* edo *behe-nafarrera* (marra-ekin nahiz gabe) erabil bedi, aurretik *Ekialdeko* nahiz *Mendebaldeko* ezar daitekeelarik.

7. *Zuberoa* dugu, dudarik gabe, euskara baturako forma gomendagarria (cf. *Petri Çuberoa=Petri de Sole*, 1378; eta *Çuberoa* XVI. mendetik). Horren aldamenean, *Xibe(r)ú(a), Xibero(a)* eta antzekoak ere zilegi dira, baina maila dialektalerako gordeko dira. Bukarako bokala berezkoa da honetan ere: *Zuberoako, Zuberoatik, Zuberoan*, e.a.

Herritarra *zuberotar* da; beranduegi dirudi Etxeberri Sarakoak, adibidez, darabilen *zuberoar* aldezteko. *Xiberotar* eta antzeko aldaerak maila

dialektalean erabil daitezke, X-z hasten diren probintziaren izenen aldaerak bezalaxe.

Euskalkia izendatzeko *zuberera* da gehien erabiltzen dena eta hori da Akademiak hobetsia; *xiberera* eta antzekoak zilegi dira, baina euskara jasotik at.

### 73. -GO Atzizkia eta izen multzokariak

**Hau da, beraz, Euskaltzaindiaren erabakia:**

- 1. Euskaraz askotan ez dago izen multzokariaren beharrik, nahikoa da plurala erabiltzea: *ikastetxe honetako irakasle eta ikasleak, herri bateko biztanleak, hizkuntza bateko hiztunak, etab.***
- 2. Hala ere, izen multzokaria beharrezkoa denean, *-eria* atzizkia erabil bedi: *langileria, gazteria, biztanleria* edo *bezeria*.**
- 3. *-go* atzizkia erabil bedi:**
  - ofizioa, lanbidea adierazteko: *artzaingoa, zurgingoa, etab.*
  - tasuna adierazteko: *euskaldungoa, ahaidegoa, etab.*

*Tradizioa, irizpideak...*

Batez ere Iparraldeko euskalkietako den atzizki honek *-a* organikoa izan du garai batean eta oraino ere badu zubereraz. Hala ere, azken garaie-tan, *-go* forma nagusitu baita, honela onartuko da euskara batuan. Bi adie-ra nagusi izan ditu tradizioan zehar:

1. «Lanbidea, ofizioa» adierazten du (Hegoaldeko euskalkietan *-tza* atzizkiaz adierazten dena):

«Adam eta Ebaren lehen bi haurrak Kain eta Abel izan ziren. Lehena laborantzari eman zen, bigarrena artzaingoari». (Zerbitzari)

2. *-tasun* atzizkiaren kide da beste adibide hauetan:

«Egia heiek elgarrekin duten ahaidegoa eta batasuna». (Laphitz, *Bi Saindu Hescualdunen Bizia*, 46)

14. ... baina hirurogeita hamar urterekin hil zuen; zegoeneko (**?/dagoeneko**) hirurogeita hamar urtetan bizirik iraun arazi (**iraunarazi**) zuen.
15. Gaur egungo zailtasunen aurrean, jakintsuek ames dezaketzen (**amets/amestu dezaketzen**) irtenbide bakarra herriek beren etorkizuna erabakitzeke daukaten eskubidea baino ez da.

## 20. Egin beharreko zuzenketak egin hurrengo esaldietan

1. Ez ziren egipziar hiritarrik existitu (**ez zen egiptoar hiritarrik existitu/ez zen hiritar egiptoarrik**), txinatar hiritarrik egon ez zen bezalatsu.

2. Zazpirehun (**zazpiehun**) urte inguru bananduta bizi ondoren, alde bietako populazioak bata bestearekiko arrotzak eta ezberdinak bilakatu dira.
3. Antonio Epifanes-ek, Erromatar Inperioan ustezko estatu-erlijio bat mantendu asmoz (**mantentzeko asmoz**), Jupiter Olinpikoaren kultura ezartzeko...
4. Beraz, zientzi-teoria (**zientzi teoria/zientzia(-)teoria**), gertatzera iris daitezkeen behaketazko gertakari batzuekiko bateraezina da, eta baieztapen honek, benetako zientzigintzaren (**zientziagintza-ren**) eta arestian aipatutako teoria-hirukoteak errepresentatzen duen pseudozientzigintzaren (**pseudozientziagintza**) arteko lehengo lehen funtsezko bereizketa ezartzen du.
5. Popperren eskakizuna ez baita «sistema zientifiko bat behin eta betirako (**hob. «behin betiko»**) aukeratua izan ahal izatea, zentzu positibo batetan (**batean**); baina bai froga empirikoen bidez zentzu negatibo batean aukeragarria izatea...»
6. Beraz, zientzi teoria bat onartua edo baztertua izango da baldin (eta soilik baldin) hautemateak beharrean ondorio esperimantal kontrastatzaileak adierazten dituzten oinarritzko zenbait enuntziaturekiko akordio batetara (**batera**) heltzea posible bada.
7. Ikusi dugunez, Popperren ikusmoldearen arauera (**arabera**), zientzi teoria ez da esperientziatik edo behaketatik eratorzen.
8. Gehienez ere, enuntziatu hau maila handiagoan edo txikiagoan ones (**onets**) (hau da, partzialki froga) daiteke.
9. Are zehatzago, logika induktibistak hipotesiei egotzi dakiekeen (**egotz dakiekeen**) sinesmen arrazionalaren maila zehazten du.
10. Definizio poppertarraren lehen errefusatzea (eta biribilena Milleren eta Tichyren eskutik iristen da, 1974ean (**1974an**) argitaratutako bi artikulutan.
11. Laudanen aburuz, beraz, zientziatasuna eta zientzia-arrazionaltasuna ikerkuntz tradizioaren (**ikerkuntza(-) tradizioaren**) baitan definitzen dira.
12. Ladanez aurkeztutako kontzeptu hau Kuhnren paradigma kontzeptuaren oinordeko garbia da, 60 eta 70eko hamarkadetan agertutako beste zenbaitekin gertatzen den legez (esate baterako, Lakatosen zientzi ikerkuntz programaren (**zientzi ikerkuntza(ra)ko programaren**) kontzeptua).
13. Esanahiaren alderdi hau hobeki ulertzen da itzulpenaren eta interpretazioaren arteko ezberdintasunak azpimarratzen direnean; baina, batik-bat (**batik bat**), lexiko baten ikaskuntz prozesua (**ikas-kuntza(-)prozesua**) aztertzen denean.



14. Oporraldia dela eta, apirilaren 9tik apirilaren 19ra bitartean EHUko linea guztiak etetzen (**eteten**) dira, bere ohiko ordutegia mantenduko duen 2322 linea ezik (**izan ezik**).
15. Leioan, 1998.eko apirilaren 3a (**3an**)

## 21. Osa itzazu hitz elkartuak zutabe bietako hitzak konbinatuz

**Adibidez:** *literatura + arazo = literatura(-)arazo / literatur arazo*

- |               |              |
|---------------|--------------|
| 1. literatura | 1. elkarte   |
| 2. burdina    | 2. arazo     |
| 3. jaiotza    | 3. eskakizun |
| 4. ardi       | 4. arau      |
| 5. ekonomia   | 5. tradizio  |
| 6. hizkuntza  | 6. biltzaile |
| 7. natur      | 7. fabrika   |
| 8. ortografia | 8. arrisku   |
| 9. zerga      | 9. kirol     |
| 10. herri     | 10. esne     |
| 11. autonomia | 11. zientzia |
| 12. kutsadura | 12. kontrol  |

## 22. Egin beharreko zuzenketak egin hurrengo hitz elkartuetan

1. Euskal-mendi-elkarteek ekintza ugari antolatzen dute urtean berrera. (**Euskal mendi-elkarteek**)
2. Berri-berriak dira zerbitzura ekarri dituzten konputagailuak. (**zuzena**)
3. Bulegoz-bulego (**bulegoz bulego**) ibili izan arren, oraindik ez daki norekin hitz egin behar duen.
4. Liburutegiko apal horretan dauden liburu guztiak argitaratu-berriak (**argitaratu berriak**) dira.
5. Giza-mugimenduak (**Giza mugimenduak**) sekulako indarra hartzen ari dira Euskal Herri osoan.
6. Benetako neurriak hartu behar ditugu itsas hondakinei aurre egiteko. (**zuzena**)
7. Lan-eske (**lan eske**) ibili da azken hilabeteotan, baina ez du ezer aurkitu.
8. Eskuartean (**esku artean**) daukazun txostena utzi, eta joan zaitez nagusiarekin hitz egitera.
9. Aldian aldi (**aldian-aldian**) egiten ditugu honelako lanak.
10. Hainbat errejimen-mota dago. (**zuzena**)

### 23. Zuzendu zuzendu beharrekoak (hitz-elkarteen idaztarauak)

- |  |  |
|--|--|
| 1. AITA AMAK <b>aita-amak</b>                  | 17. ZUZEN ZUZENEAN <b>zuzen-zuzenean</b>             |
| 2. VITORIA GASTEIZ <b>Vitoria/Gasteiz</b>      | 18. PARTEHARTU <b>parte hartu</b>                    |
| 3. DIRU BILKETA <b>diru(-)bilketa</b>          | 19. PAUSOZ-PAUSO <b>pausoz pauso</b>                 |
| 4. ERDAL TESTUAK <b>erdal testuak</b>          | 20. ESKU-ARTEAN <b>esku artean</b>                   |
| 5. LAN HITZARMEN <b>lan(-)hitzarmen</b>        | 21. ALFER ALFERRIK <b>alfer-alferrik</b>             |
| 6. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA <b>zuzen</b>     | 22. JENDE-AURREKO <b>jende aurreko/jendaurreko</b>   |
| 7. HAN HEMENKA <b>han-hemenka</b>              | 23. NAZIO-ARTEKO <b>nazioarteko/nazio arteko</b>     |
| 8. HEZKUNTZA ARLOA <b>hezkuntza(-) arloa</b>   | 24. DIRU-BILA <b>diru bila</b>                       |
| 9. BIDE ERAKUSLE <b>bide(-)erakusle</b>        | 25. BARKAMEN-ESKE <b>barkamen eske</b>               |
| 10. ERREGE ERREGINAK <b>errege-erreginak</b>   | 26. TARTEKA TARTEKA <b>tarteka-tarteka</b>           |
| 11. EKONOMI TEORIA <b>zuzena</b>               | 27. LASARTE ORIA <b>Lasarte-Oria</b>                 |
| 12. ETXE BIZITZA <b>etxebizitza</b>            | 28. ZELULA-BAKAR <b>zelulabakar</b>                  |
| 13. ELIZ-ZERGA <b>eliz zerga/eliza(-)zerga</b> | 29. ATE-JOKA <b>ate(-)joka</b>                       |
| 14. UNIBERTSITATE MAILAN <b>zuzena</b>         | 30. FORU-ALDUNDI <b>foru(-)aldundi</b>               |
| 15. GIZA ZIENTZIAK <b>zuzena</b>               | 31. (LAGUN) ESKU ZABAL <b>eskuza-bal/ esku-zabal</b> |
| 16. GAUR GAURKOZ <b>gaur-gaurkoz</b>           | 32. BIHOTZ-HUNKIGARRI <b>bihotz(-)hunkigarri</b>     |

### 24. Azpimarratu idazkera desegokiak hurrengo hitz elkartuetan

- |  |                              |                              |
|--|------------------------------|------------------------------|
| 1) a) filologi ikasketak               | b) filologia ikasketak       | c) <b>filologi-ikasketak</b> |
| 2) a) <b>hizkuntz-eskola</b>           | b) hizkuntza eskola          | c) hizkuntza-eskola          |
| 3) a) kultur sailburua                 | b) kultura sailburua         | c) kultura-sailburua         |
| 4) a) <b>lege gizona</b>               | b) legegizon                 | c) <b>lege-gizon</b>         |
| 5) a) <b>Deba-ibaia</b>                | b) Deba ibaia                | c) Debako ibaia              |
| 6) a) <b>mendiz-mendi</b>              | b) mendiz mendi              |                              |
| 7) a) izena eta deitura ??             | b) <b>izen deiturak</b>      | c) izen-deiturak             |
| 8) a) dekretu lege                     | b) <b>dekretu-lege</b>       | c) lege-dekretu              |
| 9) a) <b>eskumen-kontzeptua</b>        | b) eskumenaren kontzeptua    | c) eskumen kontzeptua        |
| 10) a) <b>giza-eskubideak</b>          | b) giza eskubideak           | c) <b>gizaeskubideak</b>     |
| 11) a) partehartzaile<br>(ik. HEOA 63) | b) parte hartzaile           | c) parte-hartzaile           |
| 12) a) dekanorde<br>(ik. HEOA 80)      | b) <b>dekanorde</b>          | c) dekanorde                 |
| 13) a) abal emaile                     | b) abal-emaile               | c) abalemaile (??)           |
| 14) a) <b>ELA-sindikaturia</b>         | b) ELA sindikaturia          | c) <b>ELAsindikaturia</b>    |
| 15) a) <b>bete-arazle</b>              | b) <b>bete-arazle</b>        | c) betearazle                |
| 16) a) <b>azpi-multzo</b>              | b) <b>azpi multzo</b>        | c) azpimultzo                |
| 17) a) erreferentzi puntu              | b) <b>erreferentzi-puntu</b> | c) erreferentzia-puntu       |
| 18) a) <b>bake-zale</b>                | b) <b>bake zale</b>          | c) bakezale                  |
| 19) a) egin berri                      | b) <b>egin-berri</b>         | c) <b>eginberri</b>          |
| 20) a) <b>ezkon berri</b>              | b) <b>ezkon-berri</b>        | c) ezkonberri                |

25. **Zuzendu zuzendu beharrekoak hurrengo esapideetan (berrelkarketa)**

1. Hitzarmen negoziazio parteeek... («las partes negociadores del convenio») **hitzarmenaren alde(rdi) negoziatzaileak**
2. Enplegu Oinarrizko Legea **Enpleguaren (Enplegu(ra)ko) Oinarritzko Legea**
3. Enplegu erregulazio espedientea **Enpleguko erregulazio(-) espedientea**
4. Enplegu politika komunitarioa (**zuzena**) / **enplegu-politika komunitarioa**  
**Enpleguko politika komunitarioa/Erkidegoaren enplegu(-)politika**
5. Logela-aldaketa **zuzena**
6. Euskal aldizkari-zuzendari-bilera **euskal aldizkarietako zuzendarien bilera**
7. Hautagai berri-zerrenda **Hautagai berrien zerrenda**
8. Emakume- eta haur-taldeak **zuzena**
9. Ebazpen- eta jarraipen-batzordea **zuzena**
10. Zakar-biltzaile-taldea **zakar-biltzaile taldea?**
11. zientzi ikerkuntz programa **zientzia-ikerkuntza programa?**

26. **Eman hurrengo izenen euskal ordaina**

GALICIA Galizia	LEÓN Leon	CANARIAS Kanariar Uhartek/ Kanariak
CANTABRIA Cantabria	BURGOS Burgos	MURCIA Murtzia
MADRID Madril	VALENCIA Valentzia	LA RIOJA Errioxa
ASTURIAS Asturias	ALICANTE Alakant	BARCELONA Bartzelona
GERONA Girona	LÉRIDA Lleida	PALENCIA Palentzia
CÓRDOBA Kordoba	LA CORUÑA Coruña	ORENSE Ourense
AQUITANIA Akitania	BURDEOS Bordele	PAU Paue
ESTRASBURGO =/Estrasburg	NIZA Niza	PIRINEOS Pirinioak
TOULOUSE Tolosa	ARGELIA Aljeria	DINAMARCA Danimarka
JAPÓN Japonia	ALEMANIA Alemania	CANADA Kanada
PARAGUAY Paraguai	MARRUECOS Maroko	CHILE Txile
SUECIA Suedia	NORUEGA Norvegia	REINO UNIDO Britainia Handia

## 27. Eman hurrengo hitzen euskal ordaina

GERONA	<b>Girona</b>
JAPÓN	<b>Japonia</b>
CHIPRE	<b>Zipre</b>
NORUEGA	<b>Norvegia</b>
LERIDA	<b>Lleida</b>
BURDEOS	<b>Bordele</b>
OCEANO ATLÁNTICO	<b>Ozeano Atlantikoa</b>
ALEMÁN	<b>Aleman (hizk) / aleman/alemaniar</b>
INGLÉS	<b>ingeles (hiz) / ingeles / britainiar</b>
ITALIANO	<b>italiera (hizk)/ italiar</b>
SUECO	<b>suediera (hizk)/suediar</b>

COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA	<b>Euskal Autonomia Erkidegoa</b>
GRAMÁTICO	<b>gramatikari (iz)</b>
CIENTÍFICO (iz / izond)	<b>zientzialari (iz) / zientifiko (izond)</b>
HISTORIADOR	<b>historialari (iz)</b>
INVESTIGADOR	<b>ikertzaile/ikerle</b>
BIÓLOGO	<b>biologo</b>
GRUPO PARLAMENTARIO	<b>parlamentu(ko) talde talde parlamentario (?)</b>
FUNCIONARIO	<b>funtzionario</b>
ANTIGÜEDAD	<b>antzinatasun</b>
COMÚN	<b>komun</b>
RACIONAL	<b>arrazional</b>
ARTILLERÍA	<b>artilleria</b>
PREJUICIO	<b>aurreiritzi</b>
PARTE TRASERA	<b>atzealde / atzeko alde</b>
ES DE BIZKAIA	<b>Bizkaikoa da</b>
NAVARRO (herritarra)	<b>nafar(ra)</b>
ADHESIÓN	<b>atxikimendu</b>
PREVER	<b>aurreikusi</b>
ADHERIRSE	<b>atxiki</b>
BILLETE	<b>billete</b>

## 28. Zuzendu lexikoa hurrengo esaldietan (hiztegi batua)

1. Sindikatua irakaslego (**irakasle**) euskadunen egoeraz bereziki kezkatu dago.
2. Interesatzen zaizulakoan, informazioa helarazteaz gain zure esku hartzea (**esku-hartzea**) eskatuko genizuke.
3. Horretarako, honi atxikirik doakizun parte hartze orria (**parte-hartze orria**) bete eta jarritako helbidera igorri behar duzu.
4. Bulego horretako langileen artean tirabira handiak eman (**gertatu/izan**) dira azken hilabeteotan.
5. Eskaera luzatu (**egin/eman**) nion nagusiari, baina ez zidan bai-menik eman.
6. Lehiaketaren bigarren azterketa egin eta gero hirugarren mantentzen da (**dago**) zerrendan.
7. Ezin ditugu bazter utzi nafartarrak (**nafarrak**) egiten ari diren ahaleginak euskara bultzatzeko.
8. Ikerketa horren emaitzak onartzeko egiaztagarritasun edo faltsugarritasun erizpidea (**irizpidea**) asetzea.
9. XVI-XVII.mendeetan hausdura (**haustura**) nabarmena eman (**gertatu/izan**) zen, batez ere Makiavelori esker.
10. Ordenu (**ordena**) politikorik onena bilatzeak zera esan nahi zuen:  
...
11. Dagoeneko ezin jo daiteke azken-azkenengo berma (**berme**) edo egi sustatzaileen bila.
12. Ondorengo filosofia politikoak ez dira gehiago ezagutzaren filosofia bati atxikiturik (**atxikirik**) egon.
13. Hutsune hori eskaini behar den irakaskuntz kalitatearen (**irakaskuntza-kalitatearen**) kalterako izan ohi da.
14. Batez ere «X» ikasgaiari jositako testu hautatuen itzulpen eta aurkezpenarekin ekitea iruditu zait egokiena, hutsune haundi (**handi**) horri erantzuten hasteko.
15. Horretarako, bere garaian eman (**izan/gertatu/piztu...**) zen polemika bat argitara ekarri dut.
16. ... horrela gure ikasleek euskara hobea jasoko lukete eta gure irakasleak beren akatsez errezago (**errazago**) jabetuko lirateke.

## 29. Zuzendu lexikoa hurrengo esaldietan (hiztegi batua)

1. Habermasek estatu eskuhartzailearen (**/?esku-hartzailearen**) funtzionamendu ekonomikoa erregulatzen duten printzipioez hitz egiten badu...
2. Jakina, gaur egun politikaren filosofiak baditu beste hainbat eztabaida-gai (**eztabaidagai**).

3. Baina batez ere, aipatu joera liberal hauek zera aldarrikatzen dute amankomunean (**batera**): justiziaren...
4. Gauditurik egoteak zera aurreuposatzen baitu, giza aurrerakundearen sinisten (**sinesten**) dela lehenengo eta behin.
5. Historiatik harandio (**historiaz haraindi(an)**) daude, arazo unibertsalak dira.
6. Filosofia politikoaren historian hezitzea (**heztea**), beraz, beti hor segitzen duten arazo funtzeskoetan (**funtsezkoetan**) hezitzea (**heztea**) da.
7. ... eta horretarako, Makiavelok argiasko (**argi asko**) ikusten du, derrigorrezkoa da ontasun ideal horren maila txikiagotzea.
8. Dotrina hau gordinegia zela eta onartua izateko, Hobbes-ek piska bat (**pixka bat**) leundu zuen, funtsean aldatu gabe ordea, eta aintza-gose erren lekuan poterea (**boterea**) jarritz...
9. Locke-k ere ildo honetatik jarraitu zuen, oraingo honetan aintzinakoen (**antzinakoen**) birtutearen (**bertutearen**) lekuan, neurri-gabeko jabetza-gogoa jarritz gizartearen motortzat.
10. Rousseuak hasitako modernitatearen bigarren uhin honetan, pentsalariak —ondoren etorriko diren Kant eta Hegelek batipat (**batic bat**)— jada historiaren filosofia bati lotutako pentsamoldea garatuko dute.
11. Gogor kritikatzten du gure pentsalariak gertakari/balore bereizketa, biak argi eta garbi bereiztu (**bereizi**) beharra kritikatzten du.
12. Hau 1955eko urtarrilean Jerusalem-eko Unibertsitate hebrearrean emandako lezioen (**ikasgaien/hitzaldien**) berridazketa da.
13. Bilaketa alperrikakoa (**alferrikakoa/alferrekoa**) litzateke ezagutza hori eskura balego.
14. Politikaren zientzilari (**zientzialari**) deitzen diren gizakiek eginko probetxuzko lanak ez du zerikusirik zientzia politiko «zientifikora» jotzen duten aspirazioekin.
15. ... ezagutza hauek beren egoera propioa estudiatzeko edo gai politikoetara dedikatze (**?/gai politikoetan jarduteko**) zuten erreztasun (**erraztasun**) beraz egin ohi zituzten.

### 30. Zuzendu lexikoa hurrengo esaldietan (**hiztegi batua**)

1. Ikerleak burruka (**borroka**) guztien gaintik dagoen hiritar bikain eta abertzalearen papera errepresentatuko du.
2. Ezagutza politikoaren maila kognoszitiboa ez da artzai (**artzain**), senar, general (**jeneral**) edo sukaldari batek duen ezagutza-mailatik desberdina.
3. Baina utilitarismoak, eboluzionismoak eta neo-kantismoak berr moldatua (**birmoldatua**) izan ondoren, ...

4. Zailtasun hauek ekiditzeko (**ekiditeko**), zientzilari (**zientzialari**) sozialak harreman on edo promozio pertsonalari buruzko burutapen oro arbuaitzen ditu, honako espresio (**esapide...**) birtutetsua (**bertutetsua**) erabiliz: berak ez dakiela egia bilatzea ona den...
5. Zera baieztatzen duenean, demokrazia ez dela derrigorrez bere kontrakoarekiko begibistako (**begi(-)bistako**) gorentasuna dakarren balorea...
6. Bere «baloraziorik gabeko etika» ez da inondik ere nihilismoa edo nihilismorako bidea; finean, pentsatu beharrik ez izateko aitzaki (**aitzakia**) bat baino ez da.
7. Natur zientzietatik hartutako ereduarekiko bere esklabutzaren (**esklabotzaren**) ondorioz, zientzia sozialek zenbait hankasartze (**?/huts**) egiteko arriskua dute.
8. Saiakera horretan, ordea, derrigorrez kultura horien esannahi (**esanahi**) sakona galtzen dute...
9. Prozesu historikoa funtsean kateatutako bidea delako kontsiderazio oro arbuaitzen du, edo, termino zabalagoetan, bide nabarmenki razionala (**arrazionala**) izan daitekeela defenditzen (**defendatzen/aldezten**) duen hausnarketa oro.
10. Arazo erabakiorra (**erabakigarria**) gizateriaren (**gizadiaren**) ezaugarri iraunkorren esanahiaren inguruan kokatzen da.
11. Kontuan hartu ahal izateko beharrezkoa da edukin (**eduki**) bat ematea, eta edukin (**eduki**) hori jada historikoa da.
12. Onartu edo, hobe esanda (**hobeto esan(da)**), patuaren kontzesioa bailitza pozez jaso...
13. 1933ko gertakari funtsezkoak zera frogatu zuen, baldin eta frog hori beharrezkoa bazen, gizakiak ezin diola gizarte onaren gaia planteatzeari uko egin, eta ezin duela, ezta ere, erantzun bat ematearen erresponzabilitatetik (**erantzukizunetik**) askatu...
14. Filosofo klasikoak ordutik inoiz berdindu ez den hurbiltasun- eta bizitasun-mailan aztertzen zituen hartueman (**harreman**) politikoak.
15. Hiritar edo politikarien hizkuntza amankomunaz (**komunaz?/hizkuntza berean**) mintzatzen ziren; kalekoa ez zen hitzik apenas ahoskatzen zuten.

### 31. Zuzendu lexikoa hurrengo esaldietan (hiztegi batua)

1. Horrela, filosofoak lotsagabea suntsitzen duen eta garaiturik dagoena parkatzen (**barkatzen**) duen benetako politikariaren zalutasun jatorra berplanteatu (**birplanteatu?**) eta borobiltzen (**birbiltzen**) du.
2. *Legeak* lege eta gai publikoei buruzko dialogoa (**elkarrizketa**) da, hiru agureren artean mantentzen (**?/gertatzen**) dena.

3. Ona eta aintzinakoaren (**Onaren eta antzinakoaren**) arteko ekuazioa, ordea, soilik lehenengo arbasoak jainkoak, jainkoaren semeak edo jainkoen diszipuluak (**dizipuluak**) balira mantentzen (?) daiteke.
4. Bestalde, filosofoak ez ditu oraindik Kretako eta Espartako legeak erasotzen, baina bai beren solaskideek eginiko lege horien interpretapenak (**interpretazioak**).
5. Honez gero (**Honezkero**), irakurleak ulertu du atenastarra ez dela Kretara etorri han legerik onenak estudiatzearren.
6. Espartarrak, bere aberriaren aurka altxatuz (**altxatuz**), ez du, ordea, homosexualtasuna defendatzen.
7. Halako gizonak ederki ulertzen dute zer den legearen arabera bizitzea, legeen izpiritua ezin hobekien (**ezin hobekien**) baitira.
8. Beren birtute (**bertute**) haundia (**handia**), hala ere, akatsean (**akats**) bihurtzen da gaia lege zaharren gordetze-terminoetan planteatzeari uzten zaion momentutik.
9. Beste zirkunstantzia bat herbesteratzeko (**erbestertzeko**) leku apropos baten falta zen: nora joan zitezkeen?
10. Errejimenak pentsamendu politikoaren kezka nagusi bilakatzen dira legeen izaera eratorria eta arazo-emalea (**arazo-emalea**) ezagutzearren.
11. Eta aberastasunari dagokionez, zera gertatzen da, jada Aristoteles ondo ohartu zen moduan, ondo kokatuak beti gutti (**gutxi (guti)**) batzuk direla eta txiroak, berriz, gehiengoak (**gehiengoak**).
12. Utz ditzagun bada bere biraoak dauden lekuan, berak izkutatu (**ezkutatu**) zituen zapiaren azpian estaliak.
13. Britainia Handiko (**Britainia Handiko**) tradizioan sortu eta Frantzia garatzen den doktrina honetan...
14. Renan europar (**europar**) mendebaldean abertzaletasun eta liberalismoaren arteko elkarkidetzak (**elkarkidetasuna**) hobeto adierazten zuen frantziar mugimendu nazionalista esanguratsuenaren esparruan kokatzen da.
15. Horrela, 1789ko iraultzaren ondoren sortutako tradizio honek, aintzindari (**aintzindari**) iparamerikarrak gutxietsi gabe...

### 32. Zuzendu lexikoa hurrengo esaldietan (hiztegi batua)

1. Gainera, esperientzia (**esperientzia**) iraultzaile honek, napoleondar inperialismoa dela medio, europar (**europar**) doktrina politikorako bide berriak irekiko ditu.
2. Anitzak (**Askotarikoak**) dira gizarte-motak: Txina, Egipto eta aintzinako (**aintzinako**) Babilonia bezalako giza multzoak; he-



- braitar (**hebrearrenaren**) moduko leinua; ...; erlijiozko loturaz osatutako aberririk gabeko elkargoak, hala nola israeldar eta parsien modura; Frantzia eta Ingalaterra eta Europako autonomia moderno gehiengoak (**gehienak**) bezala.
3. Ez zen egipziar (**egiptoar**) hiritarrik existitu, txinatar hiritarrik egon ez zen bezalatsu.
  4. Baina inperio hau IX. mendearen erdikaldean (**erdialdean/erdialdera**) hautsi zen ezinbestean; Verdungo hitzarmenak funtsean zatiketa aldagaitzak ezarri zituen...
  5. Frantziako biztanlegoaren (**biztanleriaren**) barruan zegoen arrazen desberdintasunaren ideia, Tours-eko Gregoriorentzat hain nabarmena zena, ez da inola ere agertzen Hugo Capeto-ren ondorengo idazle eta olerkari frantsesengan.
  6. Gertakari hau, gainera, beste ezaugarri garrantzitsu baten ondorioa izan zen, frankoak, burgundiarrak, gotuak (**godoak**), lonbardiarrak eta normandiarrak beren arrazako emakume gutxi izatearena, hain zuzen ere.
  7. Britainia Handian germaniar hizkuntzak menperatu ahal izan badu, hori latinak hizkuntza zeltarrak (**zeltak**) guztiz ordezkatu ez zituelako gertatu da, Galian ez bezala.
  8. Hau egiterakoan, abertzaleen artean ematen (**egiten/izaten**) diren bilera itxietan sartzen garen bitartean, gizateriaren (**gizadiaren**) esparruan arnasten den aire askea alde batera uzten dugu.
  9. Erlijioak, duela berrogeita hamabi urte Belgikaren sorreran halako garrantzia izan zuenak, bere inportantzi (**garrantzi (inportantzia)**) guztia bakoitzaren barru-barruan gordetzen du; herrien mugak ezartzerakoan, aldiz, ia ez da kontuan hartzen.
  10. Ezer ez dago absolutorik (**absoluturik**), eta egia da premiaren aurrean amor eman (**amore eman**) behar dela.
  11. Halako jarrerak politikako transzendentelengan irrifarrea (**irribarrea**) sortuko du, bizitza guztia beren buruak engainatuz eta beren gorengo printzipioetatik begiratzuz, gure arruntasunaz errukitzen diren izaki hutsezinak baitira.
  12. Max Weber (1864-1920) hil eta handik bi urtetara menperaketaren soziologiari buruzko bere entsaiuak (**saiakerak**) biltzen dituen *Ekonomia eta Gizartea* bilkura-liburua argitaratu zen.
  13. Profetaren karismari zuzentzen zaion debozioak, edo gerrako buruzagiari, edo asanbladako (**biltzarreko**) (*ekklesia*-ko) edo parlamentuko demagogo haundiari (**handiari**) zuzendutakoak zera esan nahi du, hau gizakien barne-barnetik «deituriko» gidaria dela...
  14. ... subiranoari obediencia zor dioten taldeko pertsonak, funtzionariak (**funtzionarioak**) izan edo ez, administrazio-tresnen jabe direnean, dirua, eraikuntzak, gerra-materiala, automobil-loteak, zaldiak edo dena delakoaren jabe direnean.

15. Ordena bateko legitimitatearen bermatasuna (**bermego/?bermetasuna**) izan daiteke: a) barrenekoa: huts-hutsean afektiboa, baloreen araberrako razionala (**arrazionala**) edo erlijioso; b) kanpokoa: ondorioei lotutakoa.

### 33. Zuzendu lexikoa hurrengo esaldietan (hiztegi batua)

1. Jaunak bere gustora (**gustura**) ezarri edo aldatzen duen legea; erizpide (**irizpidea**) materiala soilik; *cadi*-aren justizia.
2. Bulego bateko mailaketan kokatu eta erreglamentu bidez (**erregelamendu/araudi/arautegi**) konpetentzia (**gaitasuna/eskumena**) eman zaion funtzionaria.
3. Gutxiengo (**gutxieneko**) menpetasun-*borondate* jakin bat, obeditzeko *interesa* (kanpokoa edo barnekoa) alegia, funtsezkoa da benetazko (**benetako**) aginte-erlazio batean.
4. Baina gizatalde bati ezarritako menperaketa orok normalean (ez nahitaez beti) administrazio-*koadro* bat eskatzen du; hau da, konfidantza (**konfiantza**) izan behar dugu honako probabilitatean: ...
5. Habermasek bere ikuspegia agertuko du, bide nabar (**bidenabar**), gaurregungo (**gaur egungo**) gizarte kapitalistaren analisiari egokitzeke.
6. Egoera honen aurrean, eta teoria kritikoaren ezaugarriak gidaritzat hartuz, gizarte humanoago (**gizatiarrago**), zuzenago, libreago eta razionalago bat (**arrazionalagoa**) bultzatuko duen *razionalitate praktikoa* (politiko-morala) defendatu beharrehen lehentasuna aldarrikatuko du.
7. ... balore-lanaren teoriak kontratu librearen instituzio juridikoak adierazi nahi zuten askatasun-itxura suntsitua utziko du, lan asalarituaeren (**soldata(pe)ko lanaren**) erlazioari nahitaez zegoakion bortxaketa soziala agerian utziz.
8. Indar produzitzaileak (**ekoizleak**), intuitiboki eta nabarmen, gizartearen produzitzen (**ekoizten**) zuten gizakien erabaki arrazoizkoen eta ekintza instrumentalaren ondorio ziren bitartean, gero eta erabilgarritasun tekniko gehiagoko indar bezala ulertuak izan zitezkeen.
9. ... [gizakiak] bere produktu automatizatu propioen aurrez-aurre (**aurrez aurre**) jartzea ezezik (**ez ezik**), bere aparatu tekniko propioan ere, *homo fabrikatus* gisa, integraturik gelditzea erdietsiko luke.
10. Rawls-ek «esanguratsuenak» defendatu beharra dagoela azpimarratzen du, hauek pertsonaren ahalmen moralak hoberen (**hobekien(ik)/ondoan/ongien...**) babesten dituztenak izanik...
11. Adostasun honek «haserako (**hasierako**) helmuga» deitu dudana ekartzen du.

12. Hala ere, balio ekitatiboa bermatzeko norabide bat alderdi politikoak, jabetza pribatuko demokrazia batean, botere sozial eta ekonomia (**ekonomia**) pribatuko kontzentrazio handietatik salbu jarztean legoke...
13. Hau da, kontuan izanik praktiketako ikasleek itzultzaileen funtzioak ezin dituztela bete, nahitaezkoa gertatzen zaigu honelako zerbitzu bat bekario (**bekadun?**) baten bitartez ematea.
14. Antzinako etxeetan eginiko eskuhartze (**esku-hartze**) modernoak
15. Adrellua (**adreilua**) gaurregungo (**gaur egungo**) eraikinetan
16. Inpresionismoa eta ekspresionismoa (**espresionismoa**)

#### 34. Zuzendu lexikoa hurrengo esaldietan (hiztegi batua)

1. Azken hamarkadetan semiotikak bere lekua egin du unibertsitate-disziplinen (**diziplinen**) artean eta toki hori berezia izan da Komunikazioaren Teoriaz arduratzen diren fakultateetan.
2. Ez da semiotika komunikazioaren emaria, urratsak eta nondik-norakoak (**nondik norakoak**) aztertze bide, modu eta erreminta bakarra, jakina. Semiotikak bere iker-modeloak dauzka, beste disziplinetakoekin (**diziplinetakoekin**) alderatuta desberdinak direnak, noski.
3. Seinale enblematikoak adierazteko erabili izan da ikurra: nazioaren bandera, kristauen gurutzea, sozialisten larrosa (**arrosa**) edo komunisten igitai eta mailua ikurrak ditugu.
4. Komunikazio-egintza bidezkoa izan dadin, kode amankomun (**komun**) baten arabera aitortu eta erakarri behar zaio esangura seinale bakoitzari.
5. Beraz, linguistika, hizkuntzalaritza, zeinu-sistemak aztertze zientzia orokorrako baten atal espezialdua (**espezializatua**) baino ez da.
6. Ekintza bera betetzera animatzen den kolektiboa dugu *masa*; esate baterako, hauteslegoa (**hautesleria**), irakurlegoa (**irakurleak**), entzulegoa (**entzuleak/entzuleria**)... eta abar.
7. Marxistak ere arduratu izan dira kontzeptuaz [‘masa’ kontzeptuaz]. Marxistentzat, *masa* gizarte-kategoria oso zehatz bat (**oso zehatza**) da: herri xehea, langilegoa (**langileria**).
8. *Komunikazioak* beharrezko du, gainera, igorleak eta hartzaileak, animatu (**bizia**) zein inanimatu (**bizigabea**) izan, kode edo zeinutaria (**?/zeinu-multzo**) komuna erabiltzea, elkar ulertzea posible izateko.
9. [Masa] Terminoaren lehen erabilpen (**hob. > erabilera**) publikoa Eliza Katolikoari zor diogu: 1963. urtean, Vatikanoko II. Kontzilioak luze hitz egin zuen *masa-komunikazioa* deitutakoari buruz.

10. Entzulegoa (**entzuleak/entzuleria**) edo hartzailegoa (**hartzai-leak**), audientzia (**entzuleria**) anonimoa da. Iturriak eta hartzaileek ez dute elkar ezagutzen; informazioa deitu dugun oinarri komunikatibo material hori da beren arteko lotura bakarra.
11. Gizarte «atzeratuetan», esate baterako, *masa-komunikazioaren* atributo (**ezaugarri**) ezaguna den filmegintza (**filmgintza?**) ez da gure artean bezala ulertzen. Gizarteotan filmeak (**filmak**) zerbait irreal dira, ulertzeko zailak.
12. Platonek, Sokratesen diszipulu (**dizipulu**) eta Aristotelesen maisu izan zenak, honela definitu zuen zeinua: «beste gauza bat, naturalki edo konbentzionalki berrigortzen duena (**beste gauza batera, berez edo egienez igortzen duena/gaituena**)».
13. Kontzeptuen eta sinboloen arteko erlazioa, ordea, konbentzionala da, giza taldeen (**?gizataldeen**) barruko akordioaren emaitza dira; horrexegatik dago hizkuntza bat baino gehiago: greziera (= **/greko**), hebraiera (**hebreera/heberkera**), euskara, etab.
14. Eskolastikaren urrezko aroa XIII. mendean ezagutu (**izan**) zuen Europak.
15. Semiotika, hizkuntzaren terminoen arteko erlazioa aztertzea helburu duen zientzia da. Mintzairaren aspektu (**alderdi**) zehatzak arakutzen dituen semantika da semiotika.

### 35. Zuzendu lexikoa hurrengo esaldietan (hiztegi batua)

1. Antolakuntza horren arabera, elementu bakoitzaren balioa besteek uzten diotena da; gauza bakoitza besteak ez direna da. Euren artean «oposaketa-balioa» (**aurkaritza-balioa**) dago. Hizkuntzan diferentziak (>**desberdintasunak**) baizik ez daude, zeinu bakoitza ez baita inguratzen duten beste zeinuak ez direna baino.
2. «Hizkuntzalaritza Orokorreko Ikastaroa» izeneko lanean, zeinu linguistikoaren hautazkotasunaren gaia aipatzean, adibide gisa «hegoalde»aren idea (**ideia**) hartzen du Saussurek eta, esaten duenez, *hego* kontzeptuak ez du zerikusirik soinuen sekuentziarekin.
3. Irakurleak orri bat edo beste hautatzen du irakurtzen hasteko. Kazetaren kasuan irakurleak hautatzen du zein notizia (>**albiste**) zein unetan irakurri; eta ez hori bakarrik, irakurleak berak erabaki dezake notizia (>**albiste**) hori zelan irakurri, goitik behera edo atzekoz aurrera...
4. Zeinua ez dator ezeretik (**ezerezetik/hutsetik**), zeinua pentsatua da, hitzarmendutakoa (**hitzartutakoa**), kodetua; legeria zehatz baten partaide baita.
5. Interlokutoreez (**solaskideez**) dugun iritzia exigitzen (**eskatzen**) du behin eta berriro hizkuntza deitutako kode edo arautegi nagusi horrek; eta hortik ez da errez (**erraz**) alde egiten.

6. Exigentzia (**eskakizun**) horiek direla eta, Barthes-ek hizkuntza faszistatzat (**faxistatzat**) jo izan du: «faszismoak (**faxismoak**) ez dizu hitz egiten galarazten (**galarazten**), faszismoak (**faxismoak**) era batera edo bestera hitz egitera derrigortzen (> **behartzen**) zaitu. Horixe da faszismoa (**faxismoa**).»
7. ... janzkeraren kasuan, bere ezaugarri propioak direla eta, kontzeptualizazio-maila zabala egin beharko litzateke eta kasu horietan hiru kontzeptualizazio-maila berezi (**bereizi**) beharko liratekeela begibistakoa (**begi(-) bistakoa**) da.
8. Edozelan ere, lengoaia-mota horiek, lengoaia mintzatuek legez, garapena ezagutzen (**izaten**) dute; garapen hori hiru arrazoi haue-tan oinarritzen da...
9. Gerora, talde hau «formalista errusiarrak» legez ezagutu zen (**talde honi «formalista errusiarrak» deitura eman zitzaion/...**).
10. ...Paris horretan soviatarren kontrako propagandista militantea izan zen bere exilio (**erbeste**) osoan. Hil ere herritik urrun hil zen, 1992an.
11. Lehen ikerketa horietan agertzen dira jada Ecoren teoria semiotikoan garatuko diren zenbait ezaugarri: testuaren interpretazio-prozesuaren garrantzia, kreaizioa (**sorkuntza**) aktibitate operatibo moduan ulertzea, generoen existentzia erabakiorra (**erabakigarria**), espresio (**esapide...**) estereotipatuaren indarra eta irakurle edo hartzailearen kolaborazio interpretatiboaren (?) beharra.
12. ... tesi horiek bildu egin ziren «semiotika» izena hartzen duen disziplina (**diziplina**) batean; Ecoren semiotika estrukturalismo frantsesak agirian (**agerian**) utzitako problema kritiko eta filosofikoetarako soluzio (>**konponbide/irtenbide**) berriztatzaile moduan agertzen da.
13. Kodea adierazpen eta edukien arteko harreman bat da, balioen akumulazio (**metaketa**) bat bilakatzen baita.
14. Ecok hipotizatzen (? > '**hipotesi**') hitzaz **berri-datzi beharko litzateke**) du, bestalde, ezen kultur sistema, edukien organizazioa (**antolaketa**), ez dela sistema egonkor eta definitu bat, magma al-dakor bat baizik, zeinak formulazio anitzak (**askotariko formulazioak**) eduki dauzkan eta erabili darabiltzan.
15. Hizlariaren komunitatea da, beraz, errealitatearen irudi komunen jabea, depositarioa (**hartzailea**).
16. Behin-betiko diagnostiko (= diagnóstico definitivo) (**behin betiko diagnostiko**)
17. Prozedurazko edukinak (= contenidos procedimentales (Psikol.)) (**prozedurazko edukiak**)
18. Ikerketa ezperimentalaren (**esperimentalaren**) alderdi onak eta txarrak
19. Aktibazio-zentru (**zentro**)
20. Akasdun (= defectuoso) (**akastun**)

### 36. Zuzendu lexikoa hurrengo esaldietan (hiztegi batua)

1. Testuarteko harremanak bi modu ezberdinetan eragingo dio tituluari: batetik, birsorpena (**birsortzea**) dakar, berregintza (**berregitea**) eta, bestetik, deformazioa (**desitxuratzea**).
2. Proiektu estilistiko asko daude baina titulugintzan benetako artea hauxe da: funtzio semantiko eta pragmatikoa hobetzeaz batera, tituluaren «showa» eskenifikatzen (**antzezten**) jakitea.
3. Paronimian oinarrituriko hitz-jokoan, oposaketa (**aurkaritza**) fonetiko minimo batek beste esanahi bat sortzen du.
4. Funtzio honek oso betekizun garrantzitsua du diskurtso telebisi-boan eta, batipat (**batik bat**), informatiboetan. Horretarako, bi bide erabiltzen dira: alde batetik, kamara (**kamera**) eta, azken finean, aurkezleak eten gabe (**etengabe**) ikusleari zuzendutako begirada...
5. Mezu batzuetan funtzio poetikoa dominatzen du. (**funtzio poetikoa nagusitzen da**)
6. Bi motatako kontratuak daude: bata, aldabakarreko (**alde baka-rreko**) proposamena deritzona; bestea, aldebiko (**alde biko**) proposamena: bi aldeek porposatzen dute (elkarrizketa, solasa...)
7. Momentu horren aurretik eta une horren ondoren, hau da, superfizie (**gainazal**) sentikor (**sentibera**) batean munduaren erregistro «naturala» egin baino lehen eta ondoren, keinu erabat kulturalak, kodifikatuak ditugu alde bietatik.
8. Ildo horretatik, ikonoa eta sinboloa, Peirceren ustetan, zeinu *mental* eta *orokor* modura hartu behar dira, gauzetatik bereiztuta (**bereizita**) azaltzen baitira beti.
9. Testigantza printzipioari dagokionean (**dagokionez**), irudi fotografikoa erreferente bakar baten lorratz fisikoa baldin bada, horrek esan nahi du argazki baten aurrean aurkitzen garen momentu horretan...
10. Telebistak mundu espektakularra (**ikusgarria**) erakusten digu modu frakzionatu (?) batean. Mundu fragmentatu (**?/zaticatu...**) horri lotura emateko gelditzen zaigun irtenbide bakarra, geure burua espektadore (**ikus-entzule**) huts-tzat hartzea besterik ez da.
11. Telebistak teatro-eskenategi (**antzerki/antzeztoki/agertoki**) bihurtu du mundua.
12. Telebista egitateetatik urrun dabil (funtzio erreferentziala ahazturik du, nonbait). Mundu fiktizioa eskaintzen digu gautegunez (**gau eta egun**) eta eskaintza hori sedukzioaren bitartez egiten da.
13. Telebistaren diskurtso-osagaien berezigarritasunak (**berezitasu-nak**).

14. Audientzia (**entzuleria**) handitzeko atxakiaz (**aitzakiaz**), programa guztiek edozeinek ulertzeko modukoak behar dute izan; azkean, informazioa eskeini (**eskaini**) beharrean, programa horiek informazio horren interpretazioa, balorazioa eskeintzen (**eskaintzen**) dute, erreztasunaren (**erraztasunaren**) izenean.
15. Ahozkotasunaren ezaugarriak indartzeko, berbaltasunaren (**ahozkotasunaren**) simulazioa (**imitazioa**) egiteko, testu idatziak sei baliapide (**baliabide**) diferente (**desberdin**) erabili ohi ditu zeregin horietarako.
16. Arrazonaketaren (**arrazoiketaren/arrazoibidearen**) arauetatik at egon arren, printzipio honek oinarri sendoak ditu giza izaeraren baitan...
17. famili-giro (=ambiente familiar) (**famili giro/familia(-)giro**)
18. psikologi-eremu (= campo psicológico) (**psikologi eremu/psikologia(-)eremu**)

### 37. Zuzendu lexikoa hurrengo esaldietan (hiztegi batua)

1. Deiktikoek duten arrazoi berberagatik, lokailuak sarritan agertzen dira testuetan ahozkotasunaren ezaugarri gisa. Eta diskurtsoaren prosekuzio interruptoa (?/ **jarraipen etengabea**) ahalbidetzen dute, erritmoa ezarritz.
2. Alde batetik, egoera-simulatzaile horiek beharrezkoa izan daitekeen azalpenezko datu bat eskaintzeko balio dezakete, diskurtsotik bertatik aterea izan balitz bezala; eta, bestetik, elkarrizketari berari dagokion atmosfera (**giroa**) propioa berregiteko.
3. Ohar hauek ez dira pentsatu irakurle arruntarentzat; ohar osagarriak dira, ustez kompetentea (**gai**) den irakurle bereziarentzat (?/ **espezializatuarentzat**) pentsatuak.
4. Elkarrizketaren ezaugarri hibridoa errebelatzen (**erakusten/ agertzen...**) duen beste ezaugarri bat, marka konstitutiboen presentzia (?) da, bai enuntziario diskurtsiboarena, bai diskurtsoarena, baita narrazio historikoarena ere. Horiek berez agertzen dira, maiztasun signifikatiboan (**adierazgarrian**).
5. Kazetariak bere testua antolatzen du halako moldez, non elogia (**goraipamena...**) baita oinarri antolatzailea eskaintzen duena; testuaren azken helburua hau da: pertsonaia modu indartsuan agertzea, bere balore (**?balio**) baikorren jabe.
6. Aurkitze horrekin batera, bestalde, iragarkigileen mezu kodifikatu horiek ikusle-hartzaileak zelan ulertzen dituen ezagutu (**jakin/aztertu...**) gura du semiotikak.
7. Iragarkiak balorazio aniztuna (**balioeste/balioztatze anitz**) erakusten du bere 18 segundoko iraupen laburrean.

8. «Gaberdia, Paris...» dio testu gain-inpresionatuak. Autoa autopistan (**autobidean**) sartzen da; lurzorua ilun eta bustia. Spotaren lehen planoak auto arin eta seguruaren irudia ematen du.»
9. Hona hemen X etxearen iragarki moderno bat (1996. urtekoa), auto-aldizkari espezialdu (**espezializatu**) batean argia ikusi duena.
10. Zilegi bekigu, balorazio (**balioeste**) desberdinak errazago ulertzeko, beste ikerlari (**ikertzaile**) frantses baten xehetasun zenbait gogoratzea.
11. ...beste batzuen iritziz, ostera, ipuin horiek bizitza bera dira, herri baten tradizioa agerian uzten dutenak, bizitzaren beraren parrarteak eta bibentziak (**?/bizipenak?**) baitira hor kontatutakoak.
12. *Jabetza* horrek sistema konnotatu guztiak uzten ditu agirian (**agerian**): klase soziala eta indar ekonomikoak, besteak beste.
13. Erosketa-modu honetan, eroslearentzat erosketaren egintza atxakia (**aitzakia**) bat besterik ez da jendea ikusteko, jendearekin berba egiteko, munduagaz bat egiteko.
14. Adibidearekin jarraituta, «martiztarrak» lehen mezua baino ez luke ulertuko, (AEE) formulak azalerazten (**?/azaltzen/azalera-tzen**) diguna, alegia, mundu denotatiboa.
15. Hautesleagoaren (**hautesleen/hautesleriaren**) antikomunismo itsua zela-eta, senatoreak bere eserlekua galdu zuen.
16. Ikusi dugunez, Popperren ikusmoldearen arabera, zientzi-teoria (**zientzi teoria/zientzia(-)teoria**) ez da esperientziatik (**esperientziatik**) edo behakuntzatik eratortzen.
17. Benetazko elkar-truke harreman (= relación real de intercambio) (**benetako truke harreman**)
18. Batazbesteko alokairu (=salario medio) (**batez besteko soldata**)
19. Dialektuak: ezaugarriak eta literatur banaketa (**dialektoak**)
20. Aleman idealismoa (**idealismo aleman/alemaniar**)

### 38. Zehaztu hurrengo formen onargarritasuna (hiztegi batua)

Adibidez:

A	B	C
amorr <u>u</u> (ONARTZEKOA)	amorr <u>azio</u> ( <i>Heg</i> )	amorr <u>aziño</u> (*)
anitz (ONARTZEKOA)	ainit <u>z</u> (*)	aunit <u>z</u> ( <i>h. anitz</i> )

A	B	C
abanguardia abantail	<b>abangoardia</b> abantalla	banguardia <b>abantaila</b>



A	B	C
abagadune	<b>abagune</b>	abagun
aberaspide	aberas-bide	<b>aberasbide</b>
abeltzantza	<b>abeltzaintza</b>	abere-zantza
aberaskarri	<b>aberasgarri</b>	aberatsgarri
<b>abilezia</b>	habilezia	abilezi
<b>abentura</b>	abentura	abentur
abioi > <b>hegazkin</b>	egazkin	<b>hegazkin</b>
abizu	<b>abisu</b>	abiso
<b>abortu</b>	aborto	
abots	ahotsa	<b>ahots</b>
<b>absolutu</b>	absoluto	absolutu
absurdo	<b>absurdu</b>	asurdo
<b>adierazpide</b>	adierazbide	adieraz-bide
administrazino	amministrazione	<b>administrazio</b>
afitxa	<b>afixa</b>	afitxe
<b>ageri izan</b>	agiri izan	
ahalbait (lasterren)	<b>albait</b>	aalbait
ahaldundi	aaldundi	<b>aldundi</b>
<b>ahoskatu</b>	ahozkatu	aozkatu
ahulezia > <b>ahuldade,</b> <b>-tasun...</b>	<b>ahuldade</b>	<b>ahultasun</b>
ailegatu > <b>iritzi, heldu</b>	<b>iritzi</b>	<b>heldu</b>
aina (zuk aina dakit)	<b>adina</b>	haina
ainbat	<b>adinbat</b>	<b>hainbat</b>
ainitz	<b>anitz</b>	aunitz > <b>anitz</b>
<b>aitzin</b>	aintzin	haitzin
aisa > <b>aise</b>	<b>aise</b>	haise
aitatu > <b>aipatu</b>	<b>aipatu</b>	haipatu
<b>aitzakia</b>	atxakia	aitzaki
akeita	<b>kafe</b>	
halabaina	<b>alabaina</b>	hala baina
albaitero > <b>albaitari</b>	halbaitari	<b>albaitari</b>
<b>alfer</b>	alper	
alper-lan	alfer-lan	<b>alferlan</b>
<b>alferrik</b>	alperrik	arpelik
alkar	elgar <b>Ipar</b> * > <b>elkar</b>	<b>elkar</b>

A	B	C
<b>alkate</b> altuera <b>Heg =goratasun,</b> altzaridenda amanda <b>Ipar &gt; isun</b> <b>komun</b> (izond) <b>amodio</b> amuts analisia andere <b>Ipar &gt; andre</b> <b>aniztasun</b> antzera (hegaztia) antzestu aintzina («aspaldi») <b>antzinatasun</b>	auzapez <b>L-BN</b> <b>garaiera goratasun</b> <b>altzari-denda</b> <b>isun</b> amankomun (izond) amorio <b>kamuts</b> analisis <b>andre</b> ainiztasun antzarra <b>antzeztu</b> antxina antzintasun	hauzapez <b>garaiera</b> <b>altzari denda</b> hisun komuna (izond) amodioa hamuts <b>analisi</b> andrea auniztasun > <b>aniztasun</b> <b>antzara</b> antxestu <b>antzina</b> aitzintasun

### 39. Zehaztu hurrengo formen onargarritasuna (hiztegi batua)

Adibidez:

A

**amorr** (ONARTZEKOA)

**anitz** (ONARTZEKOA)

B

**amorrazio** (*Heg*)

**ainitz** (\*)

C

**amorraziño** (\*)

**aunitz** (h. *anitz*)

A	B	C
apez > <b>apaiz</b> apostu arauera <b>arbel</b> arbol arnas argitarapen argumento <b>aro</b> («garaia, sasoi») <b>arotz</b> <b>arrautza</b> razional	<b>apaiz</b> <b>apustu</b> <b>arabera</b> arbela harbola <b>arnasa</b> <b>argitalpen</b> <b>argumentu</b> haro harotz arraultza <b>arrazional</b>	abade <b>Bizk =apaiz</b> apostura > <b>apustu</b> araura harbel <b>arbola</b> harnas  harotza arrolltze errazional

A	B	C
artileria	<b>artilleria</b>	artileri
aseguro	seguro	<b>aseguro</b>
asignatura * / i(ra)kasgai	<b>ikasgai</b>	ikaskai
aszensore	igongailu	<b>igogailu</b>
atezantza	<b>atezaintza</b>	atezantz
atxeki	<b>atxiki</b>	atziki
hatzamar* <b>atzamar</b>	<b>atzamar Bizk &gt; atzapar</b>	<b>hatz</b>
atzazal <b>Bizk &gt; azazkal</b>	azkazal > <b>azazkal</b>	<b>azazkal</b>
aurrekalde	<b>aurrealde</b>	aurre-kalde
aurreikusi > <b>aurrez ikusi</b>	aurrikusi	<b>aurrez ikusi</b>
aurrikuspen	<b>aurreikuspen</b>	aurre-ikuspen
aurreiritzi	<b>aurreiritzi</b>	aurriiritzi
ausardi	<b>ausardia</b>	
ausentzia	absentzia	<b>absentzia</b>
<b>oliba</b>	azeituna	
azpimarkatu	azpi-markatu	<b>azpimarratu</b>
<b>sufre</b>	azufre	
<b>baieztatu</b>	baieztu	
bakailu	makailu	<b>bakailao</b>
baloratu	<b>baliotsi</b>	
barkamendu > <b>barkamen</b>	barkazio > <b>barkamen</b>	<b>barkamen</b>
<b>barkatu</b>	parkatu	
<b>barku</b>	barko	
<b>bat-batean</b>	bat batean	bapatean
<b>batez beste</b>	bataz beste	bana bertze
bataila > <b>gudu</b>	<b>gudu</b>	batalla
<b>baxu</b>	baju	
behin behineko	behinbehineko	<b>behin-behineko</b>
behin-betiko	behinbetiko	<b>behin betiko</b>
<b>behinik behin</b>	behinipein	behinik-behin
<b>bake</b>	pake	
<b>beldur</b>	bildur	
benda <b>Heg &gt; lotura</b>	<b>lotura</b>	
<b>benetako</b>	benetazko	
bengantza > <b>mendeku</b>	<b>mendeku</b>	
berarizko	<b>berariazko</b>	
bereiztu > <b>bereizi</b>	<b>bereizi</b>	berezitu
beretsu	<b>bertsu</b>	

40. Zehaztu hurrengo formen onargarritasuna (hiztegi batua)

Adibidez:

<b>A</b>	<b>B</b>	<b>C</b>
<b>amorr</b> (ONARTZEKOA)	<b>amorr</b> azio ( <i>Heg</i> )	<b>amorr</b> aziño (*)
<b>anitz</b> (ONARTZEKOA)	<b>anitz</b> (*)	<b>auniz</b> (h. <i>anitz</i> )

A	B	C
<b>beribil</b>	<b>automobil</b>	<b>auto</b>
<b>berme</b>	berma	bermea
barbantz > <b>txitxirio</b>	garbantz > <b>txitxirio</b>	<b>txitxirio</b>
<b>berniz</b>	barniz	berniza
birtute	<b>bertute</b>	
beterinario	<b>albaitari</b>	
bibliotekari > <b>liburuzain</b>	<b>liburuzain</b>	
bidai	<b>bidai</b>	biaje
bide nabar	<b>bidenabar</b>	
<b>bilioi</b>	billoi	
biar	<b>billar</b>	
bilete	<b>billete</b>	
biolentzia > <b>indarkeria</b>	<b>indarkeria</b>	
<b>biribil</b>	borobil Gip > <b>biribil</b>	
<b>birraitona</b>	berraitona	
bizarmakina	<b>bizar-makina</b>	<b>bizar makina</b>
<b>bizikleta</b>	txirrindula	<b>txirrindu</b>
boligrafo gazt. > <b>bolaluma</b>	<b>bolaluma</b>	
boltsa	<b>poltsa</b>	
bolondres	<b>boluntario</b>	
<b>borroka</b>	burruka	
<b>botazio</b>	<b>bozketa</b>	botaketa
<b>botere</b>	potere	
botu	<b>boto</b>	
botatu	<b>bozkatu</b>	
burduntzi	<b>burruntzi</b>	
<b>buru-bero</b>	<b>burubero</b>	buru bero
buru-jabetza	<b>burujabetza</b>	buru jabetza
burumuin > <b>burmuin</b>	<b>burmuin</b>	
butaka > <b>besaulki</b>	<b>besaulki</b>	

A	B	C
<b>camping</b> kampus debalde <b>Heg lgart</b> dedikazio > <b>arduraldi</b> dedikatu > <b>ari izan</b> defendatu > <b>-ren alde egin...</b> <b>deiar</b> dekreto derrigor <b>Heg &gt; nahitaez</b> derrigorrez derrigortu desarroilatu deseatu <b>Heg. &gt; desiratu</b> desio <b>Heg &gt; desira</b> deskantsatu > <b>atseden hartu</b> deskantsu> <b>atseden; la-saitasun</b> <b>deskribapen</b> deskribitu deskuiduan <b>herr&gt; ohar-kabea</b> desorden desterru > <b>erbeste</b> detenitu	kanpin <b>campus</b> <b>doan</b> <b>arduraldi</b> <b>ari izan</b> defenditu <b>lgart &gt;</b>  deadar <b>dekretu</b> <b>nahitaez</b> <b>derrigorrean</b> <b>behartu</b> <b>garatu</b> <b>desiratu</b> <b>desira</b>  <b>atseden hartu</b>  <b>atseden</b> <b>deskripzio</b> <b>deskribatu</b>  <b>oharkabea</b> <b>desordena</b> <b>erbeste</b> <b>atxilotu</b>	<b>kanpin</b>  <b>dohainik</b>  <b>-ren alde egin/aldez tu/babestu</b> deihadar    deskribaketa

41. Zehaztu hurrengo formen onargarritasuna (hiztegi batua)

Adibidez:

A	B	C
<b>amorr</b> (ONARTZEKOA)	<b>amorrazio</b> ( <i>Heg</i> )	<b>amorraziño</b> (*)
<b>anitz</b> (ONARTZEKOA)	<b>ainitz</b> (*)	<b>aunitz</b> ( <i>h. anitz</i> )

A	B	C
deuseztu <b>dezente lgart</b>	<b>deuseztatu</b> dexente	

A	B	C
<b>marrazki</b>	dibujo	
<b>desberdin</b>	<b>ezberdin</b>	diferente > <b>desberdin/ezberdin</b>
<b>ezberdintasun</b>	<b>alde</b>	diferentzia > <b>desber-</b> <b>dintasun...</b>
<b>diputazio</b>	<b>aldundi</b>	
<b>diruzaintza</b>	diruzantza	
disimulo	<b>disimulu</b>	
<b>disko</b>	diska	
<b>diskrezio</b>	diskrekzio	
distantzi	<b>distantzia</b>	
<b>distira</b>	diztira	dizdira
<b>titare</b>	ditare	
diti	<b>titi</b>	
disziplina	<b>diziplina</b>	
<b>dizipulu</b>	diszipulu	diszipulo
<b>doan</b>	<b>dohainik</b>	duan
<b>dokumentu</b>	dokumento	
<b>dorre</b>	torre	
<b>jostatu</b>	dostatu > <b>jostatu</b>	
duro > <b>ogerleko</b>	hogerleko	<b>ogerleko</b>
<b>ebanjelio</b>	ebangelio	
<b>adin</b>	edade <b>Herr Heg</b> > <b>adin</b>	adina
<b>historia</b>	edesti > <b>historia</b>	
eraikina	edifizio	<b>eraikin</b>
edo/ta	<b>edota</b>	edo/eta
<b>heziketa</b>	<b>hezkuntza</b>	edukazio > <b>heziketa/-</b> <b>kuntza</b>
edukin	edukina	<b>eduki</b>
efekto	<b>efektu</b>	
egi	<b>egia</b>	
egotaldi <b>Bizk</b> > <b>egonaldi</b>	<b>egonaldi</b>	
<b>lur-emaile</b>	<b>ehorzle</b>	
ehundaka	<b>ehunka</b>	
ehunki > <b>mende</b>	<b>mende</b>	
ejerzito	gudaroste > <b>armada</b>	<b>armada</b>
ekiditu	<b>saihestu</b>	<b>ekidin</b>

A	B	C
<b>oreka</b> ekoiztu > <b>ekoitzi</b> elaberri eletrizista elemento elgar elikapen <b>elkarlan</b> <b>elkarzut</b> <b>emaile</b> <b>emendakin</b> «eranskin» <b>zirrara</b> enbarazo (egin) enbajada enganio <b>Ipar</b> > <b>engainu</b> enparantza > <b>plaza</b>	ekilibrio <b>ekoitzi</b> <b>eleberri</b> elektrikari <b>elementu</b> <b>elkar</b> <b>elikatze</b> elkar-lan elkar-zut emale enmendakin emozio > <b>zirrara</b> <b>enbarazu</b> (egin) <b>enbaxada</b> <b>engainu</b> <b>plaza</b>	          <b>argiketari</b>          elkar lan elkarzut          <b>traba</b> (egin)          engañu

42. Zehaztu hurrengo formen onargarritasuna (hiztegi batua)

Adibidez:

A	B	C
<b>amorru</b> (ONARTZEKOA) <b>anitz</b> (ONARTZEKOA)	<b>amorraio</b> ( <i>Heg</i> ) <b>ainitz</b> (*)	<b>amorraziño</b> (*) <b>aunitz</b> (h. <i>anitz</i> )

A	B	C
enparau <b>Bizk</b> > <b>gai-nerako</b> <b>enplegatu</b> enpleo entendimendu <b>aditu</b> entrepesa <b>entsalada</b> enpresario? entsegu <b>L-BN</b> > <b>saia-ker</b>	enparatu enpleatu <b>enplegu</b> entendimendu > <b>adimen</b> entenditu > <b>aditu, ulertu</b> <b>enpresa</b> ensalada enpresari? entsaio	          <b>gainerako</b>          <b>adimen</b> <b>ulertu</b>          <b>enpresaburu</b>          <b>saio/saiakera</b>

A	B	C
